

Nabarnizko Hiztegia (T, U eta X letrak)

Alberto Martínez de la Cuadra

Zamudioko Udaleko itzultzailea:
itzultz.zamudio@bizkaia.org:

Abstract

This dictionary is based on the corpus gathered around Nabarniz with respect to oral language. In addition to gather and define the words that use the Basque from that area, the author has made particular efforts to offer the relevant phraseology and examples of usage from that corpus. In this number of the magazine is being published the information regarding T, U, and X letters (T letter has 543 entries; U letter has 169 entries, and X letter has 6 entries). With the addition of these final chapters, the publication of the whole dictionary from Nabarniz has been completed in the Mendebalde review.

Laburpena

Hiztegi honek Nabarnizen bildutako ahozko hizkuntz corpusa du oinarri. Bertako euskararen lexikoa bildu eta definitzeaz gainera, ahalegin berezia egin da corpus horretako fraseologia eta erabilera-adibideak eskaintzeko. Aldizkariaren ale honetara T, U eta X letrak ekarri dira (T letrak 543 sarrera ditu; U letrak 169 sarrera ditu eta X letrak, azkenik, 6 sarrera). Azkeneko atal hauekin osorik argitaratuta geratu da, Mendebalde aldizkarian, Nabarnizen bildutako hiztegia.

Keywords: lexicon, oral speech, phraseology, Nabarniz

Hitz gakoak: Hiztegia, ahozketasuna, fraseologia, Nabarniz.

1. Sarrera

1. Lexikografiaren eginkizuna izaten da hizkuntza jakin bateko berben formak eta esanahiak era sistematikoan bildu eta eskaintzea. Hiztegi modernoek, lexikoa bildu eta definitzeaz gainera, lexiko hori erabilera-adibideetan txertatzen dute, hizkuntz corpus zabal batetik abiatuz. Era horretan, definizioei beste ñabardura batzuk eranstean zaizkie eta argiago erakusten da zein portaera izaten duten berbek diskurtsoan. Hiztegi honetan, Nabarnizko euskal lexikoa —edo lexiko horren zati bat, hobeto esanda— bildu eta definitu da, baina aparteko ahalegina egin da bertako herritarrei ahoz bildutako erabilera-adibideak edo testuinguruak eskaintzeko. Corpusa ahozko hizkuntzan oinarritzen dela kontuan harturik, ahozko formei dagozkien forma normalizatuak zehaztu gura izan dira, ahozketasunetik hizkuntza idatzira igarotzeko prozesuan askotan aurkitzen diren oztopoak kentzen laguntzarren.

2. Grabazioak Nabarnizko jende heldu edo zaharrari egin zaizkio, 1993ko maiatzetik 2003ko otsailera bitartean. Grabaziorik gehienak kasete-grabagailuz egin dira. Hala ere, 2002ko urtarrilaz geroztik grabazio digitalak egin dira, Minidisc grabagailua kanpo mikrofono batekin erabilia. Grabazio digitalen transkripzioak Cool Edit Pro izeneko soinu-editorearen laguntzaz egin dira.

Inkestak egiteko moduari dagokionez, batzuetan, etnografia arloko galderak egin dira; beste batzuetan, aurretik beste grabazio batzuetan batutako testuetako

berbei buruz galdetu da; berba biren edo gehiagoren arteko desberdintasunak ere eskatu dira; beste toki batzuetako berbak Nabarnizen ere erabiltzen diren galdetu da inoiz (halakoetan, ondoren erabilera hori egiaztatu beharra izan da berriemaile gehiagorekin); erdarazko esaldiren bat euskaratzeko eskatu zaie kasu banaka batzuetan; irudiak edo argazkiak erakutsi zaizkie, edo, beste barik, edozein gairi buruz berba egiten utzi zaie. Galderak prestatzeko orduan, lagungarriak izan dira, batez ere, Iñaki Gamindek hainbat herritan eginiko lexiko bildumak, Toribio Etxebarriaren *Flexiones verbales y lexicon del euskera dialectal de Eibar* liburua, Candido Izaguirreraren *El vocabulario vasco de Aránzazu-Oñate y zonas colindantes* liburua eta Gilisasti Fanoren *Urduliz Aldeko Berba Lapikokoa* liburua.

3. Sarrera burua letra lodiz eman da, amaieran puntua duela. Mugatzailea onartzen duten berbetan, forma mugagabea zein mugatua ezarri dira, koma batez bereizita (**apur**, **apurre**). Forma mugagabea nagusitzat hartu da eta letra tamaina handixeagoan idatzi da. Hala eta guztiz ere, kasu banaka batzuetan forma bakarra batu da, eta, horrenbestez, hura baino ez da ezarri. Mugagabe eta mugatuen bereizketari dagokionez, aipatu beharra dago berba batzuetan bikoiztasun bat izaten dela. Esate baterako, *-keridxe* atzizkia duten berbetan edo *karabidxe* berban; alegia, batzuetan *karabi-karabidxe* bikotea batu da eta beste batzuetan *karabidxe-karabidxe*.

Aditzei dagokionez, sarrera buruan era burutua eta ez burutua ezarri dira, koma batez bereizita, beti ere

biak jaso diren kasuetan. Era burutua letra handixeagoan idatzi da. Sarrera buruaren amaieran puntua ezarri da (**apurtu, apurtzen.**).

Sarritan, ordea, forma bat baino gehiago batu da. Halakoetan, aldaera guztiak sartu dira sarrera buruan, koma batez bereizita. Forma nagusitzat jotzen dena lehenengo ezarri da, eta aldaerak, berriz, haren hurrengo, beti ere aurreko paragrafo bietan forma mugatuei edo aditz burutuei buruz aipatutakoa kontuan harturik.

4. Sarrera buruaren ondoren, hari dagokion forma normalizatuak ezarri da, letra larriz eta parentesi artean. Askotan, bizkaieraz eta batuaz erabiltzen diren formak ez datoz bat; halakoetan, bizkaiera normalizatuko forma ezarri da aurretik, letra larriz, eta atzetik, berriz, batukoa, letra xehez eta *-bat.* gehiturik. Inoiz sinonimo bat edo beste gehitu da, beti ere Nabarnizen erabiltzen ez den berba bat izanik (ARTAGARAUN, artagarau-*bat.*, artale).

Atal honetan zailtasun handiak izan dira. Alde batetik, lexikoaren normalizatzeko lanak, orain arte, hizkuntza estandarera bideratu dira batik bat, eta horregatik ez dira normalizatu gaur egun ahozko bizkaieraz ahoz erabiltzen diren berba asko, edota baztertuta gelditu dira hitzak eraldatzen dituzten fenomeno fonetiko dialektal asko, nahiz eta euskalkiaren barruan hedapen handia izan. Beste alde batetik, bizkaierazko lexikoa ere oraindik normalizatu barik dago, nahiz eta ahalegin batzuk egin diren han eta hemen. Horren ondorioz, askotan ez da erraza izan forma normalizatuak —batez ere, bizkai ereduak— proposatzea. Esate baterako, *bijutz* sarreran (BIJA-HUTS, bidaia-huts-*bat.*) proposatu da, hiztegietan haren azarrenek aurkitu ez arren. Beharleku honetan, oinarri sendorik aurkitu ez denean, Nabarnizko berbetari estuago jarraitu zaio, batzuek estuegi iritzi liezaioketela jakin arren. Nolanahi ere, herri bateko hiztegi dialektala denez gero, normalizazioaren atal honetan irizpide malguagoak erabiltzeko lizentzia hartu da. Horrela, bada, *baridxe* sarreran (BARIAKU, bariku-*bat.*) agertzen da, hau da, Bizkaiko alderdi zabal batean erabiltzen den forma proposatu da “bizkaierazko” forma normalizatutzat, eta ‘bariku’, berriz, “euskara batuko” formatzat. Ildo horretan, gogorarazi beharra dago proposamen horien xedea dela erraztasunak ematea edo bide posible batzuk erakustea ahozko formatik gaur egun zabaldua dauden edo zabaltzen hasi diren ereduak igarotzeko. Hortaz, irakurleak erabakiko du zein forma (euskara batukoa edo bizkaierazkoa) erabili behar duen eta proposatutako forma egokia den. Hemen proposatutako forma asko era horretan ulertu behar dira, izan ere, mendebaldeko lexikoaren normalizazioa egiteko, eremu geografiko zabalagoa hartu behar baita oinarritzat, literatur tradizioa ahaztu barik noski. Hiztegi honek, ostera, oso eremu geografiko txikia aztertu du, eta gaur egungo ahozko hizkuntza bizira mugatu da.

5. Forma normalizatuaren ondoren, sarreraren gaztelaniazko adiera ezarri da. Berba askok adiera bat baino gehiago izaten dituzte eta bakoitzari zenbaki bat ezarri zaio aurretik. Animaliei eta landareei dagokienez, izen zientifikoa jarri da, halakorik aurkitu bada. Haur hizkerako hitz edo adieretan (Haur.) laburdura ezarri da.

Adierak emateko, gehienbat, ondorengo hiztegi hauek erabili dira: R.M. Azkueren *Diccionario Vasco-Español-Francés*, Plácido Mujikaren *Diccionario Vasco-Castellano*, *Elhuyar Hiztegia*, *3.000 Hiztegia*, Juan Martín Elempururen *Bergara Aldeko Lexikoa*, Emiliano Arriagaren *Lexicón Bilbaíno*, RAEren *Diccionario de la Lengua Española* eta María Molineren *Diccionario de Uso del Español*.

6. Nabarnizko hizkeran sinonimotzat jo daitezkeen berbak ere aipatu dira *Sin.* laburduraren bidez. Askotan, sinonimotzat jo barik, sarrerako berbaren eremu semantiko berdintsuko berba bat edo gehiago ezarri dira, *Ik.* laburduraren bidez. Inoiz, azalpen osagarri bat edo beste gehitu da, euskaraz. Adibide bati buruzko azalpena eman denean, □ ikurra erabili da.

7. Batzuetan sarrera bitan edo gehiagotan zenbakiak ezarri dira sarrera buruaren aurretik. Horrek esan nahi du, alde batetik, berba horiek, grafía bera izan arren, kategoria gramatikal desberdina dutela, edo, bestetik, izatez, berba desberdinak izan arren, nabarmiztarrek berdin ahoskatzen dutela (erren-herren/erren-errain).

8. Erabilera adibideak edo testuinguruak letra etzanean eman dira. Adibide bakoitzaren aurretik || zeinua ezarri da. Adibideok izan daitezke berba bikoak, esaldi batekoak edo esaldi gehiagokoak. Batzuetan, testuinguru definitzaileak bildu dira; testuinguru definitzaileok hitzen esanahiri buruzko informazioa ematen dute eta hitzak definitzeko duten garrantzia kontuan harturik, gainerako adibideen aurretik ezarri dira. Inoiz berriemailei eurei eskatu zaie berbak definitzeko; beste batzuetan berri emaileek eurek eman dituzte, besterik gabe, definizioak. Kasu batean nahiz bestean, jakingarri iritzi zaio berben adierak berbon erabiltzaileek eurek zehazteari.

Adibiderik gehienetan, hala ere, sarrerako hitza ez da definitzen; hitzaren erabilera-adibide bat baino ez digute ematen. Halakoetan, berbetaldi bateko atal bat ekarri da hiztegiari, testuinguru jakin bati dagokiola. Inoiz, berriemailei berba biren adieren arteko desberdintasunak zehazteko eskatu zaie, era horretan azaltzen baitira, askotan, inguru horretako berbeta ez dakitenentzat hain begi bistakoak izaten ez diren ñabardura asko. Adibideok erakusten digute berbak zein testuinguru zehaztutan agertu ohi diren, zein berbaren ondoan jarri ahal diren edo ezin diren, esaldiaren barruan zelan josi behar diren eta beste xehetasun batzuk. Adibideetan agertzen da argien, beraz, zelakoa den Nabarnizen hitz egiten den euskara.

Adibide guzti-guztiak grabazioetan batutakoak dira eta euren hartan transkribatu dira, ezer gehitu, kendu edo moldatu barik.

9. Sarrera nagusiaren barruan azpi sarrerak ezarri dira. Azpi sarrerok erabilera edo esanahi bereziko esapide eta hitz elkarketak izaten dira. Bakoitzaren aurrean □ ikurra ipini da. Azpi sarreraren burua letra lodiz eman da, eta amaieran puntua ezarri. Azpi sarreraren sailean nolabaiteko ordenari jarraitu nahi izan zaio. Lehenengo, aurretik sarrera nagusiko berba duten hitz elkarketak ezarri dira; ondoren, atzetik sarrera nagusiko berba dutenak, eta, azkenik, aditz batekin osatu direnak edo bestelako esapideak (**arto kapasie**, **kanpo artue**, **artue garandu**).

10. Sarrera hau ezin amai dezaket berriemaile izan ditudan nabarniztarrei euren laguntasuna eta prestutasuna eskertu barik. Ondorengo hauek dira haien izenak: Isaac Urtubi (Larrinaga), Andere Goiriena (†) (Ibarguen), Julian Bollar (†) (Ane), Karina Zabala (Ane), Maria Dolores Gabika-Aldekoa (†) (Bengoetxe), Genaro Izagirre (Etxebarri), Matilde Totorikaguena (Etxebarri), Victorio Goikolea (†) (Goikola), Julian Beaskoa (Agarre), Pia Sierra (†) (Goikoetxe), Sabin Sierra (Goikoetxe), Artiatx (Argiarrozarra), Jonas Gerrikagoitia (Ardantza), Alberto Goiriena (Ibarguen), Isidra Lekerikauriarte (Argiarro), Victor Ordorika (Gorostiaga), Pedro Garatea (Merikaetxebarri), Bienvenido Beaskoetxea (Iturribeko), Juan Pedro Ikazuriaga (Ikazuriaga), Jose Arrizabalaga (Aboixene), Santi Urzaa (Merikauriko), Zubizarreta (Ormaetxe), Jesus Elias Basterretxea (Torretxu), Lontzo Garetxena "Arrola" (Arrolagoiko), Juan Jose Ondarza (Beitxi).

2. T letra

ta. (TA) Golpe con la mano. □ **ta ein.** Pegar con la mano. || *Ta ingo tzut!*

taba. (TABA) Taba, hueso del cordero. || *Tabak gorde ingo sus gero?* || *Ori artxuek eukitte ittu orrek, tabak. Tabi da ori.* □ **taba jokue.** Juego de las tabas. Era hauetan jokatzeko da: *sapaletara, lepotara, sulotara, belarridxetara, txilibitue.*

tabaka. (TABAKA) Jugando a las tabas. || *Tabaka ein, olgau.* || *Tabaka neskak eitte ben.*

tabako, tabakue. (TABAKO) **1.** Tabaco (*Nicotiana tabacum*). || *Emen tabaku bai, txikoririk e... Ereitte ben emen orretan bai nonun. Ba Nabarrixen tabaku bai. Txikoridxe es, e san eitten.* || *Tabakue eraittie etzan egon galasota. Biar aundidxe eukitten deu, da itxi ein gentzon. Tabaku eraitteko permixue eskatu biar ixate san, da permixue eskatu, te landarie ba eurek botata ben ser bat, tabaku landarie artzen dabenak, edo nik estakitt mundik etorte san landarie. Da botaten dabe eurek landari, ta origaittik utz emon eskero landariek, edo gitxi etorri eskero, noberak bi dabena bayo-edo...;*

asidxe be botata ben, se geu pe asidxe be artu genduen, da tabaku be bai. Da gero itxi ein gentzon. **2.** Tabaco (cigarro o cigarrillo).

tabakorri, tabakorridxe. (TABAKORRI) Tabaco (*Nicotiana tabacum*).

tabakosale, tabakosalie. (TABAKOZALE) Persona aficionada al tabaco. || *Tabakosali dok ori!*

tabano, tabanue. Tabano. Ik. *akena, espadie, kaparrie, prailleulidxe.* || *Beste bat egoten da, ganadutan ibiltten dana; tabanue esate tzeu, guk tabanue esate tzeu orreri. Tabanuk gorridxek ixeten dire, da beste batzuk balzak.* || *Tabanue: bero eundidxe joten danin, agertzen dire.* || *Aundidxeri tabanue; bestiri prailleulidxe, txikitxueri, areri prailleulidxe; da emen ister artien da busten aspidxen kaballeridxeri espadie.* || *Ba orrek tabanuk eundidxek dire, seinde kurumiñuk, antzekuk, baya estire kurumiñuk. Kurumiñuk-eta barik, ganaduri eitte dxakos arek tabanuk batun, seinde orrixek e frailleulidxe lantxik.* || *Baya tabanu ixeten da beres ganaduri inketa dxakona, ganaduk ibiltten dabe udan-da, denpora onin-de. Negun-de esta ikusi be eitten iñun.* || *Tabanu eulidxe lakoxie da, eundidxau ixeten da.* || *Tabanu eulidxe lakoxe, ixeten da eulidxe bayo ba biku edo irukue ixengo da eundidxae. Da oni olan eskatzetan-da esta ibiltten orren euli txikidxen moduen. Baya ori tabanu bai, inketa dxake ganaduritte, ba odola edatek-edo, ainke eittek-edo.*

taberna, tabernie. (TABERNA) Taberna. Ik. *erriko tabernie.* || *Erriko tabernie, erridxeri errentau eitte tzo ori, lantzen batek.* || *Antonio sarrauek, Nabarnixen, ayuntamentun tabernie, erriko tabernie artu ban.* || *Ni e tabernatan enas oteko. Bidxar mesi ordu batan. Da andixik urten, da iru txikito edo lau edate dus etzera orduko, da kittu.* □ **taberna gixona.** Tabernero. || *Taberna gixona: tabernan beti deuna, asko juten dana.* || *Orrek taberna gixonak dosak!*

tabernasalie, tabernasalie. (TABERNAZALE) Persona que frequenta mucho la taberna.

tabernero, tabernerue. (TABERNARI) Tabernero, -a. || *Orrek esate ban, baten moskorras a, Elixaldekue, gure kintue, Elispekue. Arek e ari Rupertori, taberneruri, ba beti a idietan, da geusak esaten, da au te, "I, ididxek asko! Ididxek asko!". 'Idie' esateko, 'ididxek', moskorra euken itzela. "Ididxek, ididxek!"*

taidxu, taidxue. (TAIU, taxu-bat.) Apaño, maña. Ik. *moldie.* || *Esteko taidxurik bierrerako.* || *Taidxu ona deko.* || *Beittu a taidxue dekona arek jorrarako!* || *Orrek deko taidxue!* □ **taidxus.** Debidamente, convenientemente. || *Biarra ein taidxus!* || *Eitten deu bierra taidxus!* □ **taidxurik bakue.** Desmañado, -a; torpe, insustancial, negligente, sin fundamento. Ik.

ganora bakue, traskille. □ **taidxuskue. 1.** Mañoso, -a. Sin. *dxasekue*. || *Taidxusku: egokidxe, biergiñe, esku onekue. 2.* Hecho con maña, correcto, adecuado. || *Masa? Ser esangot neuk? Mas dabilienari, gitxi jasten diriñari edo ba, erropa taidxuskuk ibiltten estittunari edo ba, masa.*

takada, takadie. (TAKADA) Golpe. || *Takadie artu deu.* || *Takadie: saplasu bat emoten danin.* || *Takada galanta ein dxok.*

takar, takarra. (TAKAR) **1.** Duro, a. Sin. *gogorra.* || *Takarra ba, takarra ba gogorra. Ta besti be satarra da ba gogorra ero gosotasunik estekona. Orre ba tie. 2.* Desagradable, brusco, -a. || *Takar ori!* □ **lur takarra.** Tierra dura. || *Lur takarra dxak emen, esin konpondu!* || *Lur takarra da ligorra, gogorra. Emen ligorra esaten da, takarra bayo.*

taka-taka. (TAKA-TAKA) (haur.) Andando, caminando (a pasitos). Umeak ibiltzen hasten direnean erabiltzen da. || *Taka-taka asi da.* || *Umie taka-taka dabil.* || *Taka-taka da sutunik, ya ikesi ein dabela oiñes.* || *Umik taka-taka edo txakurke edo katuke edo.*

taket, taketa. (TAKET, hesola) **1.** Estaca. || *Txo, ori taketa loka dak.* || *Esate baterako, soluen sartu biosu taket bat, da nasai, olan dao, ta: "Meyeidxe jarri dok eta!"* || *Asto larrosie: olan taket aundidxe da, da lora aundidxe eukitte ittus. Jardñiekue, jardñieko lorie da.* || *Angailli da olako egur bat, da joste dxakos egur taketak da angailli ba geuk useta genduen, da txal txikidxe geixori daunien edo ba ill-edo eitte basan, ba angaillan erute gendusan enterretako be bai.* || *Taketa joteko masetie. 2.* Palo vertical del carro para aguantar la carga. Ik. *burdi taketa.* || *Burdidxe eukitte ittu olan sartute taketak, goitti bera sartute. Sulu pe eukitte itu egaletan, egal bidxetan, olanik-olanik. Aretan taketak sartze dxakos.* || *Taketa da seinde... burdidxe erute ittu or egaletan..., arei taketa esate tzeu.* || *Taketak euste tze. 3.* Grandullón, robusto. || *Mutil taketa: aundidxe, ta lodidxe danari-tte mutil taketa esate dxako.* □ *Hurrengo adibide honetan, oster, esanahi honekin gutxi erabiltzen dela dioskute:* || *Taketa batzuk esaten dabe ori be, susena ta fuerti-edo badan, "Mutil taketa dok". Baya emen ori esta useten, taketa burdidxenari esate tzeu ta.* □ **taketa les egon.** Fuerte. Ik. *sendue.* || *Taketa les dau.*

taketeridxe. (TAKETERIA) Grupo de gente robusta. || *Or dau mutil taketeridxe!* || *Mutil eundidxe badire, mutil taketeridxe esaten da; alako eskasa parik, mutillek desentexuk-eta, fuertiek, da ba, taketeridxe.*

tako, takue. (TAKO) **1.** Freno. || *Ori, takue eukitten dabe burdidxe gelditzeko-edo, geldi egoteko-edo, baya ostantziñ estabe eukitten. Ori erreilataten ipintten da sokias lotute.* || *Takue geusa askori esate tzeu. A bixikletiña be taku dire.* || *Da takue ipintte dxako*

burpilleri be, geldi egon deidxen. || *Takue? Frenue. Ori e eitte san piñuten edo karga astune ekarten basendun edo goittibera aundidxe ta esiñ eutzi ganaduek, ipintte sentzon tragie. Guk tragi esate gentzon. Guk ipintte gentzon egur bat, da areri egurreri soki ipiñi tiran, atzera, Da ba eurriñ ipintten basentzon ba, ba atzera ipintte sendun. Da atziñ ipintten basentzon, ba ganadun alderdire. Antxe ganadu jute sin lekun, ba tiran ipiñi sokie. Arek e burpille tatarres erute ban, erdi tatar derrigorrien. Ganaduk tiize tzenien, ona jun biarrien, ba tatarres. 2.* Taco de la pértiga del carro. || *Partikako takue. An suluen sartzen dana. Busterridxe sartzen dan taku esate dxakon. Bata atzien eukitten deu, te besti aurrien. Atzeraskue, atzerantz aitteko, da besti eurrerako.* || *Burdidxe eukitten deu agie —oin burdi asko esta ikusten baya—, olanik palo luse bat. Sulotxuk-sulotxuk eukitte ittus, de gañerie sartze dxako atzera, bedarra ta kargatze sanien, ipintte dxakon takue gañeriri espatan, da orreri deittute dxako espatie. 3.* Taco, pedazo de madera, metal u otra materia, corto y grueso, que se encaja en algún hueco. || *Takue esate dxakona be egote san geusa bat, olanik, egur bat, sulotxu dekona, da antxe ipintte san edo aspiarridxe, edo papel sati bet-edo ta ba, gero olan beste tako batas axe jaurtitzen be bai.* || *Takue: esate baterako, seri esate dxakola esangot? Takue esate dxako, sulo bateri olan tako bat sartu, bai sulo bat konpontzeko-edo sartze dxakonari ba, "Tako bat sartu" esaten da.* || *Tranbu an bokosu, bueltaka juteko peligrun, "Sartu idxok tako bat or bekaldin!". 4.* Poca cosa. **5.** Rechoncho, -a. || *Takue? Bueno, taku da..., txikidxeri bayo lodidxeri geidxau esango dxako, takue, neska takue.* || *Mutil takue: lodidxe, troku diriñari-edo: takue. 6.* Tacón (de la suela). || *Tako bako sapatue.*

takodun, takodune. (TAKODUN) Que tiene tacón. || *Takodun sapatie.*

taladrue. Taladro. Ik. *latrue.* || *Punteru da e seinde burdiñan... Sulu eitteko taladru bakixu ser dan. A taladruk puntan, punteruas eitten batzesu ori, aulan onako lekun bata nai bestera jute dxatzu a, sain. Da punteruas ta! Markeu, an markatxu eitten deu, sin... da antxe markan gero eitten deu taladruk.* || *Birbikiñe: eskus eitte dxako. Da taladru da elektrisidadias, korrintias.*

talán. (TALAN) Voz que expresa el ruido del cencerro. || *Arrana aundidxau da, arrana beidxeri-tte ipintte dxakena, talan-talan joten dabena.*

taldeka. (TALDEKA) En grupos, agrupado, -a.

talentu, talentue. (TALENTU) Afición. Ik. *afana, errestasune.* || *Talentue deko geusek ikesteko.*

talleu, talletzen, talleten. (TAILAU, tailatu-bat.) Tallar. || *Len kinttuk, ba, urtebete ariñau-edo talletze sittuen.* || *Talletzie deke geur an kinttuk.* || *Talletie,*

lelengotan, soldau jun orduko. Danak tallete sittuen, "Onenbeste talli deko".

talo, talue. (TALO) Torta que se prepara con harina de maíz. || *Taluk arturume bi deu.* || *Taluk eitte gus, ba, urtin baten edo olan.* || *Bai, talue arrotu eitten da, talue jo-ta eitten da, amasie ondo eiñ eskerun da beren tantun egon eskeruen taluri, ba erreten dauniñ olanik asala gogor urtete dxako.* □ **talo arpidxe.** De cara grande y redonda. || *Talo arpidxe sabala dekonari.* □ **talo palie.** Tabla redonda provista de agarradero, sobre la cual se extienden las tortas de maíz. □ **talo suridxe.** Torta que se prepara con harina de trigo. || *Ogi uruneas eitten da talo suridxe.* *Da talue arto uruneas.* □ **gari talue.** Torta que se prepara con harina de trigo. || *Gari talue gari urunas eitten da. A gosu ixeten da e gari talue! Senduau ixeten da gari talue.*

tamaño, tamañu. (TAMAINA) 1. Tamaño; proporción, medida. || *Orrek (iñurri) gorrIDXek, bai, aundixuauk dire tamañun be. Baya badas, amen berton esta ikusten, baya baltzak eure pe badas tamañu aundikuek.* || *Tamañu esan leidxo eundixeri, erdikuri, txikixeri, ba "Tamañu txikiku da", edo "Eundixuau da, edo "Tamañu aundiku da". Baya tamañoku normala da.* || *Beste ba tau, san jose lorie. Da axe ariñen loratzen da. Da txiki-txikitxue, da lora oritxue. Onako orri... Onen tamañoko orridxe eukitten dau, da orri sabala.* 2. Mediano, -a, ni grande, ni pequeño, a. || *Txigie da txoririk txikixena. Txirti da tamañotxue, txirti. Txirtak ibiltten dire bandak.* 3. En su justa medida, en la proporción adecuada. || *Artaberde asko emon eskero, ganadue be agintadie sartzen da, ganera es ei da ona, tamañu bai, tamañu bet, personik postrie les, ganaduri be postre modun bedarren ganetik.* || *Gero, ure, asko es, tamañu.* || *Ure ipintten da, da gero gatza botaten dxako, ba gustu noberan tamañu, da gero irakin didxenien, urune bota, ta ereiñ ein, de euki antxe erreten, euki erreten. Luserueu euki, tte gosau, erreten espada, tamañu saindu eskero.* || *Asto okana da baltza, ta tamañotxue.* || *Mermeladie ba eitten da, esate baterako, botate dxako asukerie beren tamañun, masustran tamañun-edo, da egosi eitten da ordubetiñ-edo, ordu bidxen-edo, nik estaitt. Neu pe esteket kostunbrerik itteko ta.* || *Galipota, da galipota sabaltzen. Da galipota orduko, len, arridxe botate san, arri tamañue, eskus ein biste san, da arexek arridxe plegetan be txilindru ibiltte san. Da gero galipotin beti ba a sapaltzen be txilindru.* □ **tamañokue.** 1. Mediano, -a, medianamente grande. || *Txarbi sagar ba ta, beranduku dana. Berdie, tamañokue, esta aundidxe be. Garratza da baya berandun e ondo oten da jateko.* || *Uridxe serari esate dxako, erri sertzu bateri uridxe. Tamañoku, esate baterako, Gernike lako bateri esate dxako.* || *Arboli da*

artie, da arixek aste ittun eskurrek dire arteskurrek. Arixek aste ittu olako..., ser esangot?, eskur gogorrik ixeten dire, da eundidxe pestire ixaten, tamañokuk ixaten dire. || *Ume batek edo tamañoko batek e ba ogidxe ta txokolati jaten baittu edo ba, ogidxe bera utzik jaten badeu ba "Jakera oneku da".* 2. Grande, enorme. || *Tamañoko danbarradie ixen da!*

tanbolin, tanboliñe. (TANBOLIN, danbolin-bat., arratz, ttuntun) 1. Tamboril. || *Tanboliñe ta txistue.* || *Tanboliñe jo.* 2. Tambor (para asar castañas). || *Etzin tanboliñiñ erreten sirin gastañak.* || *Erreten bota (gastañie) tanboliñera, da erreten erre, da gero ba tiru botaten asten da erreten danien, da tiru botaten asten daniñ atara kanpora. Gero ba sapaltzen gendun ainkakin, asalak erresau soltetako, da gero ba surittu te jan.* □ **tanbolin soñue.** Sonido del tamboril. || *Tanbolin soñue: taparra-tapa-tarra eki tze.*

tanbolinttero, tanbolintterue. (TANBOLINTERO, danbolinttero-bat.) Tamborilero, -a. || *Tanboliñe joten len ibiltte siñak. Bata esku batas txistu da beste tanboliñe. Da bestik e esku bidxekin tanboliñe. Da etorte sin beti errire be bai, danatan ibiltte sin. Txistularidxe esate tzen areri, tanbolintteruk ero txistularidxe.* || *A tanbolintteruk eukitte bena da txistue.*

tanbor, tanborra. (TANBOR, danbor-bat.) 1. Tambor. || *Tanborra jote dxok.* 2. Tambor, dispositivo dentado de forma cilíndrico de la rilladora. || *Matxaki da... Trilladora esate tze ba garidxe jotekuri. Da trilladora lenauku siren... es eken besterik tanborra, erdidxen tanborra, dana ortz utzes beterik. Da an sartun ori asaue, sartun da atara da sartun de jeurti. Da ak ebei eitten deu. Matxaki axe da.*

tanda, tandie. (TANDA, txanda-bat.) Turno, vez, ronda. || *Karakola, ganera, mayetz ostien asten da, bagillien asten da, lelengoko tandie botaten deu, da gero abustu askenetan, abustu bueltan beste bigerren tandie. Ugeridxe da.*

tanga, tangie. (TANGA) Tazón. Ik. *katillue, tasie, txolota.* || 'Tangie': *ur edateko, astatxuas. Katxarrotxue, ure edatekue, baya asti dekona.* || *Tangie ure edateko ibiltten danari esate dxako.* || *Ure edateko ontzi, tanga txikitxuri-edo ba txolota esate dxakon, esate tzen lenguek, geuk estou usau esaten txolota baya.* □ *Lehengo zaharrek edamena esaten ei zuten tangie baino gehiago: || Len gure amumak —oiñ esteutzegu esaten baya— onakuri, ontzidxeri, tangiri, tangi es eutzon esaten, edamena bayo.*

tangada, tangadie. (TANGADA) Gota (que cae continuamente). Ik. *tantie, ittoiñe.* || *Tangadie itturidxe botaten daben tantiri esate tzeu. Olan tantaka botaten dabena tangadie.* || *Tangadie: an tantan ure nai edoser tangadi badau, tangadi. Ittoiñe, tellatun ittoiñe estosu entzuten, ba a be tangadi esate*

dxako asko. □ **tangadan.** Goteando. Ik. *tangadaka.* || *Tangadie igul eoten da ittoiñin be tan-tan, "Tangadie dxak an tellatutik". Da beste batzuk esaten dabe bai ittoiñe, tantie, "An be tanti jeustok". "Tangadan dau" esate baterako ba segidun badau "Tangadan dau", an tak-tak-tak jeusten badau.*

tangadaka. (TANGADAKA) Goteando. Ik. *tangadan.* || *Tangadie da goti ixeti les. "Tangadaka dxak". Igul ittoiñe egoten da ba de tangadak tak-tak, galdu. Txorro batek galtzen badeu be, tangadaka esaten da. || Bai, tantie, "Tantie jeusten dxakok", lantziñ apur bet igul. Da igul ba asko jeusten bada, "Tangadaka dxak, sarratu!"*

tangakada, tangakadie. (TANGAKADA) Cantidad de líquido que contiene un tazón. || *Tangakadiiferenti da. Tangakadi da tasi bete ero tangi bete, tangakadi.*

tanga-tanga. (TANGA-TANGA) Onomatopeya de campanadas o de goteo. || *Sarritten domekan mesi jutekeran kanpai jote ben tanga-tanga.*

tangarro, tangarrue. (TANGARRO) Recipiente, lata. || *Emen tangarru esate tzeu, seinde tomate lata bat, nai piper lata bat utzittute jeurten dan bat, tangarru arixe esate tzeu.*

tangarrokada, tangarrokadie. (TANGARROKADA) Cantidad de líquido que contiene un recipiente. Ik. *tangakadie.*

tango, tangué. (TANGO) Tango. || *Soltie, trikitrikidxe eta gero gure denpora ramoli egon san, da gero soñu-jotzaila pe bai. "Ointxe jo bi dau pasadoble", "Ointxe jo bi dau tangué", "Ointxe jo bi dau baltza", da bakixu.*

tanta, tantie. (TANTA) Gota. Ik. *tangadie.* || *Euri tantak. || Ixerdi tantak. || Trumon euridxe: ba olantxik, botate ittu igul tanta sabal-sabalak, da-da-da-da!, gero ba atertu eitten deu, te ba trumon euridxe. || Txorixuk tantak botate ittue, tanta-tanta botate ittue ta gero siketu eitten dire. || Txorixuk tantak botaten das. || Tantak jeusten diriñin: ittesurie. || Ittoiñe etziri jeuste dxakon tanti ixaten da. Igul e tellatuti sartze dxako da ba tantie beraiño etorten da. || Jeneralien or e igul esni edo beste... "Bota idxok tantatxu bet!". || An be tanti jeustok.*

tantadi, tantadidxe. (TANTAIDI) Arboleda bravía, bosque de árboles altos. || *Tantadidxe da arbola iñustu baku egotie. Baya tantadidxe esta gero piñuas eitten! Ixen bi deu aetxa ero olakue. || An e badaus ba, Berengarai esate tze. Bakixu Berengarai sein dan or. Goidxe junde da an aitxak, axe da tantadidxe, atxa tantaidxek.*

tantai, tantaidxe. (TANTAI) Árbol bravío, no podado. Pinuari sekula ez zaio *tantai* esaten. || *Atx tantaidxe. || As tantaidxe. || Pago tantaidxe. || Lexar tantaidxe. || Tantaidxe iñustu bakue da. || Tantaidxe*

da susena..., susena nai okerra ixen lei, baya bakarra, gora, dan alturan, baya gero arramatxu batzuk ataraten ditu olan, baneka-banekak, beti gora. || Orrek tantaidxek dire jeneralien altu. || Atx tantaidxek, orrek dire goidxagi ta eitteko-ta onak. || Tantaidxek ixeten dire lusik, gora doixenak. || Tantaidxe ixeten da susen badau gora. Da bestik besanguk ixeten dire albora eitten dabenak. || Au dok tantaidxe! || Iñustue a adarra ebei tte baju sabaldu eitten dasenak. An pagu badaus Mugireko etzatzen, are di pagu iñustuk. Da pagu tantaidxe das sekule mostu bakuek. 'Mostu' guk 'ebei' esate tzeu, da 'mostu' esate tze askok. || Alako pagorik emen e... Berton alako tantairik ikusi be esta eitten oin. Len egon san. An Posusarreta bakixu sein dan. Antxe egon san pago tantai ederra, da bota ei ben.

tan-tan. (TAN-TAN) □ **tan-tan ein.** (haur.) Pegar. || *Bai, "Eixu tan-tan!" da ori be esaten da. Sarri entzu ot txikidxetan. Ume txikidxeri "Ein tan-tan, tan-tan!". Ba tan-tan ixengo da seinde golpeka ibilti ero ori eittie.*

tantaka. (TANTAKA) Goteando. || *Tantaka jeusten da. || Tantaka deko. || Tantaka dau.*

tanto, tantue. (TANTO) Tanto (en juegos y deportes). || *Tantu sartu deu.* □ **tantora.** Calculando el valor de un animal u objeto sin pesarlo o medirlo. || *'Tantora' da..., begire esaten dabe batzuk. Baya tantora da ba ser dekon estakidxela saldu bi osu, onenbesteko baten. Da oin danak jentie, oin danak pixu ikusten juten dire, pixure, baya len es, len bueno!, len gure aitte tratanti ixen san, da tantora eroste basen. || Oin be saltze ittue tantora, da neurtu bari pe bai, tantora be bai, neurtute be bai, baya karnaseruk neurtuneko txalik-eta estabe artu gure ixten, arek eurok neurtu gure ixaten dabe.* □ **tantun egon.** Estar atento, -a, al tanto. || *Bai, talue arrotu eitten da, talue jo-ta eitten da, amasie ondo eiñ eskerun da beren tantun egon eskeruen taluri, ba erreten dauniñ olanik asala gogor urtete dxako.*

tantue. (TANTO) Excremento (del perro o el gato). || *Txakurrek eitten dabenien korotza: "Txakurrek tantuk ein ttu". || Katuk eitten badeu, katun tantu (esaten dxako), edo katakorotza be igul. || Txakurren tantuk.*

tapa, tapie. (TAPA) **1.** Tapa. Ik. *estalkidxe.* || *Otzarak taparik estabe eukitten. || Estramiñeko tapi apurtu da.* **2.** Tabla anterior o posterior del carro (tablas que se añaden al carro para sujetar la carga). Ik. *burtola.* || *Atzeko tapie.* **3.** Tapa de la cocina económica. || *Tapie? Ser esangot neuk? Esate baterako, ori txapiñ atieri, ba seinde noberen gerridxen alturan, edo olan egoten da tapie.* **4.** Manta. || *Oko tapak ixeten dire ba mantak, eta trastik. "Tapie bi da geur bai, tapie!", oyen, esaten da igul. Tapie ba, otzageittik ori.* □ **aska tapie.** Tapa de la ventana por la que se introduce al pesebre el alimento

del ganado. || *Ia, erei xak aska tapak, jaten emon bi tzet ganaduri tte.*

tapadun, tapadune. (TAPADUN) Dotado de tapa. || *Ontzi tapadune.*

tapagarri, tapagarridxe. (TAPAGARRI) **1.** Tapadera, cubierta. Ik. *estalkidxe.* || *Tapagarridxe da ba ganeti botaten dan geusie, tapagarridxe. Ori be, txondorra len eitte san, ori be, tapagarridxe eitte dxakon leलगotan, da gero iduridxe.* **2.** Manta, abrigo. || *Da amen berton be igul otz-ero badau, esango tzu "Bota idxok tapagarri geidxau, otz dxekot eta".*

tapa-tapa. (TAPA-TAPA) A paso corto, despacio. || *Tapa-tapa dabil.*

tapau, tapaten. (TAPAU, tapatu-bat.) **1.** Tapar(se), cubrir(se). || *Tapau manta bates-edo ganetik.* || *Tapau-tapau ein naben ser ori.* || *A atxegi aundidxe deko, dana tapeten deu. Da eleko topeuko olan len sekule egon bakuk.* || *Da elixan tellatuas tapauneko lekue egon san elixien albotxuen, bertan elixiri segidxen egon san.* || *Da gero urrengo doiñien ostabe, markatxu eitten deu, da artue botaten da araxe markatxure. Da urrengo datorrenak osta be tapau eitten deu.* || *Matasie? Eur eitten daunien, eurre jeusten da matasan. Olako matasa osuk jeusten dire da kanpu de tapau eitten deu da "Eurre matasan da, kanpu be tapau ein deu".* **2.** Encapotarse, cubrirse el cielo, llenarse de nubes. || *Goidxe tapaute dau.* || *Lañus tapaute dxak denpora gustidxe.* || *Euskidxe tapau dxok.*

tapaukie. (TAPAUKA) Tapaboca, bufanda. || *Tellerue da tellak eitte ittuna. Bai, len..., oin be ingo ittue tellak, etorten dire ta.*

tardeu, tardaten. Tardar. || *Paguek tardaten i xun ogetamabost urte bueltie adarra asten.* || *Tardaten saus.* || *Tardeu eitten deu asko.* || *Igul pentzaute dekesu orra jutie, ero ara ero ona, ta "Atzakuntzi euki dxok" e, tardau ein dau ein, da atzakuntzie. Jun es ordureko, ero bi dan lekure, noberak gure daben modun.*

tarran. (TARRAN) A rastras. || *Bai, surak. Tronguri sure esate dxakon. Suretan ibiltte san. Basotik atarate san tarran, piesa, surek arran atara, esta? Goitibera alderdidxen arran ekarte san, da gero an suretakue da a. Gero erute besan gero serrara.* || *Tarran erun dxok.* || *Bajatu tarran!*

tarrañuelak, tarrañola. Castañuelas. || *Tarrañuelak bai entzun dot, eta ikessite deket, baya ori erdaldunek ibiltten dabe.* || *Tarrañolak. Arek Andalusiakuk. Bai berton be len.*

tarratada, tarratadie. (TARRATADA) Desgarro, rasgadura, rasgón. || *Tarratadie: bai, erropi apurtzen danin. Emen einde deko, aridxe eskatute, tarratadie.* || *Tarratadie ein dosu.* || *Tarratadie: erropie apurtute.*

tartamutu, tartamutue. (TARTAMUTU, total) Tartamudo, -a. Ik. *esiiñ esana.* || *Tartamutue esiiñ esana dekona da.* || *Esiñ esana? Esiñ esana dekona. Bai, tartamutu antzeku da, bai. Tartamutu esan leidxo.*

tarte, tartie. (TARTE) Intervalo, espacio, hueco. || *Olan atxegidxe, ta olan tartie daunari trokie esate tzau.* □ **tartien. 1.** En medio, entre algo. || *Ori eitte san tartien urten esteidxen beste bedarrak. Se mies badau, galtzen-galtzen juten da, da bidxen bittartiñ ostantzeko bedar sikiñek urtete tzo. Askidxe ta orrek.* **2.** En medio, siendo parte, participando. || *Tartien egon sara.*

tartera, tarterie. Tartera de barro o metal. || *Tarterie lapiku sabala da.* || *Tarterie da sartena barik, antzeku, tarteri.* || *Arraukie esnie egosi, da an tarteran edo serien garatzen da. Arraukie esaten deutzeu an garatzen danari.*

tas. (TAS) ¡Zas! (onomatopeya del golpe). || *Manga-manga plast, tostadak sakure tas!" Tostadak jaten dire, naidxe, naidxe, naidxe jan. Manga axe da, gero garixumin penitentzidxe datorrelako da.*

tasa, tasie. (TAZA) Taza. Ik. *tangie, katillue.* || *Ekarrixu tasa bete kafekonletxe!*

tasadore, tasadorie. (TASADORE, tasatzaile) Tasador, -a, persona habilitada para tasar o graduar el precio de un bien (generalmente madera). || *Tasadorie orixe, tasadori tasetan ibiltten danari esate tzeu guk. Edoser egur, basuk-eta, tasadori.* || *Tasadorie? Baso bat, esate baterako, orixe beste balidxo deu, edo piñadi bet edo bota eitten dabena. Tasadori guk arexi esate tzeu.*

tasakada, tasakadie. (TAZAKADA) (Contenido de una) taza. || *Tasakada bete kafekonletxe.*

tasau, tasetan. (TASAU, tasatu-bat.) Tasar, fijar el precio.

tas-tas. (TAS-TAS) (haur.) Pegar.

tata. (TATA) □ **tata ein.** (haur.) Pegar. || *Tata iste!* || *Eidxosu tata!*

tatar. (TATAR) A rastras, arrastrando(se). || *Guk tragi esate gentzon. Guk ipintte gentzon egur bat, da areri egurreri soki ipiñi tiran, atzera, Da ba eurriñ ipintten basentzon ba, ba atzera ipintte sendun. Da atziñ ipintten basentzon, ba ganadun alderdire. Antxe ganadu jute sin lekun, ba tiran ipiñi sokie. Arek e burpille tatarres erute ban, erdi tatar derrigorrien. Ganaduk titze tzenien, ona jun biarrien, ba tatarres.*

tatarres. (TATARREZ) A rastras, arrastrando(se). || *Tatarres erun deu.* || *Narrie tatarres eruten da.* || *Igul tatarres dabil beyen, da "Eixu apa!", ba apur bat jagi deidxen gora.*

tate. (TATI) □ **tate ein.** Renunciar. || *Tate eittie: tatie ba ori, sera eittie, "renuncio" esati les eittie. Tati*

da ba au edo besti sestu te gero bertan bera sertutie. ||
Tati ein tzo.

tato. ☐ **tato ein.** (haur.) Saltar. Ik. *salto ein.* || *Ein tato!*

tau. (TAU) Onomatopeya de golpear con un martillo. ||
Mallue tau-tau joteko ixeten da, bidiñ-edo estrepesuedo badau-edo.

tauk. (TAUK) Onomatopeya del golpe. || *Topekaridxe da topeka noberari nai edoseri geusa bat, esate baterako, beidxe nai ori, "Kaguen topeka noberari eitte tzo ba, tokaridx-ok ori!". Da txaltxue an erropan esnie edate deutzona, tauk! Eta tauk! ein dxok: "Topekari garbidxe!".*

tauke. (TAUKA) Pulsación, latido; golpe intermitente. ||
Bidxotzari guk e olanik e apur bet ariñ ein, edo estutu-edo eitte dabenin ba, "Bidxotza be tauke-tauke deket". || *Mallukias joten danin gause bat: tauke-tauke.* || *Tauke daus.* || *Pikie: kodaiñe, nai serri, nai piketako a, tauke-tauke-tauke eitten dana.*

taupada, taupadie. (TAUPADA) Latido, palpitación. ||
Bidxotzan taupadak.

taupadaka. (TAUPADAKA) Latiendo, palpitando. ||
Bidxotza taupadaka dxakat.

taut. (TAUT) Nada, ni mu. || *Tauti pe esteu aitten.*

1 te. (TE) Eh! || *Te-te-te, ori es ein!*

2 te, teye. (TE) Té (*Thea sinensis*). || *Teye artu bi dot*

tejamana, tejamanie. Tejabana, cobertizo. Iñoiz *tejabanie* ere entzun dut, baina *tejamanie* da gehien esaten dena. Ik. *estalpie.* || *Orrek tejamani-orre pe ori estau atrapetan ittesurerik, eta ba, ori be bolaue da, bolau esate dxako urik sartzen estan lekuri.* || *Oin tejamanan estau burdirik, kendu sirin, ortxe ote sirin burdidxek eta.* || *Da gero erute ben aterpera: berak karabidixik eukitte ban eurrien tejamani modukue. Da an eukitte ben da a gero eitte san onek esan dabena, errementau.* || *Asto pekotza, bastue. Amen asto pekotza ba emen es san aparte eitten. Da a ba asto korti esate gentzon, astu apartaute egote san ba. Labelan-ero, tejamanan-ero olanik. Baya asto pekotza bastu da.*

tejue. Olor fuerte. Ik. *atza.* || *Teju da useiñe. Teju da atza. Seinde teju esate dxako igul useiñe botate daun ureri "Emen dxak tejue!". Useiñe. Atzari be igul atza esaten dabe batzuk. Ba teju da... Kuartun nai edonun, "Teju dxak emen!", seosena.* || *Ba metal ure ostantziñ e bertan. Freskue! Ba teju itzela!*

teka, tekie. (TEKA, leka-bat.) Leca, vaina. || *Indar tekie.* || *Ider tekie.* || *Baba tekie.* || *Baiña tekie ederra dau.* || *Babina, ta baiñena tekak esate dxakue.* || *Tekie ederra deko!* || *Aidxena ixeten da, esate baterako, indarrak tekie asten dabenak be, aidxena emoten deu, lori emoten deu, ta gero tekie eitte dxako, ta ba, aidxena jeneral indarrak eukitten deu.* || *Aidxentzie itzela, ta tekari artu es!* || *Txiderra a tekatxuk eukitte*

ittuna, garaune barrun. ☐ **tekara batu.** Recolectar el grano con su vaina. Ik. *aidxenera batu, garaunera batu.* || *'Garaunera' ta 'tekara' geusa bi di orrek. "Tekara batzi' da teki oso-osorik artu. Da bestie garandute. Indarra tekara. Ta bestela da 'aidxenera'. Aidxena ixeten da dana osun. Dana artzосу, ta gero etzin siketzen euki tte gero ein jo makillias, ta garandu edo ori. Baya 'tekara batzi' da dana banan-banan.* || *Tekara da ba baiña, nai indderra, nai iderrak, ba teka, teka utzek batu, tekara batu.* || *Len plasara erute ben tekara batute, indar barridxe.*

tekaka. (TEKAKA) Por vainas (referido a la recogida). || *Esate baterako, indixabak edo indarrak eldute dasenien, ba neu pe batu eitte ittus sarritten, da eldunekuek batu, da lelengotan ba egositte jateko. Da gero ba batu, aidxenin be batzen da, tekaka batzen da, da kamarara be altzau, te siketu gero, da gero jo.*

tekatza, tekatzie. (TEKATZA, lekatza-bat.) Abundancia de vainas. || *Iguel esaten dabe: "Jo, aidxentzie itzela dxak", da gero tekatzarik es, teki gitxi. Gorridxe, ta aidxena.*

tela, telie. (TELA) 1. Tela. || *Telaskue.* || *Ardidxen ulias eitte san aridxe, da aras aridxas eitte san telie, da gero telias ebaitte san, ixera pe eitte sirin, da kamixa pe bai, da arkondara suridxe pe bai gixonentzako, da ba olantxik eitte sirin.* 2. Nata. Ik. *kipurrie.* || *Esne telie.* || *Ganeko telie.* || *Telie eitte dxako ganien e esniri geldi itxi eskero.* || *Len, aintxiñe kipurrerik es san esaten, oin bai, oiñ esaten dana ori kipurri, ori barridxe da. Len esne telie, beti len, es kipurrie.* || *Teli, esnie otzittukeran beti eitte dxako. Kipurri esate tze oin danak. Danak kipurrie. Sarias kentze tzo dana egosidxas-egosidxas. Da ba "Kipurre dana kendute dau" esaten da. Baya areri gero otzittukeran beti eitte dxako telatxue. Da len e, len esate baterako es kollarie, baya eulidxek an telin ganien ibiltte siren. Esni gogortute e! Gogortute es, baya telik itxi es. A da koipetzue eukitti esnie. Esne koipe askokue.*

telebisiñue, telebisiñoye. (TELEBISINO, telebisio-bat., telebista) Televisión. || *Ori neu pe telebisiñun ikusi naben.* || *Kari ona da fruta arbolantzat. Telebisiñoyen entzu naben lengo egunien.* || *Au bedarra, emen dauna, ori eittekue. Telebisiñun baten urte ban gixon batek... Ori jarabi eitteko bedarra da ori.*

tella, tellie. (TEILA) Teja. || *Gallurreko agie esaten da nausidxe, araxe doyes orrek kaperidxuk. Da gero aren ganin latie, da latin ganien tellie.* || *Etziri tellak ipintte dxakosenin, tella barridxek ekarritte, lenguk, sarrak kendute barridxek ipintte dxakosenin: erretillie.*

☐ **tella kantoye.** Teja que hace cantón. || *Tella kantoye? Telliri esango dxako tella kantoye, pentzetot nik kantoye eitten daben telliri.* || *Tella kantoye? Etzi tekon tellatun kantoye, axe.* ☐ **tella kaskue.**

Fragmento de teja. || *Tella aputuneko satidxe da tella kaskue.* □ **tella konpontzaillie.** Reparador de tejados. || *Tella konpontzaillak batu, da gabiñ aparidxe emote dxake.* □ **tella kurbedune.** Teja curvada. □ **tella lixue.** Teja plana. □ **tellie bota.** 1. Arrojar una teja. 2. Rematar o terminar el tejado. || *Tapetan, ya tellatu barridxe-edo ori: "Bota tzeke tellie areri etziri be".*

tellape, tellapie. (TEILAPE) Techado, sotechado; refugio. *Tellatupie* ere esaten da. || *Baya tellapie deittute tzege oneri be, eskatzari be. "Tellapien gaus". Kuarturi be bai.* || *Tellapie: goixden tellatu daumin, ba beye tellapi da.*

tellatu, tellatue. (TEILATU) Tejado. Ik. *kapelie.* || *Tellatu bakue.* || *Tellatuk-eta jeusitte ta dana deseinde.* || *Gero jun nas tellatue arregletan.* || *Erlatokidzek tellatu itxurie eukitten deu.* || *Euri asko daniñ e, euridxe sendo danien ba da jeusten dire tellatuti pa ittoiñek, da zrixeri esate dxako, jeusten danari, ittesurie.* || *Bakixu nun daun burdiñarie? Dau, len ixen san..., ser esangot ixen sala? Erlatokidxe, da oin be ganetik, ba tellatutxu antxe deko, da gure burdiñarie antxe deku.* || *Olan tellatuk-eta. Gero etzin da tellatuk-eta eitteko-ta iste sirin.* □ **tellatue emon.**

Rematar o terminar un edificio poniéndole el tejado. || *Tellatue emon dxako.* || *Tellatue emon bitzet.* □

tellatu gallurre. Cresta del tejado. □ **ur biko tellatue.** Tejado a dos aguas. || *Onek e etze korrintiok ur biko tellatuek, alderdi batera bata ta beste alderdire besti.*

tellatudun, tellatudune. (TEILATUDUN) Cubierto por tejado.

tellatupe, tellatupie. (TEILATUPE) Techado, sotechado. *Tellapie* ere esaten da. || *Sakabie orreri tellatupiri esango tze.* || *Tellapie esate su ba, tellatue dekonari ba tellapi esate tzesu. Da tellatupi be tellie euki bi deu ganin. Bidxe ti bat.*

telleridxe. (TEILERIA) Tejar, tejería. || *Telleridxe da tellak eitte itun fabrikie, telleidxe. Ladrilluk-ero len esate ben errete sittula su einde, da euskitten be bai batzuk.*

telleru, tellerue. (TEILERO, teilagin) Tejero, -a. || *Oiñ estau emen tellerurik, baya telleru da tellak eitte ittuna.*

tema, temie. (TEMA) Obstinación, terquedad; manía. || *Sittela, olan berenas urten gure dabenari-edo esate tzege, olan ba beren temie ein gure dabenari-edo, sittela-edo ba, "Beren sitteltasunes dabil"-edo ba.* □ **teman ibilli.** Obcecarse, obstinarse, empeñarse. || — *Emetik es sara pasauko! —Pasauko nas! —Teman dabis.* □ **temie artu, euki.** Obstinarse, empeñarse. || *Ya artun temie, ser baten noberak, eta kasuri pes, da ba: "Temie deko orrek!"*

tematu. (TEMATU) Obstinarse, empeñarse. || *Es tematu, ori esta olan!*

temosa, temosue. (TEMOSO) Obstinada, terca. || *Temosie? Ba, berenetik urtetan estabena.*

temoso, temosue. (TEMOSO) Obstinado, terco. || *Temosu? Temosu ba ekin de ekiñ axe beti berena, temosue.*

tenedora. Tenedor.

tenesak. Tenazas para coger la leña o el carbón de las chimeneas.

tenpestade, tenpestadie. Tempestad. Ik. *trumonadie.* || *Tenpestade txarrari eurre eitteko.* || *Tenpestadie? Ba olanik e, euridxe daniñ edo denpora gogorra daumin, tenpestadi esate dxako ba trumoi ta oñestu-ta dausenien orrixerri esate dxako.*

tenplau, tenplaue, tenpleue. (TENPLAU, tenplatu-bat.) Tranquilo. -a, apacible, con pachorra. || *Tenplau-tenplau dau.* || *"Tenplaue da": trankil dauna, patxadas dauna.* || *"Tenplaue da": trankil dauna, patxadas dauna.* || *Edo tenpleu daun geusa batek "Patxadie, ori da patxadie!"*

tenple. (TENPLE) Temple. || *Esteko tenple ona.*

tentada, tentadie. (TENTADA) Acción de tentar, molestar, chinchar. || *Tentadi da ba pelmi emoti les areri, sitzetan ibiltti, tentadie: "Tentadie arek emon tzeke"-eta.* || *Tentadi da esati les, entzun gure estaun geusi ondiño esanas, "I as tentadorie!"*. "Tentetan deutzek"-eta. *Tentau. Tentetan ernegau ein deidxen bestik.*

tentadaka. (TENTADAKA) Chinchando, molestando. || *Tentadaka bai. Ori be bai. An ostabe esan, da gandik geruau ostabe esan da, ernegau deidxen: "Tentadaka dxabik"-eta.* || *Tentadaka: tenteu, ernegau erein deidxen.*

tentadore, tentadorie. (TENTADORE) Chinchoso, -a, molesto, -a. || *Tentadori be bai. Beti ortantxe batzuk ekitte tze ba. Ori be bai, esaten da.* || *Tentadorie: tentetan dabillena, tentadori.*

tentagarri, tentagarridxe. (TENTAGARRI) Incitador, -a, provocador, -a, hostigador, -a. || *Tentagarridxe: olan tentetan ibiltten dana. Askotan olakue, "Tentagarridxe dara!" umiri esate dxake geidxau.*

tentasiñoye. (TENTAZINO, tentazio-bat.) Tentación.

tentau, tentetan. (TENTAU, tentatu-bat.) Instigar, incitar, provocar. || *Tentetie: persona bateri be, au esan, da ori esan, da ernegau ereitten basaus: tentetan.* || *Tentau esaten da olanik e... Se esangot neuk? Estirin geusak esaten-edo. Ba olan e umiri-tte.*

tente. (TENTE) De pie, en pie; tieso, -a, erguido, -a, firme, enhiesto, -a. Ik. *sutunik.* || *Tente ipiñi.* || *Tente*

dxak. || Espatie burdidxen aurrien tente eukitten dabe, egurre da. || Asto larrosie da geuse bat, olan tente, olan gora asten dana. || "Txairo-txairo doye": susen-susen, da tente-tente-ta. || Nik a tente be esautu naben, a pague (Airoko pague). Nik estakit senbat metro eukiko ittun. || Ondiño tente daus ormak. Estau asko baya sati bet tente deko.

tentel, tentela. (TENTEL) Atontado, -a, lelo, -a, lerdo, -a, tonto, -a. Ik. *papalardue, tontue. || Tentel mosolue. || Tentel nausidxe. || Ta gero igul alan tentel modun daunari be "A da iko pasiori!"*. □ **tentel ontzidxe.** Bobalicón, -ona. || *"Tentel ontzidxe!": bat ernegaute daunin, umiri sarri esate tze.*

tenteldu. (TENELDU) Volver(se) estúpido, atontar(se), atolondrar(se). || *Tenteldu ein da.*

tentemosue. 1. Tentemozo, palo que cuelga del pértigo del carro y, puesto de punta contra el suelo impide que aquel caiga hacia adelante. || *Tentemosue areri, euste eutzonari esate dxakon. || Ori da tentemosue!* 2. Memo, -a, simple, necio, -a, sinsustancia. || *Tentemosue: apur bet mal gitxiku danari-edo. || Tentemosue: mal gitxi dekona, edoser esaten dabena-edo. || Tentemosue esate dxako ganorabakuri-edo.*

tentziñoie. (TENTSINO, tentsio-bat.) Tensión. || *Tentziñoie osatuteko nik estaitt e medikuri esate badxakon be, da ardaun gitxiaun edan bai beinpein.*

terlis, terlixie. (TERLIZ) Terliz (cierto tipo de tela). || *Terlixie da senduaue, da au bayo loditxuau jeneral. || Terlixeskue.*

terrenu, terrenue, ternue. Terreno. || *Amentxe terrenuen ein biou etze bat. || Ardidxek ipintzen asi dire, garbitzeko terrenuek-eta. || Terrenu askoku da. || Gorritxun amarrekue. Bakixu, bedarra ebate san ba len, amarrekutan. Oin piñu sartute das arek eta. Da Gorritxun ternun dau, da an urteten ban arri bittartien ure.*

terrenotzu, terrenotzue. Provisto, -a, de mucho terreno. || *Terrenotzu da etzie.*

terrenplen, terreplena. *Terreplena nahiz terrenplena* esaten da. || *Terrenplena da geusa bat erripan, erripie, edo motie, edo solue..., dana dala, bai terrenplena, olan antzin dauna, edo ser esangot neuk?, terrenplena. || Alderdi bidxetan agertzen san terreplen aundi bet. || Goitti bera datorrena, lurre edo arridxe edo goitti bera datorrena, terreplenin bera.*

tersiador, tersiadora. Terciador, mazo menor que la almádena, y usado para partir piedras medianas. *Mallue* baino txikiagoa da eta *matxukie* baino handiagoa. || *Tersiadora da erdix erdikue. Tersio txikidxe, eundidxaue tersiadora, da mallue eundidxe. Arridxe joteku danak. || Matxuki da arridxe apurtzekue. A*

txikidxe da matxuki. Beste bat eunditxuau dau tersiadora. Urrango, ori mallue. || Mallue, matxuki, tersiadora... Iru klase daus. Ori mallue da eundidxena. || Tersiadora da txikidxaue. Ori da e... Tersiadora da mallugandik urrango, txikidxaue. A arri txikixue apurtze dxakon. Da gero da andik urrango matxuki. Txiki-txikixue. Matxuki. A, len esan dotena, aren kirtena bi dabe garatxue ixetie, on-on-ona orretako.

tia. (TIA) Tía. *Ixekue* oso gutxi erabiltzen da. Lehengo zaharrek ere tia esaten ei zuten. || *Ixekue dabillanak etze bat edo bi das ortxe, baya guk e beti tia.*

tiki-taka. (TIKI-TAKA) Aprendiendo a andar. || *Tiki-taka dabil.*

tint. (TINT) Nada, ni mu. || *Tinti pestau esan.*

tintirrin-tantarran. (TINTIRRIN-TANTARRAN) Azalpena: *ganora barik, txarto. || "Tintirrin-tantarran dabil": anak erdi tatarres dabixenien; edadekuek-eta ankan mobidu esiñik... || Tintirrin-tantarran ibiltten da. || "Tintirrin-tantarran dabil": ganora barik dabillenari-edo, tintirrin-tantarran ibiltten da.*

tiña, tiñie. (TINA) Tina, vasija de madera, de forma de media cuba. || *Tiñak egureskuk ixate siren guriñ egosanak. Da eitte siren ba se erropak lelengo jaboyegas garbittu, jabonau, oin labadorik eittun les, jabonau, da gero sartu antxe, ipiñi antxe sakar-sakar, da irakiñ aures ure, da ara tiñera goittik bota, da aspittik urten. Da arexe tiñie, erropie garbitzeko. Garbittu es, kolorie botateko ixate san e! Aintxiñeko usaridxe. || Antxiñe tiñie esaten dxakon erropa garbitzeko ser aundi bat, treska modukue edo, askok treskie esate tze, baya guk emen tiñie. || Erropa garbitzeko tiñie. || Leixiba arridxe tiñien aspikue san.*

□ **tiña arridxe.** Piedra o losa en la que se hace la colada. || *Tiña arridxe esaten dxakona san, olan, arri biribil bat. || Leixiba arridxe eta tiña arridxe bat san.*

tiñu, tiñue. Tino, acierto. || *Tiñuen asartetan gausa bat, gausa bat ipiñi, da a asartetan: "Tiñuen dabil ori!"*

tio. Tío. || *Ori nire tio da aitten alderdittik. || Jun san tio. Kargu eitte on san, da jun san, da betegarridxe bi ban.*

tipi-tapa. (TIPI-TAPA) Aprendiendo a andar. || *Tipi-tapa? Ba ume txikidxek e oiñes ikesten dabenin ba tipi-tapa ibiltten da ta ba arixerri be esate dxako "Tipi-tapa dabil". || Nausidxeri? Es, umiri esate dxake ori, "Ya umi soltau da, da ba tipi-tapa dabil".*

tiposa, tiposie. Elegante, distinguida. Ik. *dotorie.*

tiposo, tiposue. Elegante, distinguido. Ik. *dotorie. || Tiposue: ondo jantzitze, da bera be susena dana.*

tipu, tipue. (TIPO) Tipo, aspecto. || *Orrek tipu txarra deko. || Mingorrak ollogorran tipue deko euki. ||*

Mingorra txoridxe da, ollogorra lakuxe tipu iguleku, piku lusiie, da bera txikitxue: mingorra. || Madari sagarra untxe (urri hasieran) elduten da, da plasan beren tipu-tipoku badaus.

tira. (TIRA) Tiro. || Larrako saldidxe mendiko saldidxe da. Tirako-ta estanari. Oiñ e, oiñ e das orre ixenak. Len saldidxe esate dxakon. Oin batzu daus larrarakuk eta besti daus e tirarakuk, onek probarakuk-eta. □ **tirako saldidxe.** Caballo de tiro. || Larraku da solte ta mendixen dabixenak. Jeneraliñ e ba normalak. One besti tie ba saldi tirarakuk eta probarakuk esate dxakue oin ba. □ **tiran.** Tenso, -a, tirante. || Aren sesiñen narrue eitte san goidxen, kamaran sabal-sabal ein, tira-tiran ipiñi te josi untzekin. || Guk tragi esate gentzon. Guk ipintte gentzon egur bat, da areri egurreri soki ipiñi tiran, atzera, Da ba eurriñ ipintten basentzon ba, ba atzera ipintte sendun. Da atziñ ipintten basentzon, ba ganadun alderdire. Antxe ganadu jute sin lekun, ba tiran ipiñi sokie. Arek e burpille tatarres erute ban, erdi tatar derrigorrien. Ganaduk titze tzenien, ona jun biarrien, ba tatarres.

tirada. Altura, par. || Koltzi da amentxe berton deun tiradan, sabaidxen da onen abitasiñoyen bittartin dauna.

tiradora. Tiradora. Ik. kajoye. □ Hona hemen kajoye eta tiradora hitzen arteko desberdintasuna: || Kajoi da... Esate baterako, olako kuadru ereittosu te kajoi da. Ba tiradora da sartu te eittekue. Kajoye suelti be bardin da. Ta tiradora es. Tiradorak esan bi deu or sartute egotie, edo armaidxu baten. Da kajoye es. Kajoye a solte be... "Or e kajoin sartidkek erreminttak!" Kaja solte ba dekesu, ta kajoye esate tzeu areri. Da besti tiradora da, astias, sartu-atara eitten dana. || Kajoi da edoser. Eta onek e ba tiretzeuko eukitte dabe les, orregaitti dala pentzetot nik erdi euskera-erdera, tiradora.

1 tire. (TIRA) Vamos, venga. || Tire ba! || Tirok, guesen! || Tiroso. etor seittes! || Tiroso, arin!

2 tire, tírie. Tira, para manejar a los caballos. || Bokaua da burdiñi eruten deuna. Au barrun. Da andik tirak eukitte ittus an bueltara. Da gure bosu erun trallan —tralli bakixu ser dan—, ba andixi erute su bardin.

1 tireka. (TIRAKA) Tirando. || Tireka dabil. || Lepokin tiretu, anakak olan dittusela tireka.

2 tireka, tirekie. (TIRAKA) Tiro, efecto de tirar. || Tirekie? Su alderdi batetik eta nik bestetik e soka bateri tireka gasenien: tirekie. || Txute len usete san, or piñuk nai arbolak botateko ibiltte san, da goitti bera daun aldapa baten bera, txute. Oiñ esta usetan olakorik. Oiñ arrastadorie, edo tirekie. || Ori saldidxe tirekarako dekeu. □ **tirekan.** Tirando. || Tirekan ekar dabe.

tirekada, tirekadie. (TIRAKADA) Tirón, estirón. Ik. tenkadie. || Santiretue: ba tirekadi einde gelditzen dana tiretute, santiretu esate dxako.

tiretu, titu, tireten, titzen. (TIRATU) Tirar, estirar. || Belarrittik tiretu. || Da olanik, intxaurrak es, baya sagarrak nai beste geuse bat atrapau gure bosu, olanik puntie okerra dekona, da aregas tiretu eitten da, da kakutua aixe, tiretutekue. || Soidxe danak bate-batera ein bi dabe tiretu. || Goru ipintte san, jeneral paparriñ ipintte san, jeneral paparriñ ibiltte ben, olan paparrin, da amuri esku batas kolpe, da bestias tiretu, da bueltaka-bueltaka, ardatza bueltaka-bueltaka-bueltaka dala, aridxe itte san. || Areri ardatzari eraiñ eitte dxako, tiretu aridxeri, amun daunari, da erain, de aridxe eitten da. || Arek es eutzon esebe ein, espabese eskuri tiretu tzon, tiretu te antza dan les e, onako asurre edo onaku apurtu ban, da alkar joten ipiñi ittusela pentzetot nik, da gero idxaltzau ban dana. Da ondo geldittu san. || Goitti bera erres ekarten dabe, tiretute etorten da. || Kakutu da ori, urkule... olan egur batek, berak eukitten deu ona susen, auxe eukittie, betik eldute. Sagarrari e adarra bejatzeko be, aras eldu, da txa! tirete tzeu bera, kakutu guk arixerri. || Iru ordutik iru ordure emote gentzon guk betegarridxe esate tzeuna. Eitte gentzen kari tiretu betik, da a uekue gero egurre lelengotan ta gero arridxe. Da a gero egurrek erreten siñin, a bera bajete san. Da ostabe betik atara. Betik olako atakatzue. Andik tiretu atxurras da kanpora karie. || Da arek e, a kabliek titu eitte tze, ta gero piñun lotu, piñu bertan daun lekuen. Eperdidxe botaten dabixenak adarrak kentze tzes, eruten deu kablie araxe, lotzen dau da gero arek e a kable bati... Kable use... emon arte, bera batzen dau ak. Ekarriko dau trongue. Da gero eruteko modu bouko, artzen dau. || Onanik bata besti plantau anakak olan dittula, anakak sabal, da tiretu, aretxi ipintte tzan, e partikiri... Bakixu partikie, burdidxenari ipintte dxakon egurrek olan siri bias.

tiro, tirue. (TIRO) 1. Tiro. || Satorrak il? Aintxiñe atxurras. Oin tranpakiñ eitten dabe, da tiruas be eitten dabe. Tiruas bera jo es arren, geldi egoten da aturdidute. || Tiruas asartau ein deu. || Tiro bat atrapau deu. 2. Explosión. || Metxi ipintten dana, ori tiru botateko, edo arridxek atarateko ixaten da. || Ori metxi ori ipintten da ba igul barrenuk eitten daben suluen, edo olanik arridxek atarateko moduko sakonatxu daun lekuen, edo ixeten da ori tiru botaten dabe, kanterako tiruk botate ittuena. || Orreri metxias emote tze sue. Da botaten deu tirue ba arridxek atarateko. || Erreten bota (gastañie) tanboliñera, da erreten erre, da gero ba tiru botaten asten da erreten danien, da tiru botaten asten daniñ atara kanpora. Gero ba sapaltzen gendun ainkakin, asalak erresau soltetako, da gero ba surittu te jan. || Trumoburuk? Dana baltza ta onek e au edoidxen tapaute eukitten

deu orrek. Da gero onek alkar joten dabela esaten dabe. A sarati eitten dabenien, e, tiro modukuk alkar joten dabela. □ **tiro otza.** Ruido o estruendo que se produce cuando se despara un tiro. □ **tirue bota.** Disparar. || *Tirue bota deu.* || *Ametik tiruk entzute sin. Bai, or frenti lusero on san or e Gipuskuan. Ba, amendik entzute sin tiruek. Ta Illunsarretik, bueno! Klaru-klaru-klaru. Da lantzin tiro bat botate ben, paute ta paute! Tiruek nik pentot jeurti por jeurti, eiñ esteidxen bata bestiri kruseu-ero. Gero apurtu saniñ e, bueno! Ordun gero dana! Ordun bai tirue! Ba aman berton es san bota.* □ **tirue jeurti.** Disparar. || *Kañoeyek amen berton on siñ ara tirezeko. Akordan. Akorda bakixu. An e badau erreminttie? Antxe atzetxun egon sin kañoeyek jaurtutte besan Sollubera tiruk. Nabarrixen es, es san egon kañorik.*

tiroka. (TIROKA) Disparando, a tiros. || *Lelengotako frentie amen berton Oleskon ein tzen. Olesko, Oleskoko tontortxutik tiroka ein tzen lelengotan. An bes eskapau tzen. Da gero urrengue Biskargi. Sollube ta Biskargi. Or Biskargin gogor! Or bueno! Da gogor! Tiroka gogor or!*

tirri-tarra. (TIRRI-TARRA) Despacio, lentamente, arrastrando los pies (referido al andar). Ik. *pirri-parra.* || *Tirri-tarra dabil.* || *Tirri-tarra da ganora barik dabillena-edo.* □ **tirri tte tarra.** Despacio, lentamente, arrastrando los pies (referido al andar). || *Tirri tte tarra dabil.*

titerie. (TITARE, eriko) Dedal. || *Titerie? Jostunek atzamariñ ibiltten dabena.*

titi, titidxe. (TITI) Teta, pecho, mama. Askotan bularra ere esaten da. Animalien kasuan *errue* eta *errapie* erabiltzen dira. Ik. *uetza.* □ Umeen artean honela esaten da: || *Ju adi aman titidxe jaten.* □ **titi agiñe.** Diente de leche. □ **titidxe emon.** Dar pecho, amamantar. *Bularra emon* ere esaten da. || *Umieri titidxe emoten dau ama.* || *Ia, emoidxosu titidxe ixildu daitten.* □ **titidxe kendu.** Destetar, desmamar. □ **titi puntie.** Pezón.

titikumie, titikumie. (TITIKO UME) Niño de pecho, lactante. Ik. *bularreko umie.*

titili-potolo. (TITILI-POTOLO) Torpemente. || *Minpekue jeneral umik eukitten dabe, ume gasti dirinak. Da eukitten dabe miñen aspidxen, amen eukitten dabe frenu esate dxako. Eitte tze galaso berba eitteko. Da berba eitten dabe apurtxut titili-potolo. Ori ebei eitten da.* || *Titili-potolo ba, erdi olanik dabillenari esate tze "Titili-potolo doi".*

titixulo. (TITIZULO) (Niño) apegado a los pechos de su madre. || *Titixulo da ori, titidxen dau beti.*

tobera, toberie. (TOBERA) Tolva, caja en forma de tronco de pirámide o de cono invertido y abierta por abajo, dentro de la cual se echan granos u otros

cuerpos para que caigan del mecanismo destinado a molerlas. || *Ganeko arridzek eukitten deu sulue, granue jeusteko. Da onek toberi botaten deu ara erdiko sulora granue.*

tokada, tokadie. Campanas que tocan a muerto. || *Tokadie: illeri jote dxakosanak, tokadak esate tzeu guk e, il kanpaxak jote ittumien, tokadak.* || *Da gero iñor e gabiñ il bada, albakue jo orduko iñor il bada gabien, jote san albakue, bederatzi kanpa-edo pentzetot ixate sila, da jote ban, tokadak jote siriñ iñor ilde badau.*

tokamen, tokamena. (TOKAMEN, seniparte) Parte de la herencia. || *Tokamena da ba esate baterako neuri toketa dxatena, seuri toketa dxatzuna-edo, tokamena.* || *Erentzidxe baten ixan leike, tokamena, "Axe tokau ein dxako", ta ba.*

tokau, toketan, tokaten. (TOKAU, tokatu-bat.) Tocar, corresponder. || *Ño, arexek tokaten bayo geidxau kendu estek.* || *Erropa nabarrak: esate baterako, kolorik, tokete estiñak.* || *Erropa nabarrak: esate baterako, kolorik, tokete estiñak.*

toki, tokidxe. (TOKI) Sitio, lugar. *Lekue sarriago erabiltzen da. Lekuko baten arabera animalien kasuan tokidxe erabiltzen da, pertsonentzat lekue.* || *Tokidxe esate tzeu ganadu baten..., animaidxeri, txakurreri be tokidxe esate tzeu txakur tokidxe. Baya, ostantzien, txakur leku barik, txakur tokidxe. Baya jentie batu dan lekue, lekue esteu.* || *Koneju tokidxe.*

tokor, tokorra. (TOKOR) Hinchazón, chichón. *Tukurre* ere esaten da. Ik. *eundittue.* || *Tokor aundidzek urten tzu.* || *Tokorrek urten tzu.* || *Tokorra: golpe bat artute urtete daben eunditxuk:tokorrek.* || *Da besti es, besti igul eukittosu..., tokorrek urtenda batzuk. Nik enaben euki tokorrik es esebe, ba miñ emoteste.*

tolosana, tolosanie. Alubia tolosana que también se conoce como *pinttanie*, *pinttanue* o *pinttie*. || *Indar pinttanue esate tzeu olan es gorridxe, ta es suridxe estanari, da baya orreri indarriori esate dxako, emen jeneral ba pinttanue esate dxako, baya esate dxako tolosanie, jeneral.* || *Ori ixeten da gorridxe, baya olako tantatxu lakuk eukitte ittu, suridxe. Da esate tzeu tolosanie, da indar pintti be bai, bardiñ esan leidxo, baya jeneral guk tolosani esate tzeu.* || *Suri pinttatxuk eukitte ittu orrek tolosanik.*

tolostu. (TOLOSTU, tolestu-bat.) Doblar, plegar. || *Tolostu bi dotas erropak.* || *Tolostu: ba esate baterako, erropak garbittu te siketute das, da tolosti auxe da. Da ba tolostute ipiñi, listu.*

toma. Expresión que se dirige al perro para que se vaya. || *Toma ortik!*

tomate, tomatie. (TOMATE) Tomate. || *Emen tangarru esate tzeu, seinde tomate lata bat, nai piper lata bat utzittute jeurten dan bat, tangarri arixe esate tzeu.*

tontarro, tontarrue. (TONTO ARRO) Fanfarrón, -a. || *Arranpalu: olako farol bat, tontarro bat esati lantxik. "Ori da arranpalue!" Guk usetun berbi esta. Entzu ot baya geuk olan useun berbi esta.'*

tonteridxe. Tontería. Ik. *lelokeridxe, iñuseridxe.*

tonto, tontue. (TONTO) Tonto, -a, bobo, -a, lelo, -a. Ik. *tentel.* || *Tonto ori!* || *Tontu sara su!* || *Tonton plantak eitte ittus.* || *Mosolue erdi tonturi esate dxako, "Ori da mosolue!"*.

tontoaldi, tontoaldidxe. (TONTOALDI) ontera, acceso de tontería. || *Tontoaldidxe deko.*

tontolapikue. (TONTOLAPIKO) Tonto, -a, bobo, -a, atontado, -a, alelado, -a. || *Ori da tontolapikue!*

tontomendi. (TONTOMENDI) Atontado, -a, lelo, -a, lerdo, -a, tonto, -a. || *Siderra san a, siderresko ogorleku sin danak. Ogerleku siderra. Arek balidxu euken. Arek e naitte desautxeute be, arek balidxu. Siderrak balidxo ban. Arek, askok arek, tontomendi geuk entregau gendusen, pilluk euki etzin-de. Estabela balidxoko, desautxeu eitte sittula danak eta, besti-tte. Ya tonto egon, da entregau. Se entregau eitteko ordenie emo ben ba. Da danak entregetan.*

tontor, tontorra. (TONTOR) **1.** Prominencia, elevación del terreno. Ik. *altuunie, altu-bajuek.* || *Tontorrek leutu.* || *Tontorra deko.* || *Bidik tontorrek dekos.* || *Lur tontorra: ori da ba altu-bajuek dausen lekuen, ba leku batzutan badau erripie, edo lurre... se esangot neuk?, erripie daun les, ba lurre dau altuau, da ba tontorra be eitten dabe.* **2.** Cumbre. *Tunturre ere esaten da.* Ik. *mendi puntie.* || *Mendi tontorretik doye.* || *Tontor-tontorrien dau.* || *Bertan tontorrien dau aistidxe, bertan aetxak. An tontor-tontor-tontorrien daus.* || *A kiputze? Bai. A Gipuskuakue ixetes, ba amen egon san eskondute. Morrosko mutil bet. Kiputze, pastori sana. Bertan bixi san, an Arrolan, an tontorrien, basuen, antxe bixi san.* || *Mendi tontorra? Ba mendidxen e, or-emen dasen arek e tontortxue, mendi tontorrek.* □ *Ondorengo adibidean azaltzen den bezala, mendi tontorra zorrotza da eta mendi ganie lauagoa da.* || *Mendi tontorra diferenti da. Mendi tunturra da olako sorros bat ixeti mendidxen. Olan punte modure eukittie. Mendi gana da ba... Gana esate baterako, asi an, Illunsarren da ona bagatos, da onek mendidxek, mendi ganin. Da mendi tontorra da bat, mendi bat ixeti olan sorrotzera, tontorra eukittie.* || *Lelengotako frentie amen bertan Oleskon ein tzen. Olesko, Oleskoko tontortxutik tiroka ein tzen lelengotan. An bes eskapau tzen. Da gero urrengue Biskargi.* **3.** Cresta, bulto, parte superior. || *Ebeitten da, ebei da otzarie bete, da sobretan dan bedarragas inkau are pe, da olan tontorra inkau, da gero sartze dxako sididxe esate dxakon egur bat, punti sorrostute dekona.* **4.** Hinchazón, chichón. Ik. *tokorra.* || *Biriki: an urtete tze or, da tontor eitte dxakue, da gero koj*

oten die beidxe pe. □ **tontorrik tontor.** De cumbre en cumbre.

tontorrune, tontorrunie. (TONTORRUNE) Prominencia, elevación del terreno. Ik. *tunturrunie.* || *Landa baten esaten da alturrunak edo sakonunak, tontorrunak.* || *Soluk tontorrunak dxekosak.*

tontotasun, tontotasune. (TONTOTASUN) Tontera.

tontotu. (TONTOTU) Atontar(se), atolondrar(se). Ik. *lelotu.* || *Tontotute deko burue.* || *Tontotu dxako.* || *Tonto beren buru ein.*

topari, toparidxe. (TOPARI) Hallador, -a. Ik. *topetaridxe.* □ *Zer edo zer galdu eta aurkitzeko esperantzarik ez dagoenean, honela esaten da: "Toparidxentzako!" esaten da, geuse bat jeurti, tte atrapatzen dabenentzako les. Diru-ero galtzen bosu be, topeten deuna, ba "Toparidxentzako!"*

topau, topa, topeu, topo, topaten, topeten. topetan. (TOPAU, topatu-bat.) **1.** Encontrar, hallar. || *Errastue topau.* || *On bille dabil, obie topetan.* || *Erroidxen abidxek topetan ibilli.* || *Topetan amak erute nendun ni be. "Etorri! Olluri abidxi topau bi tzeu te".* || *Perretxikuten jun de erlojue topa naben nik mendidxen.* || *Nun tupa leis setorridxek?* || *Topetan ebixen or seoser.* || *Idi narru bete urre gorri dao or mendidxen baya iñok esteu topeten.* || *Arek topeu nendun mendidxen galdute.* || *Iñun leku onik topaten estabena.* || *Fulano topau dot bidin.* || *Txori abidxak topo otas.* || *Txirritxirridxen sulue topa dot* || *Gerniken soldaduek sartute topa naittun.* || *A atxegi aundidxe deko, dana tapeten deu. Da eleko topeuko olan len sekule egon bakuk.* || *Gu aintxiñe ibilte giñiñ olgetan, da eskutetan da topetan ibilte giñiñien, ba mamarru esate gendun.* || *Da juten basara, antxe topauko su.* **2.** Chocar. Ik. *jo.* || *Alkar topau dabe.* **3.** Encontrarse, sentirse. || *Esta ondo topetan, nobedadie deko.* □ **leun topau.** Resultar fácil o favorable. || *Gero askok esaten deu beste geusa bat: "Ak danak leun topete ittu"-te. Ori da ba erres, leunin jute da les, beste geusa asko fasille... "Fasille eitten deu ak, ero leun topete deu".*

tope. (TOPE, talka) Testarada, testada, topetaza. □ **tope ein.** Tropezar, chocar.

1 topeka. (TOPEKA) A testaradas, a cornadas, acorneando. || *Esate baterako, len..., oiñ estau euntzik, eta esteku ardiri pes, da euntzi pes-da, euntzek topeka dabixenin, esaten da ori: "Topeka dabis".* □ **topeka ein.** Topetar, dar testaradas. || *Aridxek topeka eitteko orduen usaba bidxek bistatik alde eitten dabe.*

2 topeka, topekie. (TOPEKA) Topetazo, encontronazo. Ik. *topekadie.* || *Topekie: ori da seinde nobera pe joten badeu burus: "Dios, topeka ederra emon tzat".* □ **ari topekie.** Pelea de carneros.

topekada, topekadie. (TOPEKADA) Topetazo, encontronazo. || *Topekada andidxe.* || *Dios, emon tzat topekada bat!* || *Topekadie ederra atrapau dxuat!* || *Topekie da topekadie alkarren antzekuk-edo, esango neke bat tirilla baya..., topekadie da seinde euntz batek e emoten daben e adarkadie, nai ari batek bai bardiñ emoten daben adarkadie.*

topekari, topekaridxe. (TOPEKARI) Embestidor, -a, luchador, -a. || *Topekaridxe da topeka noberari nai edoseri geusa bat, esate baterako, beidxe nai ori, "Kaguen topeka noberari eitte tzo ba, tokaridx-ok ori!". Da txaltxue an erropan esnie edate deutzone, tauk! Eta tauk! ein dxok: "Topekari garbidxe!".*

topetari, topetaridxe. Hallador, -a. Ik. *toparidxe.* ☐ Zer edo zer galdu eta aurkitzeko esperantzarik ez dagoenean, honela esaten da: || *Au topetaridxentzat!*

topiñe, topiñie. (TOPINA, *tupina-bat.*) Marmita, olla de barro. || *Topiñie da, olan, katxarru aundi bet, lurrekue.* || *Topiñie morokille eitteko usete san.* || *Morokil eitteko topiñie.* || *Topiñik lapikuri "Ipurbaltz!".* || *Topiñie, iru ankakue, morokil eitteko usete san.* || *Topiñi ibiltte san, edo ibiltte gendun, da beste lekuten be alan ibiliko san, morokille eitteko, morokille-ta. Kasuli, ba kasulan ainbeste geusa ipintten da.* || *Kasuli lurresku da. Topiñi es. Topiñie... egote siriñ iru ainkakuk e, da topiñik golpi artu eskerun, lurresku esan ixeten, baya olanik e ainki bota edo golpi artu eskerun sulu eitte dxakon. Lurresku esta ixeten, baya estaitt se materidxal ixaten da. Da ostantziñ ainka bakuk egon sirin topiñak, galdara baltza lakuk.* || *Es, topiñi suen morokilli eitekue, ankadune, burdiñeskue.*

topinkada, topinkadie. (TOPINKADA, *tupinakada-bat.*) Marmita o puchero lleno de.

tornero, tornerue. Tornero. || *Torneru: biar eitten dabena, fabriketan moldi emoten dabena-edo.*

tornillue. Tornillo. || *Atara tornillue!* || *Tornillue ipiñi.*

tornu, tornue. (TORNU) **1.** Rosca. **2.** Torno, apretador. || *Arotzak-eta eukitten dabe maidxen katxarrue. Geusek estutu-te eitteko-edo antxe eukitten dabe, eskuas ereitte tze areri. A da tornue.* || *Botik bakixu selako bokillatxu eukitte deun? A tornuas antxe puntan, da axe bokille fiñe puntie.*

torpe, torpie. Torpe. || *Bidxek esaten dire, murtzilli be esaten da, ta jainko be esate san, olan torpetxu danari ba jainko.*

torre, torrie. (TORRE, *dorre-bat.*) Torre. || *Erriko torrien kanpaye jote benien.*

torretxori, torretxoridxe, tortxoridxe. (TORRETXORI, *dorretxori-bat.*) Gorrión de campanario. || *Ni neuk dakitela estire bat, artetxoridxe artetxoridxe da. Da torretxoridxe jeneral da tellatutan ibiltten dana, elixako tellatun be asko ibiltten dire.*

Kuna pe antxe, torretxoridxen torritan atarate ittue. || *Arte txoridxe da torretxoridxe estire bat. Torretxoridxe jeneral ba elixako torriñ ibiltten dana ixeten da torretxoridxe. Elixako torri jeneral, e olan e etzitan-da esaten da se etzik dasen lekun be. Artitan da arboletan ibiltten dana artetxoridxe. Da torretxoridxe esta artetxoridxe, beste bat ta. Torrin-edo, leku altuaun-edo ibiltten dana. Esate baterako, artetxoridxe pa emen abidxa pa arti daun lekun edo arbolu daun lekun ebaitte ittue. Baya torretxoridxe estiitu eitten olanik.* || *Torretxoridxek one bestik artu-eta jaten daben diabruiek. Amen ollotokidxetan-da orretan txi-txi-txi-txi de orma sulutan-da abidxak eitte ittunak di torretxoridxek. Len torretxoridxe egon san emen eskandalu bet! Se len esan tzutena, olluek danak eukitte besan, da ollotokidxetan orrek, arek jaten.*

tortille, tortilli. (TORTILLA, *arrautzopil*) Tortilla. || *Da gero ba arrautza suringuas nastau, da eittosu tortillie beras.* || *Baya ori basatoste selebrete gendun guk aintxiñe. Ui! Jente! Orrek txabolatxu mendixen ote siñak e. Ein sue, ta erun txorixuk eta patatakin tortillie, gero txokolatie.*

tortola, tortolie. (TORTOLA) Tórtola común. || *Tortolie esate dxakona txori bat tau.* ☐ **uso tortolie.** Tórtola común. || *Usuk daus klasik. Usuk daus uso tortola, da uso mandue. Guk len arexe klase bidxek esautze gendusen beti. Da oiñ esaten dabe uso tortolak eta usuek, "Usu pasidxak" edo ori. Orrek askok esate tze uso txikidxe bestiri, tortolari. Orre tortolak bakixu nun dausen urte gustidxen? An anbulatoridxun, an e kra-kra-kra eitten dabe arek. Da an arbolatan..., da arexek uso tortolak. Da len emen etorte siren abustuen, nabo sasoin, nabu atarate eben orrek. Da oiñ esta etorri be eitten eser. Oin pasi, pasi eukitten dabe orrek. Amen e Gerniken da onetan pilluk iltte ittue.*

tostada, tostadie. (TOSTADA) Tostada, leche frita. || *Tostadak eitteko egunek ixete siñ orrek.* ☐ **tostada egune.** Día de tostadas en Carnaval. Ik. *basatoste.*

tostau. Tostar. || *Sankarroye? Okelie? Amen (bernan) dauna, boli. Sankarroye. Sankarroye, okela tostaute jaten dana.*

total. Totalmente, completamente, del todo. || *Jo, au sebotute dxak, total sebotue!* || *Atie total edeitte dau.* || *Total txarto estau, baya gustiz biarrin.* || *Kantzaute total jota badau, "Total etenda dxak eta! Se eingo dxo pa!".* || *Bai, biarras total etenda dxak morroidxe!* || *Len argala! Oin be argala dau, baya len olakotxi egon san or ospitaliñ egonda etor sanin. Total jota! Bai, mejorau ein da, bai.* ☐ **totalekue.** (El) total, el número total. || *Kontue totaleku auxe da.* || *Totaleku sema da ba?*

1 toto. (TOTO) (Haur.) Perro.

2 toto, totue. (TOTO) Insensible, impasible, bobalicón, -ona. || *Totue ba, an geldi-geldi ero olan*

deuna, "Toto garbidxe! Ikerari pe etxok eitten!". "Toto garbidxok a". || Etorri adi ona, totuori! || Totue: apurtxu ganora baku be bada. || Toto garbidxe da ori! || Totue txikidxeri be esate dxako, da nausidxeri igul esate dxako.

totolo, totolue. (TOTOLO) 1. Gordo, -a. Ik. lodidxe. || Totolue: loditxu dauna. || Totolue: lodidxe dana ta franku dana. 2. Negligente, torpe, insustancial. Ik. ganorabakue. || Totolue olan umiri-edo bai esate dxake totolue, "Totolu da". Ba ganora asko barik ibiltten da batzutan.

toton. (TOTON) ☐ **toton ein.** Quedarse exhausto, a. Sin. uketu, kantzau, itxitte, jun esiñik edo geldi garatu, ok ein. Dena den, toton ein sarriago erabiltzen da uketu baino. Esanahiaren aldetik, nekea erabatekoa dela esan nahi da, uketu esaten denean adierazten dena baino gehiago. || Arek toton ein deu. || Toton eitti da eiñ esiñik garatutie. Toton da, badoyes batzuk, esate baterako, proba baten, da "Toton ein deu", "Ser ein deu ba?", ba "Buru altzeu te bertan bera garatu". Toton esate dxako areri, toton eittie. Bertan bera..., eiñ esiñik garatutie, toton. ☐ Esaterako aldatzean gora joan ezinik geratuz gero, Orrek toton ein deu esaten da, eta ez Uketu ein deu.

traba, trabie. (TRABA) Traba, impedimento, estorbo. Ik. enbasue. || Traban ipiñi deu. || Trabak ipintten dabil. ☐ **trabi ipiñi.** Molestar, estorbar. || Trabi ipintten deu orrek.

trabau. (TRABAU, trabatu-bat.) Obstruir(se), enredar(se), atascar(se). || Miñe trabaute deko.

1. **trabes, trabesa.** (TRABES) Apuesta. Apostue ere esaten da, baina Nabarnizen gehien korritzen duten berbak trabesa eta posturie dira. || Emen "Apostu ein dot" bayo geidxau esaten da, ba, "Posturie ein dot", edo "Trabesa ein dot". || Korredorie: trabesak eitte ittuna.

2. **trabes.** (TRABES) Torcido, a traves. || Trabes ipiñi. || Trabes dau. || Kobak dire trabes dausenak eta lexak dire bera dausenak. || Guk begidxe trabes dekosenari, iskiribixe. || Txirrintxola trabeskue da. || Gaiñerie: burdidxeri ganiengur bat ipintze dxako trabes. || Alderdi bakotxetik eukiko ittu bat, bi, iru, lau edo bost trabeseko eukiko ittu agik, age nausidxe. Da gero beste age bat eukitten deu, olan trabes, erdi-erdidxen, areri agiri eusteko trabes eukitten deu beste bat. || Sapatari egurre: bera, adarrak e baju, trabes-da aste ittuna ta gorantz estabena eitten. ☐ **trabes begittu.** De reajo. || Trabes begittu tzet. ☐ **trabesera.** A través, transversalmente. || Orrek (okil nausidxe) lelangotan eitten dabe sulu olanik trabesera, ta gero goitti bera. ☐ **trabesetara.** A través, transversalmente. || Lusetara, da trabesetara. ☐ **begi trabesa.** Ojo vizco. || Begi trabesa: begidxe asko

sabaltzen estabena, begi erdi txikidxe dekona-edo. || Begi trabesa, begidxe oker dekosenari bei okerra ero begi trabesa.

trabillie, traballie. (TRABILA) Hebilla. || Trabillie: oin lengo modun estittue eitten, se emen atzin trabilli eitte dxaken. Sintturi ibili barik estutzeko. || Trabillie? Prakan trabillie esate tze ba orrek. Enbran asuntu da ori.

traga, tragie. (TRAGA) Freno. Galgie baino gehiago esaten da. || Tragie igul kotxiñari be esate dxako, "Esteu emon frenu" ero "Esteu emon tragarik". Ta iguel joten bouko erregurie, "Kaguen, tragias dxa pa, tragias!". Ero frenuas esan biarrin, tragias. || Tragias dau. ☐ **tragi ein.** Frenar. Frenau ere esaten da. ☐ **tragi emon.** Frenar. Frenau ere esaten da.

tragau, tragetan. (TRAGAU, tragatu-bat.) Tragar. Ik. iruntzi. || Jan barik tragau. || Jatekue tragau deu mastikeu barik. || Tragaixu! ☐ **gosik tragau.** Morir(se) de hambre. || Gosik tragaute etorri da. || Gosik tragetan dau.

traganarru, traganarrue. (TRAGANARRU) Comilón, -a, tragón, -a, voraz. Ik. jatune. || Traganarru garbi-dxok. || Traganarru ori! || Traganarru: olan jatun eundidxe danari-tte: "Traganarru lakoxi da", "Jaten, ba salobri da", edo ba, "Arin jateku da"-edo ba.

trago, trague. (TRAGO) Trago. Ik. surrustadie. || Trago bat ein deu. || Ogi bategas tragu bat eik! || Ogi bategas tragu bat eik! || Da gero gari joillak, ba, batzutan e atzentxu eitte ben da soser artu, trago bat-edo, da leña gari joten! ☐ **tragu ein.** Beber (bebidas alcohólicas). Ik. drinki ein, tringu ein. || Drinki eitten deu. || Tragu eitti be "Tringu eitte dxok".

tragoye. 1. Tragón, -a. || Tragoye arin jaten dabenari tte sati eundidxe sartzen dabenari esate tze. || I as tragoye! 2. Avaricioso, -a. || "Ori da tragoye!": esaten da, inbididxa asko dekona, dana atrapatzen dabena ta.

tragokada, tragokadie. (TRAGOKADA) Trago. || Tragokada bat edan.

trakada, trakadie. (TRAKADA) Crujido, chasquido (onomatopeya de una cosa que se rompe, que cruje...). || Trakadie ba esate baterako, egurrek. Egurrek e txikitzen diriñien trakadie eitten dabe, traka! || Asurre pe bai. Bai, nik auxe ausi ñaben da ondiñokogarren estaitt osatute daun e, estaitx, trakadarik ein barik e euki ñaben e apurtute.

traka-traka. (TRAKA-TRAKA) Traca-traca, sonido del tren.

traktora. (TRAKTORE) Tractor. || Geu be beidxe kiñ ibiltte giñen. Oin traktor as ibiltten da, oin beiri pe esta bustertzen-da.

trakulu, trakulue. (TRAKULO) Carro pequeño para acarrear maderas. || *Len trakulu esate gentzon burdi bateri. Da burdidxe, ser esangot neuk?, trakulue, burdi bat laburre, da ixeten da surek ibilttekie, basotik surek atarateku-ta. Da punti ipiñi, atzis e trakulu ganera, da puntie dandarres ekarten deu, da trakulu orixe da. Nik estaitt iñok badeko be trakulurik. || Katiakin lotute ibili eitte san sure trakulu ganin, da atzi ba dandarres ekarte ban surek. || Burpildune ixete san trakulu. Burpil bi eukitte sittun, baya ganen laburre eukitte ban, se axe sujetetako besteko gani eukitte ban. || Trakulue esate dxako; arbolak eruteko be, amen gorau ipiñi, katiakin lotu onan, da dingiliske atzien. || Trakuluek ixete siriñ atzetik tatarres erutekuk, alako burdi estutxuk, apropos, egurre tatarres antxe ganiñ ipiñitte, arrastan. || Erruberakin, errubera ganin, a onakoxetxu ixate san, egur lodidxe, da araxe ganera altzau, te amentxe lotun arixerri, da tatarres erute san. || Egote san burdi bet, diferentie, labur-laburtxue. Errillan pariñ eukitte ban astu esate gentzon egurrezko ol bat, gogorra, da araxe ganera altzate ba ekarte san. Trakulue esate gentzon guk areri burdidxeri. □*

Hona hemen narra eta trakulue berben arteko desberdintasuna: || *Oiñ esta ibiltten narrik, da trakuluri pes, kontixu, asko. Narra da dandarres ibiltten dabena, beidxe, da ekarten dana aspiarrixde edo bedar sikue, da len beidxek ibiltte ben narra. Da trakulu da burdidxe, da erreilla bi alderdi banatan ibiltte ittu, da arbolie ba eunditxuau nai txikitxuau ganiñ ipiñi, da beidxek karreteridxe eiten dabe.*

tralla, trallie. (TRAILA) Trailla, cuerda o correa con que se lleva al ganado o caballería atado. || *Tralli soki da, edo katie. || Trallie esate dxako oratute daunari. Ba, axe, noberak eskun eruten dabena, ganaduas edo astuas edo ba eruten dabena, trallan. □ trallan erun.* Traer tras de sí al animal por las riendas. || *Trallan erun: beidxe sokatik eruten danin-edo, astun-edo. || Trallan erun: ganadu bat e, nai astu, nai saldidxe, nai mandue, eruten dana artute, katiatik edo sokatik eruten dana: trallan. || Trallie? Ba asto bat eruten danien katiatik-edo ba "Trallan doye". Nai bei bat eruten danien e ba a be trallan doye. Bei bat eruten danien e sokatik-edo ba oratute, noberari segidxen eruten daniñ a be trallan doye. || Bokaue da burdiñi eruten deuna. Au barrun. Da andik tirak eukitte ittus an bueltara. Da gure bosu erun trallan —tralli bakixu ser dan—, ba andixi erute su bardin.*

tramankulu, tramankulue. (TRAMANKULU) Trasto, armatoste. || *Tramankuluk geuse sarrak dire. || Tramankulu neiku deu or! || Tramankulue ixen lei geusa bat, da tramankulue ixen lei beste geusa bat. Ixen lei tramankulu, orixe, esan deun... egurrek ibiltteko burdi txikidxe, da ixen lei eundidxe be, tramankulu. Geuse sarra pe, tramankulu esate dxako ori, baya beres*

tramankulu ixeten da orixe, len esan dotena, egur surek ekartekue.

tranbau, tranbotu. Tronzar la madera. Sin. *satittu.* Kasuren batean edo bestean *tranbotu* batu badut ere, *tranbau* da gehienetan entzun dudana. || *Arbolak tranbau. || Tranbau da ebatie, ser esangot neuk?, egurrek meidara ebeitte tranbau esate dxako, meidara, ebei bi diñ egurreri. || Da egurreri be esate dxako, ba "Egurre tranbau ein bi dau", ipintteko neurridxen. || Tranbau: suterako modun ipiñi. || Egur bat e amendik ein biar bosu ebei olan, tranbotu esaten da. || Tranboik ori!*

tranbo, tranbue. Trozo de tronco. || *"Arbolak tranbau" da ebei olan tranbutan. Tranbue da, esate baterako, olako trongo bat, tranbetie. || Iguel txaparako tranbutan ebai bixu, se ostantzin luse dau te.*

tranga, trangie. (TRANGA) **1.** Tranca (de una puerta). || *Trangak e geurin be badas, kortako albati pe badeko ta trangak e albatik sarratzeko dire. Alderdi batetik ataraten da, da beste alderdidxen kolgeten da. 2.* Palo grueso y fuerte. || *Trangak dire orrek, sartu eutzenak burdidxeri, nai narrari be bai, arek trabesera doixenak, trangak. Nai ostantziñ igul, ser olako egur bat gure dosu: "Tranga bat ekarri!" 3.* Maderas transversales de la base del carro. || *Onak albo bixtakuk di arasak. Onak trabeskuek trangak, eta au partikie, erdikue, au atzetik eurrera arteku da. || Burdidxek eta narrak-eta trangak esate dxakos arek trabes erute itunari. || Arasa dire egal bidxek. Ta partiki erdidxen. Erute ittus burdidxek amendik, olanik e, da ango erdidxen partikie asi an da beyen orrate. A partiki da. Ta gero trabes dabixenak trangak. 4.* Maderas transversales que sujetan los trabesaños en que están encajadas las púas de la rastra. || *Suidxe dxako ixena, areri, egurreskuri. Arek lau eukitte ittu, onanik, eurrera estu. Oten di olan. Da amen beste bi olan. Da danatan ortzak. Ta tranga bi, arek lasetako. 5.* Cada uno de los largueros de la cancilla o erromadie. Sin. *langie. || Len erremadak, danak egurreskuk ixete sin. Es, alanbraskorik es euen de. Eitte dxakon albidxetan suluk, siluk, sulo aundidxek, olan metro erdire, metro erdire, da gero andik trangi sartu bestera. Da axe erromadie atara, da sartun ein, de trangak. 6.* Cítola, tablita de madera, pendiente sobre la piedra del molino harinero, para que la tolva vaya despidiendo la cibera, y para conocer que se para el molino, cuando deja de golpear. || *Trangi, sati (zaratea) eitteko. Senbat buelta eitte ban, takada jote ban.*

trangue, tranbue, tranbue. (TRANGO) Bache. || *Trangue or dau. || Tranguek or da emen topeten dire. || Trangue? Ba ser dala esangot. Arri bat, arri aundi bat bidin topetan dana, beidxek topetan dabena burdidxas edo narras doixenien. Da trangue esate*

dxako arixerri. || Tranbue esate dxako..., selan esango tzut?, olan goitti bera-edo datorrenari, bidiri, erripi dekonari-edo, saltotxu dekonari-edo tranbue. || Tranbue: sakonuna bat. Sakonuni daun lekun-edo, "Tranbu dau". || Trangus beterik dau kamiñue. || Emen trangu esate dxako ba arridxe, da arri trangue, edo bidiñ altzauunie edo bajounie, arixerri esate dxako trangue. || Tranbu an bokosu, bueltaka juteko peligrun, "Sartu idxok tako bat or bekaldin!".

trank. (TRANK) Ruido que produce el molino. || *Sarati eitteko. Makiñik buelta bakotxiñ or dekon egurre jote ban, trank-trank-trank.*

trankaso, trankasue. Trancazo, constipado. || *Au da trankasu dekotena!*

trankil, trankille. (TRANKIL) Tranquilo. Ik. *artoberue, nasaidxe. || Trankil plantau. || Trankille da ori. || Trankil egon! || "Tenplau da": trankil dauna, patxadas dauna. || Egokeri trankille deko. || Baya amen bestik ordun bierra gogor eitte ben, baserridxen. Ordun atxurren da bueno bierra..., beti ixeriditen. Da arek buuuuu!, bueno, a trankil.*

trankildu. (TRANKILDU) Tranquilizarse. Ik. *mantzotu. || Trankildu saitte!*

tranpa, tranpie. (TRANPA) **1.** Trampa (para cazar). || *Saguk atrapatetako tranpie. || Atrapau gendun tranpi ipintte, berak saltote ban lekutik, saltote ban madaridxen adarretik edo olanik, saltoteban, da atrapau ein gendun. || Ibilten dire tranpak emen, aseridxek atrapatetako. Se geurin be len euki gendun txakurre, tranpik atrapau eskun de guk soltau genduneko junde egon san. || Orrek ikusteko atrapau ein bixus tranpan. Orrek tranpan atrapeten siren. **2.** Trampa, engaño, treta. Ik. *irusurre. || Tranpie ein deu!* **3.** Trampilla, portezuela. *Sabaiko sulue gehiago esaten da. || Tranpie da lau kantoiko sulo bat. ☐ tranpa ola.* Trampilla, trampa en el suelo. || *Nun da tranpa ola?**

tranposo, tranposue. Tramposo.

trapau, trapaue. (TRAPAU, trapadu-bat.) Rechoncho, -a, regordete, obeso, -a. Ik. *mardue, sarkotxie. || Trapaue? Bai, trapaue: mardue. "Ño, ori argala dxak, baya ori bestiori, ño, trapau dxak!". || Bai, ari txikitxuri, "Ño trapau-trapau dxak ori!". || Trapa-trapa dau. || Ño, mutille trapaue!*

trapero, traperue. (TRAPERO) Traperero. || *Traperue esate dxakon sakuk-eta saltzen ibilte sana, arek "Hay sacos, hay trapos!"-da pregunta ibilte suan ba, da gero etzitan basengos edo arek... Saltzen ibilte suasen, dana ibilte dxuan. Edo kinkillerue. Kinkilleru bakixu ser dan? "Txirrit-txirrit!" eta kutxillu sorrostu te askorak eta dana eitte ban ak.*

trapu, trapue. (TRAPU) Trapo (pañu). Ik. *mantarra. || Esku trapue. || Moltzue da trapue, geusek*

garbittuteko. || Samaue? Oiñ estakitt iñok aittuko badeu. Oingo gastik es. Samaue trapusku len ibilte gendun, da oiñ estu ibilten. Onakoxi, maidxen ganiñ ipintteko.

trasa, trasie. (TRAZA) Aspecto, apariencia, pinta, traza. || *Segun trasie. || Trasa ona. || Asueli da, ser esangot neuk?, atxurren trasa-trasaku*

traskada, traskadie. Hacerse un rasgón. || *Ik ein tzeek traskadie prakari!*

traskil, traskille, trauskille, treuskille, troskille, traskillie, traskillue. (TRAUSKIL) **1.** Descuidado, -a, negligente, basto, -a. Ik. *ganora bakue, trauskitxe. || Ondo eitten estabenari (esaten dxako): traskille dok ori! || Traskille saskille da. Traskille, ba, lorriñe esateko. Personie bardin. Lorriñe bada, ba "Traskille da". || Traskille da geusek oker da lorriñe einde alde eitten dabena. || Bai, kontixu, bat tire, trauskille, ta traskille. Ardure bakuri esate dxako alakue. || Troskille da trope bat ixeti les, troskille. || Troskille, edoselan e ganora bari dabillena, traskil garbidxe. **2.** Descuidado, -a en el vestir. *Saskille ere esaten da, beharbada gehixeago. Ik. traspala, baldresa, trespitxe. Emiliano Arriagak trausqui hitza batu zuen Bilbon eta definizio hau eman zuen: "Abandonado, dejado, desaliñado". || Traskille bai esate dxako, olanik erropa asko loitzen dabene umiri-te traskille esate dxake. || Traskillek esan gure deu sekule ondo es soixela jantzitte. "Beti traskil!". || Traskille da, traskille, edozelanik ibilten dana jantzitte ta igul. Pausus tropi eta, "Traskil garbidx-ok ori!". **3.** Revoltoso, -a. || *Trauskille umiri bayo geidxau, olan ume... eskolara dabixenari-edo bardiñ esate dxake: "Trauskillau da!", egon esiñik eta drogan ibilten diriñai-te.***

traskildu, trauskildu, traskiltzen. (TRAUSKILDU) Volverse descuidado, -a, negligente, basto, -a. Ik. *tropetu. || Trauskildu? Bai, trauskille danari. || Traskildu? Bai, traskildu be esaten da. Traskildu ba, traskildu trope ixeti les, tropetu. ☐ Lagun bat loditzen eta gaztaroko itxura ederra galtzen hasten denean ere, honela esaten da: || Bai, loditzen be batzuk esaten dabe, baya "Traskiltzen asi dok".*

trasbala. Desaliñado, -a. Ik. *dandarresa, saskille. || Saskillu da edoselan jantzitte ta trastokeridxe. Trاسبala esati les.*

trastada, trastadie. Traición, fechoría. || *Trastadi ein du.*

traste, trastie. (TRASTE) **1.** Trasto, cualquiera de los muebles o utensilios de una casa. || *Etze aldatzie? Ser dala esangot? Artu emengo etzin dasen trastiek da beste etze batera jutie, etze aldatzie. || Trasti kanbidxetan. **2.** Mueble inútil arrinconado. || *Ba ostantziñ e "Traste sikiñek or egongo dire goidxen"-da. Da beste geusa edoser. Trastiek e dire moskolak ero geusak or dausenak, nai e garbidxe pe bai, trastik. ||**

Traste moskolak jeurtixek orra, etxu balidxo ta! Moskola tosak eta! || *Trastetan badau!* **3.** Ropa (generalmente referida a la que se ha de lavar o se ha lavado). || *Geidxau trastik esate dxake erropiri, onakoxeri: trastik garbittu.* || *Trastie erropi, nai soñekerropi ixen lei, trastiek ixen leix e tualla pe, ixen leix ixera pe.* || *Da trasti esate dxako jabonaduri ero erropa garbitzen danari be. Estosu entzun ori? Esaten da... trastik esaten dire erropa garbitzeko eruten diñak.* “Traste sikiñek ekarri!”, erropakaittik, erropa sikiñekaittik. *Igul ba oiñ emen guk e ba... one gastik estakidxe jakin be trastik ser din. Olanik, ba erropa sikiñeri esate tzeu.* || *Len neu be jute nitzen ara bekerrekera, trasti joten-da, ixera joten-da. Olan erropa aundidxe dauniñ e. Baya oiñ estaitt iñor juten bada be estakitt.* || *A eskeitte badaus: “Batu ixus trastik!”* **4.** Agil, rápido, -a, vivo, -a. || *Trastie? “Au dok trastie!” igul esaten da. Se e... igul pataridxe biskorra ero ajille-ero bada be, “Jo, auri dok trastie!”*. **5.** Persona informal. || *Traste txarrok!* ☐ **trasti jotie.** Hacer la colada. || *Len neu be jute nitzen ara bekerrekera, trasti joten-da, ixera joten-da. Olan erropa aundidxe dauniñ e. Baya oiñ estaitt iñor juten bada be estakitt.* || *Orraxe, ortxe Ururutik e beyen dau errekie. Da araxe. An estakitt e oiñ e badau. Len arridxe ote san an joteko, trasti joteko, ta eitte san e lekutxue, ure geldittu deidxen, ure jun esteidxen. Da antxe jote siriñ erropak.*

trasteridxe, trasteridxe. (TRASTERIA) Trastada, travesura. || *Ein dxok edoser trasteridxe: “Etxure bako geusi ein dxok ak!”*. || *Trasteridxe da..., esate dxakona, edo ganaduri, edo mutiku bateri gaistu danin da gaistokeridxak eitte itunien, okerridxak eitte ittuna.* || *Asto arraidxue esate dxako ba trastoridxak eta olakoxi eitten, “Asto arraidxorrek ein dxok ori be!”*.

trasteteridxe. (TRASTETERIA) Cantidad de muebles inútiles arrinconados. || *Trasteteridxe? Geuse asko, ta naste ta lorriñin dausenak.* || *Amen berton tartin be ainbeste geuse dau te “Emen dxak trasteteidxe!”*. *Dana enbasu eta orregaittik “Dana trasti dxak eta esin lei eiñ eser!”*. || *“Emen dxak trasteteidxe!”: amen geuse asko, ta emen dana jeurtitte ta guk e beti e... oin be bai, ba igul eukitte sus jeurtitte orrek erreminttak-eta, klasik igul bota berton danak nastaute.*

trasto, trastue. (TRASTO) Trasto, travieso. || *Trastue! (geistokeridxak eitte itunari esate dxako).* || *Ori be esaten da, olako trastu, or dabillena: “Fandango garbidxe!”*.

trastokeridxe. (TRASTOKERIA) Travesura. Ik. *geistokeridxe.* || *Trastokeridxe ba okerridxa bat ta.*

tratante, tratantie. (TRATANTE, tratulari) Tratante de ganado. || *Nire anaidxe tratante ibiltten da, da txala erosi ban.* || *Tratantiek galde, erosteko etorten*

direnien: Sekorrik-edo badauke?, Sekorrik-edo badak saltzeko? || *Len gure aitte tratanti ixen san, da tantora eroste basen.* || *Len gure aitte tratanti ixen san, da tantora eroste basen.* || *Tratantiek: ganadu erosten ibiltte siriñak.* || *Tratantiek brusie ibiltte ben, brus baltza.*

trator, tratora. (TRATOR, traktore-bat.) Tractor. || *Oiñ e bustertu be esta eitten beirik eta oiñ e tratoras ibiltten da.* || *Oin be tratorien bedar berdie badau kargaute, berdie, ta ustute esposu egun erdidxen, a gero berotute dau, esta ona.* || *Areketarako, solu labretako. Oiñ onek tratorak dausen les, arek egote siñ ordun beidxeekin labretako. Arie, ara orsdune.* || *Oiñ e areketarik esta eitten, tratoras eitten da oin.*

tratorkada, tratorkadie. (TRATORKADA, traktorekada-bat.) Tractor lleno, carga de un tractor.

tratu, tratue. (TRATU) **1.** Trato, acuerdo, contrato; comercio, compraventa. || *Tratun ibilli.* || *Tratue ein dot.* || *Traturik esteu ein.* || *Alboki da tratu bet-ero eiñ eskero, ba “Euk pagaukok albokie!” esate san tratu eitten bada. Ordun, tratu eiñ esiñik igul, de “Bueno, onexenbeste, da euk pagetako albokie”. Se alboki len edoseri eitte dxakon olan tratu eiñ eskero.* || *Tratu ein dabe, arreglus ein dabe.* **2.** Trato, relación. || *Apartin traturik estogu euki, baya apur bet e tratu euki du.*

trauskittu. (TRAUSKITU Romper, dañar. *Lauskittu nahiz trauskittu esaten da. Ik. apurtu, des ein, lorrindu, triskau.* || *Trauskittu? Lauskittu, dana apurtu.*

trebera, treberie. (TREBERA) Trébede; aro o triángulo de hierro con tres pies, que sirve para poner al fuego sartenes, peroles, etc. || *Treberie da, olanik, geuse biribil bet, iru ankagas, aspidxen sue eukitte su, ta ganien lapiko bat edo sartena.*

Trebiño. Trebiño. ☐ **Trebiñoko arridxe.** Muela de molino proveniente de Trebiño, utilizada para moler trigo. Ik. *Okako arridxe, prantzes arridxe.* || *Trebiñoku prantzes arridxe es euenien ibiltte san.*

trebutue, tregutue, tributue. Tributo. || *Oin kobrau eitte ittue geusak, baya tributu esaten dxakon len serari, ori urtin pagau biar ixaten danari, edo propidadigeittik, edo basugeittik, edo mendidxegeittik, edo arbolagaittik, tributue.* || *Onek etzik euki ban baso bat, esta?, baso bat emonda, da aren baso jaubiek oneri solu itxitte, da ba aren diferentzidxe, tregutue esate tze areri diruri.*

tremes, tremesa. (TREMES) Pan hecho con salvado. || *Tremesa ogi bastuaue san.* || *Tremesa len eitte san, etziñ ogidxe erreten gendusenin. A urunas da birriñas eitte san. Urune errotan idxo, lelengo saidxe kentze dxakon, serin, baye esate dxakon areri. Da gero beste baye, tela fiñau dekonak, birriñe. Da birriñe da ogi urune asatzen nastau te tremesa eitte san.* || *Ogi sapalak aintxiñe ixete siren, tremesak. Oin danak*

igulak dire. || Aintxiñe kendu eitte dxakon uruneri apur bet baltza, saidxe les, birriñe da arexigas tremesak eitte siren. || Egurrek errete siriñin be brasie ya, brasie bixidxe egon barik, makaldu ein bi deu. Da a brasi batu eitte san, ya makaldute daunien, batu, da araxe, labako atakik eurriñ ipiñi eitte san batute, pilleute. Da bera be araxe, ipiskidxe esate gentzon labako eutze-ta batzekuri, da arexas dana batu, da labie garbi-garbi ipiñi. Da lelengo artuk botate gentzesen aren atakiñ urreu, artue, bat, edo bi, edo iru; gero sartzesirien..., tremesak esate gentzen, lelengo errete siriñak, ba, bi, edo iru-edo, lelengo jateko eberdidxen, edo artzaldin. Da gero arek tremesak errete siriñien sartze san ogidxe, tremesak atara, da ogidxe sartu. || Bueno, tremesa saidxas eitten danari esate tzen-da. Guk emen estou iños usau sai utzas eitten danik, jaterik, espabese sai utze barik, urune eralgiñeku bota, nastau, da illuntxuau urtete ben, da alaku bai eitte gendun, lelengo jateko. Tremesak, lelengo jateko. Gero arek ixate sirin labako su eitte san egunien, da geidxen be kuadrilli daun lekun urregegunerako asko es san sobrauko. || Da batzuk eitte ben ba sai geidxaukue, areri tremesa esate dxakon.

tren, trena. (TREN) Tren.

txantxadorie. (TXANTXADURA) Levadura. || *Txantxadori da ogidxe eitteku. Txantxadori da ori, ori altzetakue, txantxadorie.* || *Txantxadurias arrotzen da ogidxe.*

txantxagorri, **txantxagorridxe.**
(TXANTXANGORRI) Petirrojo (*Erithacus rubecula*). || *Txantxagorridxe da paparra gorridxe dekona.* || *Arte txoridxe, jilgerue, txantxagorridxe, orrek txori txikidzek tire, da orrek emen asko ibiltten dire.*

txantxar, txantxarra. (TXANTXAR) Caries. || *Sulotute deko, ta ba txantxarra.*

txapa, txapie. (TXAPA) **1.** Cocina económica. || *Beko sue esate dxakon orri, gero txapie, ekonomieke ipiñi san, ekonomieke esate dxakon len.* || *A txapi ipiñi genduniñ e, au txapi geu eskondu giñiñiñ imiñi gendun, da onek e ogetas urtik dekones, orain bai idxe irurogei be eukiko ittu.* || *Txapan estaitt iñois be ein den, beko suen eitte gendun.* || *Iguel txaparako tranbutan ebai bixu, se ostantzin luse dau te.* **2.** Chapa, tapón metálico que cierra herméticamente las botellas. **3.** Chapa. || *Etorte sin txatarreruk eta sulotzen sin lapikuek konpondu eitte sittuen. Eta a sulue Txapatxuas. txapatxuas sarratu eitte ben.* **4.** Chapa que se usaba en diferentes juegos, como la rana, etc. || *Txapi: ranan ibiltten danari txapi esate tzeu guk. "Txapak galdu osak", txapak, igil txapak botaten ranan, da "Senbat txapa dekek?".* || *Losatara jokatu eitte san, txapakiñ ero olan eitte san a.* □ **txapako ladreillue.** Ladrillo sólido de la chapa. || *Lengun konpondu eskuen ori, txapi ori tte ba ortxe be sartu sittuen-da. Arek esteu eukitten arek ladreilluk eukitte ittun sulorik, ba a osu ixeten da, da pixutzu be bai. Txapako ladreillue esate tzeu te, txapan ipintten dan ladreillu esate tzeu.* □ **txapa serrie.** Tronzador (sierra con un mango en cada uno de los extremos). Oso gutxi esaten da honela. Normalean *trontza serrie* esaten da. || *Txapasko serri be bai, esate dxako beste bateri, txikidxauri: txapa serrie. Ori be armasoyas, egurresku orrek armosu eruten deu.*

txapaka. (TXAPAKA) Jugando a chapas.

txapar, txaparra. (TXAPAR) **1.** Chaparro, -a (de pequeña estatura). Lagunekin nahiz animaliekin erabiltzen da. || *Txaparra da asten estana.* || *Ori txapar ori!* || *Esate baterako, mutil txiki bateri mutil txaparra esate dxako, edo neska txaparra.* **2.** Mazorquita de maíz, de pocos granos. || *Txaparra da a ornidu bakue, txikidxe.* || *Txaparra: artaburu eskasari, artaburu txikidxe. Igul artuk buru bet ederra*

eukitten dau, buru eundidxe, da gero bigarrena txikixue, alderdi batetik garaurik estauena eta bestetik garau batzukin. Txaparra esate tzeu areri. || *Artuk asten daben buru txikixuri esate dxako txaparra.* || *Txaparrak ixate sin beidxeri edo txalari emoteko, apartau eitte sinak. Da arek bestiek, artu garaun asko dekenak kamarara, gero garanduteko.* || *Len e mendire jute giñiñ asko, ta mendittik ekarri, da bedar sikuek sabaidxan gordete sirin. Da gero galtzue — garidxe be eraitte san— da galtzue, ta negureko jateko iste san, sabaidxe bete, da artu be ara asko artze san da lantziñ e txapartxu batzuk e emon ganaduri e, bakotxiñ otzaratxu bet-edo ekarri tte partidu danari axe, da goixin ba axe partidu, da siku emon.* || *Txaparrak ointxe das solun. Artue eltzen deu eta arek e artaburu txikidzek, garauntzeko bayo be txikidxauk, txikixuk ixeten diriñak, guk arixeri esate tzeu txaparra, arixeri txikidxeri, artaburu txikidxeri.*

txapel, txapela. (TXAPEL) **1.** Boina. || *Txapel gorridxe borda oridxegas.* || *Da gero antxe sartu, amar asunbreko garrafokada ardaue. Da es eutzon ostu! Barre eitteko esta! Da Seberinak iños esan tzon Bitorreri: "Bittor, ondiño suri soñeko txapela be ostu eingo tzeu!".* **2.** Espiga. || *Da gero (prantzesa) luserotxuau badau, ya luseruei badau, txapelak urtete tzon, txapela esate gentzon, onen tamañoko ori, lodilodi-lodidxe, gorri-gorri-gorri-gorri-gorridxe. A gero asittu eitten da, da askok eitte ban asidxe etziñ artun.* || *Prantzesak esate ben a txapel gorridxe eiñ eskero ganaduntzako estaula balidxo. Balidxo bai! Baya probetxurik estekola, a sustantzirik es.* || *Buru asten da, da gorridxe, asidxe gorrizten da, txapel gorridxe.* || *Bueno, a be bierleku ederra! A txapel ori eldu-eldu eindakun artun de onantxik rast! asidxe ta ra! baldara edo sestora.* □ **txapel bedarra.** **1.** Tipo de hierba que crece en los muros y que se utiliza para hacer supurar las heridas. || *Txapel bedarra orman-da asten dana da ta ona ixeten da olan materidxe atara eraitteko-ta ori be.* **2.** Aguaturma, topinambur (*Medicago sativa*). Normalean, *prantzes bedarra* esaten da. || *Txapel bedarra? Txapel bedarra, txapeldute daun bedarra bai, txapel bedarra aintxiñe egote san. Frantzesa txapeltze san. A txapeldu eitte san a. A txapela, goidxek urtete tzon gorri-gorri-gorri-gorridxe, txapelatxu les, "Txapeldute dxak".* □ Ondoren adibidean azaltzen den bezala, belar mota bati baino gehiagori esaten zaio. || *Txapel bedarra e batzuk klase bateri esate tze, beste bateri. Or be susentasun gitxi.*

txapeldu. (TXAPELDU) Espigar, echar espigas (trigo...) granar. Sin. *burutu.* || *Sekule bedarra bueno! Sekule bedarrak len onen tamañotxu artze ban, baya korti emon biste dxakon arin, txapeldu orduko barridxe emon deidxen. Se eundidxe eitten basan, gero ya esan... , usteltzera jute san, da gasterik ebai biar.* || *Ori len soluen nabartien prantzesa eraitte gendun. Da buruk*

urtete tzonien, prantzesa "Txapeldu ein dxako", arixeri esate dxakon txapela. || Se esate tzen len frantzesari, alakoxe luseri, atzamarra lakoxi, biribille, dana asis beterik, gorri-gorridxe, orridxe. "Txapeldu dok bedarra, koño, bedarra!" esate gentzon guk areri. "Txapeldute dxak" eta a txapela es san ona isten e, ganaduntzako, siriñe eitte tzon asko emon eskero, ariñau, beraskue.

txapin, txapiñe. (TXAPIN) Calcetines de hombre. Ik. kaltzerdidxe. || Txapiñek dire kaltzerdidxek, arek onartekuk, ardi lanias eindakuk, suridxek. Enbra pe ibiltte sittuen len abarkakin. || Goru san, da emengo amumak gorutan ein, da aridxe eitte ban, a kaltzerdi-txapiñak eitteko.

txáplan, txaplana, txaflana, txanflana, txanflanie, txanplanie, txaplanie. Chaflán, cara que resulta en un objeto al cortar una esquina o arista de él. || Txaplana da lixu dauna. Au onan lixu badau, txaplanan ebeitte dau. Txaplana, susen. An okerra-eta barik..., a okerra bada, ba esta esaten, txaplaniñ e barik e, ordun lorriñiñ ebeitte dau. Da txaplana susen ebatie. || "Txaplanara joixu!": egurre lantzen danin "Joixu txaplanara!" iños entzu ot. Oten da atxurre egur lantzekue. Olanik e puntara metze-metzie. || "Txaflana ataraidxok egurreri!" (laban egon deidxen). || Kantoye baouko, "Orreri txaflana ataraidxok!" apur bet josteko, danak bidxek lixeute deidxen alkar. || Da sera olan txaplana dausen arridxei be, arri lastri. || Da baitte olan e txaplan deun orre pe lastrie deko. || Txanflanie esate tzeu kantoye jan egurreri: "Txanflani eidxok, txanflana apurtxu bet". || Txanflanin, laban esate baterako, "Ia, txanflaniñ egon dok", onanik laban-edo eitten badeu, "txanflana ein". Ixeten da ori geuse lixu-ero esati les. || Txanflana: laprast eitten deuna. || Laban ein dxost txanflanin. || Txanplana da, txanplana da ori ataratie, e arpeidxe ataratie, "Txanplana ein bi dxakok atara". Arotzari-tte. || Txanplana? Txanplana, txanplana lixu ipintti ori, egurre. || Amen altu-bajuk dekos, esate baterako, eta au sepillete su te ordun esaten dabe batzuk, leu esaten dabe, iguel "Txanplaniñ ipiñi" esate san len. || Txaplana ipintteko regla batas. Txaplan esate baterako, suk botaten dosu amen ta sementu bota, txaplan ipintteko ba sera bi da, regla bat. Egur batas bardin.

txaplata, txaplatie. (TXAPLATA) 1. Remiendo, parche. Adabie arropari ezartzen zaio, txaplatie bestelako materialei. || Txaplata bat ipiñi. || Txaplatie da inkeutako geuse bat. 2. Molesto, pesado, latoso. || Ori da txaplatie! || Txaplatiori!

txar, txarra. (TXAR) 1. Malo, -a. || Satidxe txarrau. || Intensiño txarras. || Ejenplu txarra emon. || Etxuat ikusi gixon txarraurik nire bixidxen. || Jente txarra beti egoten da. || Erabilli da gause bat txarrik

badabil: "Ak ori erremintti ori erabilli dxok urtebetiñ edo bidxen". || Marimutil bayo txarrau sabis! Bajatu seix orti bera, jeusi etzeixen! || Jente modue! Txarra leku askotan dau e! Jente txarra. Guk estu pentzetan, emen berton useute. Baya motillak! Bai, alakorik e! 2. Mal, daño, desgracia, dolencia. || Primeran nau, txarrik esteket-eta, ondo nau. || Danentzako txarrik esta oten. □ txarrin. A las malas. || Oniñ espada, txarrin. 3. Malo, -a, malvado, -a, travieso, -a. || A be txarra bada dero e! Oneri detze arrabidxue! Emengo jentiri. □ txarra ein. Hacer daño, causar mal. || Txarra eittiri emon tzo. || Txarrik iñori es ein! □ txarrera ein. Empeorar. || Denporik txarrera ein deu. □ txartzat artu. Tomar a malas. || Txartzat artu dxok. || Seoser eittosu, esta?, da igul txartzat artzen deu, da: "Oba biarrien ein dot!". || Esereskeridxegaittik txartzat artzen deu orrek!

txaraka, txarakie. (TXARAKA) Zarzal, jaral. || Txarakie ixeten da sikiñe, leku bat, txarakie, dana sastrakak, sikiñe, txarakie; an txarakan esin leike paseu ein. || Txarakie, sasidxe, dana naste, sikiñe. || Txaraka gogorra dao or. || Txaraka asko dau. || Beresidxe diferenti eitten da, se txaraki da sikiñe, sasidxe ta dana dauna. Areri guk esate tzeu txaraki "Emen txarakias dana dau txarakias tapaute".

txarakadi, txarakadidxe. (TXARAKADI) Zarzal, jaral. □Hona hemen beresi eta txarakadi berben arteko desberdintasuna: || Txarakadidxe: sikiñe, da ori sepie, eta dana sasi ta dana txarakadidxe. Ta bestie, beresidxe, diferenti da. Beresidxe egon leike garbi be, beresidxe. Sepie. Sepi ba guk esate tzeu landariri.

txaramel, txaramela. (TXARAMEL) Tarabilla, pasadorcillo. Halaz guztiz, txirrintxola da Nabarnizen gehien korritzen duen hitza. Emiliano Arriagak tarabela hitza batu zuen Bilbon eta definizio hau eman zuen: "(Del c. taravilla) Zoquete giratorio de madera que sirve para cerrar las puertas, etc." || Txaramela egur satitxue da. Atik barrutik-eta eukitten deu, isteko, egur satitxue, ipinitte. || Txaramela? Txirrintxolari. Bai, txaramela be esate dxako. Baya emen hainbeste esta esaten txaramela.

txarba, txarbie. (TXARBA) Tipo de manzana tardía. || Txarbie beranduko sagarra da, garratza. Mendaunekue da, mendaute. || Txarbie sagarra da. Oten da aprillera arte, mayetzera arte baya usteldu barik. || Inpernu sagarra gorritxue da, txarbi bayo dultziaue. || Txarbi sagar ba ta, beranduku dana. Berdie, tamañokue, esta aundidxe be. Garratza da baya berandun e ondo oten da jateko.

txaridxe, txaridxie. (TXARIA) Punta de leña. || Igul basuk espaldi badeko, sartze sin taketak, da aren taketara botate siñ egur txaridxak. Txaridxie, a, egur metxue da txaridxie. Txaridxie esate dxakon areri, a

esetako balidxo estan... Bueno su eitteko, su ixotzeko ta olakoxe.

txarko, txarkue. (TXARKO) Charco. || Errekondutan, uren txarku datosen lekuen, ure be jaidxoten dan lekuen, da gero euri asko danin geittu eitten dire, da gero uden agortu eitten dire. Da ba arixeri esate tzeu guk ori, espatie, antxe urtetan daben bedar santarrari.

txarrantxa, txarrantxie. (TXARRANTXA) **1.** Carda (para limpiar lino). || Liñue eitteko txarrantxie usete ben. || Txarrantxie usete ben liñue kargetako, aridxe eitteko, liñue eitteko. **2.** Carda (para limpiar el ganado). || Txarrantxie esate dxake areri (liñue eittekuri), baya diferentik dire, subiaue da ganadu garbitzeko.

txarri, txarriidxe. (TXARRI, txerri-bat.) **1.** Cerdo. || Txarri baskaridxe, aparidxe. || Txarri iltzie. || Txarri kortie. || Txarri musturre. || Txarriidxen irrintzak. || Txarri lukainkak. || Txarriidxe iltzen dan urtie, da eskontzen dan urtie onenak ixeten dire. || Makerie ixeten da ori, kunak eiñeko txarriidxeri esate dxako makerie. || Txarri arra da ordotza, da txarri emi da arkelie. || Txarriidxe erkeru dau. **2.** Sucio, -a, sordido, -a, porcachón, ona. || Ori da txarriidxe! || Alper txarriidxe! □ Txarri utze! esaten bada ere, Sikiñ utze! sariago esaten da. □ txarri askie. Pesebre de cerdos. || An dau geurin be, aspaldidxon estau serbixidxorik ein baya an dau labalan geurin be, an dau aski, txarriidxen aski. □ txarri gobernue. **1.** Preparación y separación de las partes comestibles del cerdo. || Txarri gobernue? Ba txarriidxe il de ba txarriidxen geusak eitti-edo, ipintti-edo: txarri gobernue. || Txorixuk ordun eguniñ estire eitten baya, dana dala, orixe da txarri gobernue. || Murtzillak-eta ba orduntxe eguniñ eitten dire, baya ba, txarri gobernue, ba axe txarriidxe il de ba... se esangot nik? Beren geusak e ipiñi-edo. **2.** Gobierno, cuidado, alimentación del cerdo. || Txarri gobernue: ixen lei txarri gobernue, ba txarriidxe il, da arek geusak banatu, edo ipintten diriñien e, urdeidxen puskie, puskakin, solomue solomugas, da olan apartaten diriñin, txarriidxe ilde, ba txarri gobernue. Da ixen lei txarri gobernue, txarriidxeri jaten emoti, txarri kortan, emen e jateku ipintte, ta askara botatie be txarri gobernetie.

txarriboda, txarribodie. (TXARRIBODA) Comida que se celebra con los ayudantes de la matanza del cerdo. || Txarribodie? Ba onetan baserriidxetan ba urtiñ e txarri bat ba jeneral iltten da, da antxe gabin jaten dan aparidxeri txarribodie esate dxako.

txarrikeri, txarrikeridxe. (TXARRIKERIA, txerrikeria-bat.) Suciedad, porquería. || Arrastilli? Satarriidxe ta batzen di ba... Seinda eskubarie. Eskubari jakngo su ser dan. Eskubariñ antzeku, baya burdiñeskue solutan-da bedarra-da batzeko. Saskarie, ta bedarra ta txarrikeridxe-ta batzeko. || Da osasun

bedarra esate tzeu. Ori e atzamarrin kortadi-tte einde be, ipiñi eitte ben, seinda kipuli moduen, txarrikeridxe atateko.

txarriki, txarrikidxe. (TXARRIKI, txerriki-bat.) Carne de cerdo. || Txarrikidxe da txarriidxen edosein geuse, nai txorixu, nai urdeidxe, nai solomu.

txarrikorta, txarrikortie. (TXARRI KORTA, txerri korta-bat.) Pocilga. Ik. txarritokidxe.

txarrikune, txarrikunie. (TXARRIKUME, txerrikume-bat.) Cochinito, lechoncillo.

txarritoki, txarritokidxe. (TXARRITOKI, txerritoki-bat.) Pocilga. Ik. txarrikortie.

txarrisain, txarrisaiñe. (TXARRIZAIN, txerriizain-bat.) Vendedor de cerdos. || Txarrisaiñe da saltzen dabena. || Txarrisaiñek? Bai. Len, orrek txarri saltzen ibiltte siñak, txarrisaiñek.

txartel, txartela, txantela. (TXARTEL) Cédula, billete, tarjeta. Txantela ere esaten da, baina, Andere Goirienaren arabera, txartela da gehien esaten dena. Emiliano Arriagak chantel hitza batu zuen Bilbon eta definizio hau eman zuen: “Cédula; aquí se emplea casi exclusiva para designar la papelita que dan en las parroquias en la época del cumplimiento Pascual”. || Ori? Abadik euntxe, onakoxe sasoyen-edo, elixik e len e... Oiñ estire ein be eitten da oiñ esan biarri pe esteko baya. Elixik eskatu eitte tzen danari ya komuniñu einde dasenari ia se dotriñe dakidxen edo ba eitte tzen, da axe txartela. Da emote ban... olako orritxu bat emote ban: txartela. || Txartela: len dotriñi pregunteta beniiñ abadiak urteko gure jauna artzi eitteko. □ Isunaren zentzua ere har dezake: || Txantela ipin tze kotxiri.

txarto. (TXARTO, gaizki) Mal. || Txarto jantzi. || Txarto aittu. || Txarto einde dao. || Txarto asidxe. || Amak erakuste deutzelako txarto umieri. || Diruas txarto sabixek. || Orrek esteke... Bestin txarra, beti besti txarra da besti txarra, da nundik txarto ipiñiko bestie! Da gerrie, orrek gure dabe emen beti alkarras gerri atati emen! Bai, emengo industriadxe ara erun, txarto esanda, eitten dabelako. Faltzidzak eitte ittues. □ txarto artu. **1.** Tratar mal, dar mal trato. || Andri txarto artzen deu. **2.** Tomar a mal. □ txarto egon. **1.** Encontrarse mal. || Oiñ e kartzelie, estai senbat urteko kartzeli emo tzen. Da daus karselan oin. Txarto dausela, geur goixiñ eki tze esaten famelidxe be txarto, da eurek txarto dausela. **2.** Encontrarse enfermo, -a. || Txarto dxak. □ txarto ein. Causar mal, traicionar. Ik. gatx ein, oker ein. || Txarto ein tzet. □ txarto esan. Criticar, faltar, insultar. Ik. ondo esan, ekin. || Ori beti dau bestigaittik txarto esaten. || Kokomarro: patari modun, uniñ artiñ esaten dan geusa bat, unik bata bestiri txarto esatiarren esate dxakona, orixe berbetie da. □ txarto jausi. Caer mal, resultar antipático. || Txarto jausi dxat.

txartu, txartuten. (TXARTU, gaizki) Empearar. || Denporie txartuten danién, gabiotak etorten diren.

txatal, txatala. (TXATAL) Trozo. || Terrenu txatal bat. || Txatal bat emoistesu ogidxe! || Txatala da solo txikidxe. || Landie da undidxaue. Da txatalari motie.

txatarra, txatarrie. (TXATARRA) Chatarra.

txatarrero, txatarrerue. (TXATARRERO) Chatarrero. || Txatarrerue? Ba ortxe dabixenari, etzerik etze. || Etorre sin txatarreruk eta sulotzen sin lapikuek konpondu eitte sittuen. Eta a sulue Txapatxuas. txapatxuas sarratu eitte ben.

txato, txatue. (TXATO) Chato. || Orrek anaye gusidxe txato ixen dosak.

txatuela, txatuelie, txatulie, txatolie. Clavo pequeño que usan los zapateros. || Txatuelak: burutxu botoi lakue eitten dabenak. Da baitte olan sapatak jostekuri be, arek untze txikitxuk ixaten dire, da arexeri be txatuelak esate dxake. || Txatulie, guk txatolak orrek esate tzeu untze txikidxeri.

txatxa. (TXATXA) Dicen los niños que no saben hablar bien para decir fruta. || Txatxa: lelengo berbetan asten dirin-de, olan berba osuk-eta esaten estittuenien txatxa esaten dabe umik eta gero nobera pe axe erakuste tze txatxa-ta. || Txatxa: sagarrari-edo, madaridxeri-edo.

txatxala, txatxalie. (TXATXALA) 1. (Mujer) casquivana, sin fundamento. Ik. txotxolue. || Txatxalie esate dxako apur bet esjakiñe danari, olanik: "Txatxalie alakue". || Txatxalie: olanik e, se esangot neuk? Sustantxidxe barik les berbetan ekitte tzonari bai esate dxako. || Txatxalie enbrari esate dxake. 2. (Mujer) habladora. Emiliano Arriagak chachala hitza batu zuen Bilbon eta definizio hau eman zuen: "Chiquilla habladora, entrometida y cargante".

txatxar, txatxarra. (TXATXAR) Baladí, insignificante, pequeño, -a. Ik. erkiñe, kunie, txikidxe. || Bentana txatxarra. || Urte onetan erreka txatxar danak siketu dosak. || Selako txatxarra da! || Ba ori be 'endekatute' be, ya siketute dauna ixeten da, indarri pari bixirik justo-justo. Ta 'txonbotu' da iguel ei tzesu lodittu bai, baya asi es. Alaku txatxar badau, txonbotute geratu bertan.

txatxartu. (TXATXARTU) Menguar, disminuir. || Txala be iguel barrun ikusi, ita gero kanpora atara, ta: "Kaguen, au txatxartu ein dok!". Txikitxera doiña da txatxartu. □ **errekie txatxartu.** Disminuir el caudal del río. Sin. **errekie bejatu.** || Errekie txatxartu ein dok.

txatxumurkada, txatxumurkadie. (TXATXUMURKADA, atximurkada-bat.) Pellizco.

txatxumurke, txatxamurke, txatxumurkie. (TXATXUMURKA, atximur-bat., zimiko) Pellizco. □ **txatxumurke ein.** Pellizcar. || Txatxumurke ein

tzo. □ Umeen borroketan esaten dute: || Eixu txatxumurke!

txatxur. (TXATXUR) (Haur.) Cachorro. || Umik txakurreri esate tze txatxurre, txikidxe direnin.

txepetx, txepetxa. (TXEPETX) Chochin (Troglodytes troglodytes). || Txepetxa txoritxu da, txiki-txikitxue, ollogorren tipokue, da ollogorran useiñe eukitten deu, bai, txakurrek artze tze. || Txigüe: txiki-txiki-txikitxue, grixe antzeko ori ixeten da ori. Da txepetxa da marroye, ollogorren kolore antzeku dekona. || Txikidxena txigu esaten da, txoririk txikidxena, Txepetxa bayo txikidxau ondiño txigu.

txerpi, txerpidxe. (TXIRPI) 1. Vivero, almaciga, plantario. || Piñu txerpidxe. || Sagar txerpidxe. || Txerpidxe da landarak dausena. || Landarak ipintten dixena, gero trasplantetako deittuten dxako txerpidxe. Edo piñu landarie artu gure dan lekun, ba, txerpidxe deittuten tzeu areri. || Jeneralien fruta landarak artzeko txerpidxe esate dxako. || Txerpidxe da landari artzekue. Txerpidxe esate dxako landari artzeko ipintten dan lakue. Erein, de landari atarateko, gero kanbidxetako e. 2. Esqueje. || Orreri lelengo arbolak urteten daben lakue, edo esate baterako, erain, esate baterako, sagar landarak atara gure itunak. da sardau eitten dabena ixan eskeruen, arek sardauk ixten dabena sarda ta asidxe, sardauk atate tzona, axe eraitten da, atxurtute ipiñite solo baten, landarie atarateko-ta. An urteten daben landariri esate dxako txerpidxe. || Da txerpidxe esate dxako piñu landarie ereitten dana be txerpidxe. || Txerpidxe esate dxako piñu landariri, eitten danari ba. Txerpidxe, ereittosu asidxe, da areri txerpidxe esate dxako, etzerako piñu landari ekarten danari, txerpidxe. Len emen e a Julianek askotan eitte ban txerpidxe. Piñu landari etziñ artze ban arek. 3. Espacio cerrado rebosante de vegetación. || Txerpidxe da sarratute dauna, "Txerpidxe dxak an". Ta ganera olanik sasidxeas-ero jantzite badau solu: "Jo, an dxak txerpidxe!", dana betarik daulako, sarratute daulako. || Txerpidxe sikiñeri be esate dxako, "Or dxak txerpidxe!" esin garbittu te. || Da sikiñ eundidxe ikustosu arteidxen, olan dana, nobera pasau esin, "Emen dxak txerpidxe!". || Txerpidxe da piñu landari-eta artzen dana, nai e txerpidxe dana nasteute badau, "A dxak txerpidxe!".

txerren, txerrena. (TXERREN) Arado de cinco o siete púas. || Arek txerrenak ortzak-eta eukitte dittu. Da besti da, markadora da palak eukitte ittuna, pala bi edo iru illadan, marketako. Da bestie da a jorratu eitteko, bittartin pasetan dana, txerrena. || Txerrena: batzuk bost ortz eukitte ittu, da beste batzuk saspi. Ori da bittartie astintzeko. || Txerrena da arto bittartin pasetako.

txertau. (TXERTAU, txertatu-bat.) Injertar. Halaz guztiz, Nabarnizen *estittu* berba da gehien korritzen duena.

txibue. (TXIBO) Porción de granos de trigo que conservan la cascarilla o residuos de trigo que se separa de los demás para dárselo al ganado. Ik. *galautze*. || *Garidxe jote san, ba, igul arridxen be, da gero apartau eitte sirin, da an apurtzen sirinak, arexeri txibue esate gentzon guk*. || *Txibue: joten dixerin, apurtute geratzen dana. Apartau, beidxeri emoteko*. || *Galtzuk apurtzen dxakos gariri, da gero arek eskubarias kentze siren, ganaduri emoteko, da ba arexek txibue*. || *Txibue da garidxeri eitte dxakona*.

txider, txiderra. (TXIDAR) Veza, arveja (*Vicia sativa*). || *Txider bedarra da. Garaue. Garautzu. Ori emen e kanpotik jaten da ori txiderra. Da berton be bai. Txiderra a tekatzuk eukitte ituna, garaune barrun*. || *Allorbiri nastete dxako ori txiderra*. || *Txiderra landan badau. Len. Salbajie. Baya solutan ereiñ eitten da. Da orrek urtebeterako agunteten deu bakarrik*.

txifloye. Surtidero por donde sale el agua a presión desde la presa del molino a las turbinas. Goikola baserriko Victorio Goikoleak azaldutakoaren arabera, Nabarnizen *txifloye* baino gehiago *upie* esaten da, baina berba hau ere ezagutzen da. || *Txifloye sabaldu*.

txigu, txigüe. (TXIGO) Especie de pajarito pequeño. || *Txigüe: a txepetxa lakoxi txiki-txikitxue*. || *Txigüe: txiki-txiki-txikitxue, grixe antzeko ori ixeten da ori. Da txepetxa da marroye, ollogorren kolore antzeko dekona*. || *Txigüe da txoririk txikidxena*. || *Txikidxena txigu esaten da, txoririk txikidxena, Txepetxa bayo txikidxau ondiño txigu*. || *Ba tire. Tindorra batzuk esate tze. Guk txigu. Txiki-txikitxue or e, txigu*.

txikera, txikerie. (TXIKERA, kikera-bat.) Jícara, taza pequeña. || *Txikerie ixete san txokolatie artzeko, txikitxue*. || *Txikerak: kafî artzekuk-eta, txikitxuek astatxuas*.

txikerakada, txikerakadie. (TXIKERAKADA, kikerakada-bat.) (Contenido de una) taza pequeña.

txiki, txikidxe. (TXIKI) Pequeño. || *Txikitxue*. || *Naiku txikidxe da*. □ **txikitten**. En la infancia, en la niñez. □ **txiki denporan**. En la infancia, en la niñez. || *Nire txiki denporan*. || *Gure txiki denporan, bat. Kantera, Kantera ingeruen. Kantera bakixu nun daun. Antxe goidxen, mendidxen. Axe esautu dot neure txiki denporan*. □ **txiki-txiki ein**. Hacer pedazos, desmenuzar, rallar, triturar. || *Etorten dire ba farduek, galtzue txiki-txiki einde, galtzu trilleue axe da*. || *Ogi sati bet apurtu-apurtu eitten danin, ba txiki-txiki eitten da*.

txikito, txikitue. (TXIKITO) Chiquito, vaso pequeño de vino. || *Lengo sarrak es eben txikitorik eskatzen*. ||

Ni e tabernatan enas oteko. Bidxar mesi ordu batan. Da andixik urten, da iru txikito edo lau edate dus etzera orduko, da kitxu. || *Sikuterue iñori eser emoten estetzona, txikitorik pagau geure es da an egoten dana, esate baterako, eser jeurtitzen esteuna*.

txikittu, txikitzen, txikittuten. (TXIKITU) 1. Minorar, disminuir, reducir, menguar. Ik. *txatxartu*. || *Selan txikittu da ori!* 2. Picar, reducir una cosa a pedacitos. Ik. *satittu*. || *Agiñekin txikittu*. || *Kipulie txikittute*. || *Txikittik ori!* || *Besperan, porrue, kipulie, perejille ta danak ipiñi txikittute*. || *Egurre txikitzen dau*. || *Su pe iños ikusiko sendusen-edo askoran ibiltten diriñak egurrek txikitzen*. || *Trakadie ba esate baterako, egurrek. Egurrek e txikitzen diriñen trakadie eitten dabe, traka!* || *Da koipie ixaten da, dana koipie. Da dana txikittute ba urtu, da ontzi baten altzeu*. || *Intxaurrek apurtu, da gero..., beyen estau baya, malmaixe esate dxakon ontzi bat... ixeten da. Da txikittu eitten dire an malmaixin, da txikittu-txikittu naiku jota*. || *Botaten dire sagarrak txikittute*. || *Pulpie da erromalatxias eitten dabe. Erromalatxie makiñias txikittuten dabe, txikittu, txikittu te ba arexe satidxek, arixek, axe siketute. Da emote dxako beratute ganaduri*.

txiki-txaka. Pasito a pasito, onomatopeya de cuando los niños empiezan a andar.

txikitxu, txikitxue. (TXIKITO) Chiquito; vaso pequeño o medio vaso de vino. || *“Drinkilaridx-osak!” kuadrilli igul asko edaten dabenak, txikitxuk-eta. “Orrek e drinkilaridx-osak, orrek edate itue!”*.

txikol, txikola. (TXIKOL) (Castaña) hueca, sin fruto. || *Gastaña garaune mamiñik estekona bada, ba arixerri esate tzeu txikola. Gastaña garaunek lakatziñ egoten dire, da lakatzien bat edo bi txikol, eundidxek, albutan eukitte itue. Da gastaña txikola arixe esate dxako. Orrek esteko mamiñik*. || *Gastaña txikolak tire gastaña asi bakuek, albotxun eukitte ituenak e..., txikoltxu eukitten dabe, da gastaña eundidxe asitten dana pe eukitten deu albotxun txikoltxue. Txikoltxu dana, mamiñik estekona*. || *Txikola bakixu seri esate dxakon? Gastañiri. Gastaña garaueri, arek espadeko mamiñik, “Ikolak dxasak ainbeste!”-ta. Areri etxako esaten mamiñipakue, espabe ikola*.

txikoldu. (TXIKOLDU) Quedar(se) hueco. Nabarnizen gehienbat *ikoldu* esaten da, baina *txikoldu* ere entzun daiteke. || *“Gastañi txikoldute dau”: a utzik-ero dauna*.

txikori, txikoridxe. (TXIKORIA) Achicoria. (*Chicorium intybus*). || *Emen tabaku bai, txikoririk e...* *Ereitte ben emen orretan bai nonun. Ba Nabarrixen tabaku bai. Txikoridxe es, e san eitten*.

txikue. (TXIKO) Caballo joven. Markina aldea *moxala* esaten ei zaie. Julen Urkizak eta Luis Baraiazarrak Frai Bartolomeren idatziei eginiko edizio kritikoan honela azaltzen dute (320. orr.): “chico:

zaldikume hazi samarra; “*nesquiaren edo andriaren aurrian saltoca, chico ezi bagaco edo baso asto batzuc dirurijeela*”. || Txikuek dire, esate baterako, kuni bayo eunditxuau danien. Neusidxe pes, baya orrixe esate dxake txikue. || Txikuek esate dxake, emen onetan beintzet, saldi kunak. Kunak, edo kunak aunditxuk dirinin; ba, txikidxe payo aunditxuauk dirinin jeneral txikuek. || Txiku dire salto-saltoka dabixen gastiek, esan gure deu txikuek. Asto kuni nai saldi kuni, txikuek. || Txikuek? Dire..., saldidxetan dire eundidxek asittekuek. Da txikitxuk tiriñien gu geuk txiku esate gentzon. || Emen txikue esate dxako, esate baterako, saldi kuniri, edo kuni bayo eunditxuau danari. || “Mendiko txikuek asi dire berantz bajatzen da edurre ein bi deu” san lengo esakerie, mendiko txikuek, gaste ta sar, libre ebixenak. || An irrintzeka igul saldidxek, eta “Orrek dire txikuek”. Txikuek arek irrintzeka dabixenari. || Txikuek bajatuten ei sittuen denpora txarrin-da. || Txikuek? Bai, eurre-ta etorte diriñien da olan denpora txarra daunien erretirau eitte gendusen mendittik.

txilibitu, txilibitue. (TXILIBITU) 1. Pito, pitilín. Ik. pittue. || Txilibitue? Ba ser dala esangot? Txix eitten dana. Gixoneskuk txix eitten dabenari batzuc txilibitu esate tze. Da beste batzu pa esate tze, umik-eta pitu esate tze. 2. Silbato, pito; flauta. || Txilibitue kañaberias len eitte ben antxiñe berton. A kañoberakiñ an suluk einde. Txilibitu esate tze areri be. || Txilibitue? Bueno, txilibitue, baya emen e olan musiki olan joten dabenik estau, baya orreri bai txilibitue esate dxako baya.

txilidxo, txilidxue. (TXILIO) Chillido, grito. Txiliokie ere esaten da. Ik. saratie.

1 txilidxoka. (TXILIOKA) Chillando, gritando. Ik. sarataka. || Umik geldik egon esiñik dabixenin, “Geraka dabis”, umiri esate dxake. Umik saltoka, txillioka-ta ibiltten diriñiñ olgetan, ba geraka.

2 txilidxoka, txilidxokie. (TXILIOKA) Chillido, grito. Txilidxue ere esaten da. Ik. intziridxe. || Animalidxen saatiri be esate dxako, ba: “Txilidxokak ein ttu”. Txakurreri be esate dxako. Esate baterako, joten danin be, ai-ai-ai ein-de asten sanin, ba txilidxoka. Intziridxe be esate dxako.

txilin, txiliñe. (TXILIN) 1. Campanilla. || Bei bakotxak amabi txilin, olan, sei onan da sei olan, da arek txilin-txilin-txilin jote ben. 2. Onomatopeya del sonido de la campanilla. || Da aingeruri jote tzes dana txingilimañak, txilin-txilin-txilin txingilimañak jote tzes, da “Aingeru kanpayek ixen dire”.

txilinbedar, txilinbedarra. (TXILINBEDAR, txilinbelar-bat.) Campanilla blanca de los prados. || Txilinbedarrak? Arek, ser esangot neuk?, batzen diriñak dire, nai egurrin nai arbolan-edo, ta eukitten dabe liridxu lakoxe loratxu bat, suritxue, txikitxue, ta

txilinbedarra aixe esate tzeu. Ori iños ekarri eitten da persona nausidxentzako, ba estomangotik librau deidxen. || Txilinbedarra da ori inketen dana, edoser sepatan nai solun be, txilinbedarra. Kaskaroitxu-ero ataten deu, seinde txilingi lakue. Oiñ ikusi be asko esta eitten, baya len asko, txilinbedarra. || Txilinbedarrak dire orrek lusenkak, erpa lusik eukitte ittuenak.

txilindrue. (TXILINDRO) Apisonadora, máquina automóvil, montada sobre rodillos muy pesados, que se emplea para apisonar caminos y pavimentos. || Txilindrue kamiñutan ibiltten dana esate dxakon len, olanik, galipota botaten ibiltte sana, ta sapaltzen ibiltte sana. Txilindrue arixe esate dxakon len. || Galipota, da galipota sabaltzen. Da galipota orduko, len, arridxe botate san, arri tamañue, eskus ein biste san, da arexek arridxek plegetan be txilindru ibiltte san. Da gero galipotin beti ba a sapaltzen be txilindru.

txilliñera, txilliñerie, txillinderie. (TXILINERA) Campanilla que levaba el ganado de tiro en el cuello. || Bei busterra ederrak txilliñakin. Txilliña pe jakingo su ser diren ordun. Beidxen txillinerak. Saman erute besenak beidxek. || Aundidxena da arrana. Da arek txillinerak. Beidxek erute ittun, beidxek elegantik, da ugelak, da aren bularrin txillintxuk, txillintxuk, txillintxuk. Txilliñerak.

tximini, tximinidxe, tximeidxe, tximidxe. (TXIMINIA) Chimenea. || Tximidxen kanpaye. || Jun giñen gastaña erreten, ein du su itzela domeka baten, beyen, da tximidxek artu deu sue, tximidxek errementeu kamaran, goigurun, da, medeliñik es! || Kedarrie da tximidxen barrun egoten dan baltza. || Sorgiñen kontu pa, plantxiñ aspidxen eukitte bela unturatxue gordeta ta axe eskutan eitte bela plantxias, da gero tximinidxen gora igote bela sorgiñek-eta, bai esate ben.

tximiñoye. (TXIMINO) Mono.

tximitxe, tximitxie. (TXIMITX, zimitz-bat.) Chinche (*Cimex lectularius*). || Tximitxak: oyen eitten diriñak, norberari ainka eitte tzenak-edo. Olakuek, neuk estot esautu etziñ iños, baya ba olakuk egote dirila esaten dabe. Txikitxuek, apur bet gorriskatxuk ixaten dirila esaten dabe. || Tximitxie? Emen bakixu seri esate dxakon? Orrek e... gabas ibiltten diriñak, oyen-da ibiltten diriñak, arixeri esate dxako tximitxie.

tximur, tximurre. (TXIMUR, zimur-bat.) Arruga. || Arkondari igul erute su olan dana lorrin, da “Tximurres beterik dana euki dxok ori!” || Kipurre da ba asi kipurres esate baterako, a orri tximurre dekona. Kipurre esate dxako.

tximurtu. (TXIMURTU, zimurtu-bat.) Arrugarse. || Au librue tximurtute dau.

tximurtzu, tximurtzue. (TXIMURTSU, zimurtsu-bat.) Arrugado, -a, rugoso, -a, con muchas arrugas. || *Tximurtzu: pañelu be igul bueltak ibilde, "Ori be tximurtxueidxe dxak". Plantxau barik -edo.*

tximurrune, tximurrunie. (TXIMURRUNE, zimurrune-bat.) Arrugas. || *Tximurrinak neu pe badeukadas.*

txin, txiñe. (TXIN) (Haur.) Dinero. || *Txiñe? Bai, geu unik ixan giñenin geuri bai esate skun txiñe.*

txinbera, txinberie. (TXINBERA) Escopeta pequeña. || *Txinberie: arma bat, txikidxe dana.*

txinbo, txinbue. (TXINBO) Chimbo, curruca mosquitera (*Sylvia borin*). || *Txinbo bille jun da. || Sasi txoridxe txinbue bayo aundidxau da, aundidxaue. || Txinbue esta txikidxena. Txikidxena txepetxa. || Txinbue txori ba ta, arte txoridxe bayo txikitxuaue.*

txinga, txingie. (TXINGA) **1.** Pesa de competición con asas que se lleva en cada mano y que se utiliza en las pruebas de fuerza. || *Txingie erutie? Ori plasan eitten dabe. Onenbeste killo erun bayetz da esetz. Oratu andik txingetatik-eta.* **2.** Argolla (de hierro fija en la pared para atar el ganado).

txinger, txingerra. (TXINGAR) Brasa, ascua. || *Txingerrak salteu deu. || Txingerra da suteko brasie. || Txingerra: ori suteko ori, brasen deuna, txingerra. A sue, ero brasie gorri-gorri eoten da, ba arek satidxek esate tze txingerrak. Arkondaran igul txispas tak! inkeute, "Kaguen, txingerrak erre-ste!". || Txingerra orixe brasaku da, sue dekona, guk esate tzeuna beintzet. || Kaguen, txingerra etorri dxatek praka ganera! □ Hona hemen txinpertie eta txingerra berben arteko desberdintasuna: || Baya txinperti da diferentie, txinperti da salto eitten deuna. Suek atarate tzo txinperta fui!, fui!, arek fuego artifizialak, antzekuk txinpertak. Txinperti esate dxako areri, salto eitten deunari. Txingerrak salto estau eitten.*

txingilimaña. **1.** Campana menor que anuncio la muerte de un niño. Ik. *aingeru kanpaye.* || *Ume bat illten danin, ba aingeru kanpaye esate dxaken emen, umiri. Il kanpai barik, ya nagusi bateri il kanpai ibiltten dire. Antoniori jote san modun, atzo kanpaik entzun gendusen, da ba "Bate bat il da" esan gendun geu pe. Da aingeruri jote tzes dana txingilimañak, txilin-txilin-txilin txingilimañak jote tzes, da "Aingeru kanpayek ixen dire". || Da ori aingeru basan, kanpa nausirik etzen joten, txingilimaña payo. Umiena jeneralena, areri txingilimañak. || Txingilimañak: kanpa tamañotxue, olako bi, ta noberak eskuas jo. Nabarrixen beintzet. Txingilimañak oin beste batzutan bueltakuk egote sin, baya mene aintxiñe-aintxiñe-aintxiñe bat pe es san egongo bueltakorik, biarbada. Emen Nabarrixen beti usete san. Iru kanpa egote sin, bi eundidxek negaaaargarridxe, da orixe bat txikidxe txingilimalak joteko. || Txingilimañak ordu bistan jote*

sirin. Da ume bat iltte basan jaidxobarridxe, bautixau es eser eiñ orduko, txingilimañak jote tzesan. **2.** Campana pequeña que tocaban las vísperas de fiesta. || *Txingilimañak ixete siriñ arek kanpa txikidxek. Orrek jote sin len jai besperetan beti, ordu bidxetan. || Txingilimañak, len txingilimañak jote sin. Txingilimañak sin jote siñak jai besperetan, beti ordu bixtan. Txingilimañak joten makiña bat bider jute nitzen ni, alako..., orrek bias, alan di-da, di-da, di-da..., batek, da bi jute giñen mutikuk eskolan ibiltte giñenin, elixara, kanpotorrara. Da "Txingilimañak joten jun bi da". Da mutiko bi erute besen. Da bi espada, batek jote basan, ba batek kantau eitte ban. Bakotxak bana, da-da-da-da, txingilimañak. || Errepiki esate tze txingilimañari, da jo eitten dabe eskuas, din-dan, din-dan, din-dan.*

txingor, txingorra. (TXINGOR) Granizo menudo. Nabarnizen, dena dela, *iñetasidxe* da gehien erabiltzen den hitza. Ik. *iñetasidxe, arridxe.* || *Txingorra botaten deu. || Txingorra jeusten da. || Uden esteu txingorrik eitten, arridxe guk esate tzau udekuri. □ Berri-emaile batek txingorra eta iñetasidxe berben arteko desberdintasunak aitatu zizkidan; beste batzuek diote desberdintasunik ez dagoela eta Nabarnizen iñetasidxe dela gehien erabiltzen dena, txingorra ere aditzen bada ere. || Bai, iñetasidxe be esate dxako, ta txingorra be esate dxako. Jeneral, txingorra garaun aundixauri esate dxako. Da iñetasidxe, jeneral, garaun txikidxari esate dxako. Baya bidxekiñ aitzen da. || Txingorra eta iñetasidxe bai, ba tire danak. Txingorra ba ser esangot neuk? Garaun eunditxua dala? Baya kontixu danari esate tzeu. □ txingor saparradie. Tormenta de granizo, granizada. || *Txingor saparradie bota deu.**

txinperta, txinpertie. (TXINPARTA, txinpart-bat., pindar) Chispa, chisporroteo. || *Txinpartak egurrek botate ittunak dire. || Txinpertak dabis, da ba suek urten esteidxen, kargu eittera txinpertari! □ Hona hemen txinpertie eta txingerra berben arteko desberdintasuna: || Baya txinperti da diferentie, txinperti da salto eitten deuna. Suek atarate tzo txinperta fui!, fui!, arek fuego artifizialak, antzekuk txinpertak. Txinperti esate dxako areri, salto eitten deunari. Txingerrak salto estau eitten.*

txinpertaka. (TXINPARTAKA) Chisporroteando. || *Txinpertaka: egur bat igul brix!, da brix!, "Dios, txinpertaka!"*

txintxeu, txintxetan. Chinchar. Ik *sitzeu.* || *Ernegagarridxe: beste batek ernegau eitten deu, igul txarto esanda, nai alanik, alanik beti sirike deunien be, ernegau eitte tzo igul bateri, da: ernegagarridxe, a sirike dauna, an txintxetan dau, ernegagarridxe orixe.*

1 txintxie. (TXINTXE, tximitxa-bat.) Chinche. || *Txintxi? Bai, soldutzara jun giñenin, kaguen!, soldutzara jun giñeniin jaki gendun sertzuk sin, soldau*

egon giñenin, an ikesi gendun. Kaguen, txintxek negargarridzek! Sastasuk, kaguen! Ordu arte sekule bes, e jakin bes ser dan bes!

2 txintxié. Cincha, faja de cáñamo, lana, cerda, cuero o espartu, con que se asegura la silla o albrada sobre la cabalgadura, ciñéndola ya por detrás de los codillos o ya por debajo de la barriga u apretándola con una o más hebillas. || *Txintxi da olako sabala, narru-edo bidau, an aspittik e gerridxen miñ eiñ esteidxon asturi nai kabelleridxeri, beti gora lotzen deu a, da goidxen sokias.* || *Txintxi narru da ero kordelesko masi eindakue, baya es soki. Ixen bi deu biribille barik, sartu es eitteko beyen.* || *Txintxie: ori serak eitten diriñak. Tripatik jartze dxakona, saldidxeri nai asturi. Narruskuek. Da trapuskue pe bai. Trapusku di ixetes.*

txintxer, txintxerra. (TXINTXAR) Chicharrón, residuo de la manteca que se obtiene derritiendo el tocino y las grasas del cerdo. *Txintxorta* ere esaten da. Aramaio aldean (Atutxa, 1995) *txítzar* esaten ei da: “*txítzar: chicharrones/graisserons. Txarri koipeak urtuz lortzen dan janaria*”. || *Txintxerra jan eitte sen, erre-erre-erre einde.* || *Xetute ipiñi, da txintxerra jan.* || *Txintxerra: txarridxen gantzak eta ostantzeko serak. Da arekiñ eitte sirin, ebaidxe ein da urtu, da gero pasau pasadorien, da katxarrure bota. Da koipie gero kollarias artzeko.* || *Koipie da txintxerra, koipe utze.* || *Ak txintxerrak esteu balidxo isten (ixeten) esetako. Aintxiñe jate sin. Oridxue ein biarrin, ba areri ataraten dxako koipie. Areas koipies kosiñi ein.* || *Txintxerra: an sebuas eitte siriñ orrek erreta, txintxerrak esate dxakuna areri be jateku pe. Ganadun sebuas.* || *Txarridxen koipiri koipe gasi esate tzeu. Da axe urtu, da gero txintxerrak eitten dire, txingerrak-edo, guk txintxerrak esate tzeu, ta ba txingerrak esate tze kontixu. Da axe koipie, txingerrak apartau, da axe koipe garbi-garbidxe pasau serien, pasadorien, onakoxe pasadorien, da koipe gasie botate san orretara pitxar morkutara.* || *Txintxerra, bueno, segidxen jaten espasan eitte sanien, gatz apurtxu botate dxakon, da ba erretirau eitte san, kartak ebaten erun nonun. Da gero ba lantziñ apur bi epeldu, da gero ba epeldute jan eitte siriñ ogidxas, barra bakotxa.* || *Txintxerra ser da? A koipie kendute dauna? Sera, ser esangot neuk? Koipi kendute dauna? Bai, txintxerra jan eitten da, ein de arakun ba esta txarto egoten.*

txintxerri, txintxerridxe. (TXINTXARRI, zintzarribat.) Cencerro pequeño de las ovejas o cabras. || *Txintxerridxe da saman ardidxeri, tte euntzeri ipintten dxakena. A txikitxue, txintxerridxe. Arrana aundidxeri esate dxako, baya len txintxerridxe esate dxaken ardidxek eta euntzek-eta ibiltten dabena, txikidxe ixete sa les. Da oiñ alakorik esta ibiltten, oiñ estau emen ardirik olanik. Oin ba, arrana. Arrana aundidxau da, arrana beidxeri-tte ipintte dxakena, talan-talan joten dabena.*

txintxilleri, txintxillidxe. (TXINTXILERI) Cosa insignificante, bagatela. Ik. *sarameridxe.* || *Txintxillidxe: gause txikidzek diriñin, umiri, ibiltte ittuen olgetako gausek. Umik edoser gausa, ba gausa txikidxas olgetan ibiltten dire: “Txintxillidxean dabis”.* || *Txintxillidxe geuse asko txikidxeri esate tze.* || *Txintxillidxe e dire umik olgetako geusak-edo, sarameridxe-edo, ser esangot neuk?*

txintxorta. (TXINTXORTA) Gorrón, chicharrón, pedazo de tocino frito. *Txintxerra* ere esaten da. Emiliano Arriagak *chinchorta* hitza batu zuen Bilbon eta definizio hau eman zuen: “Los desperdicios o residuos de las mantecas de cerdo o vaca despues de derretidas y prensadas”. || *Koipie eitten dana estitan oten da, bueno ori estin ganin-da oten da ori, ori koipe opille. Opille eitten da, koipe opille eitten da ganaduk nai txarridxek barrun eukitten dabena koipie urtu, da arek e txintxortak esate tze areri, serari e..., urtu te ara ba gatzan apurtxut einde, ogidxen barrun sartute, len jan eitte gendusen arexe pe. Da aexe esate dxaken txintxortak.* || *Txintxortak? Bai, brijidu, brijidu te gelditzen sirien apur bet gogortute, da koipie aparteta san, aparte, da arek satitxu-satitxu einde ipintte san, da arek apartau eitte sirien. Len jan eitte gendusen. Berotu sarteniñ-edo berotu te jan eitte gendusen arexe pe.*

txiñurri, txiñurridxe, txindurridxe. (TXINDURRI) Hormiga (*Formicidae*). *Txiñurridxe* nahiz *txindurridxe* entzun dut, bietara esaten da, baina *txiñurridxe* gehitxoago esaten da bestea baino. Bestalde, *iñurridxe* eta *indurridxe* ere esaten da. Ik. *iñurridxe. Iñurridxe* ere esaten da. □ **txiñurri arridxe.** Roca poco consistente que se rompe con facilidad. || *Txiñurri arridxe da arri bet, beta asko dekona, edo erres apurtzen dana.* || *Txindurri arridxe: ori prast-prast apurtzen dana, arri troski, ori da arri..., esan gu tona, kolorien normal antzeku, baya txindurri arridxe apurtu eitten da ori prast-prast.* || *Txiñurri arridxe? Olan, e, ser esangot neuk?, satidxe emote ittuna-edo, erres apurtzen dana da txiñurri arridxe.* □ **txiñurri tokidxe.** Hormiguero. || *Or txiñurri tokidxe dau.*

txio. (TXIO) Trino, gorjeo, onomatopeya del piar de los pájaros. □ **txio ein.** Piar. || *Txoridxe txio eitten dabe.*

txioka. (TXIOKA) Piando. Sin. *kantetan.* || *Txoridxe txioka dau.*

txipitta, txipittie. (TXIBITA) Mayal, instrumento compuesto de dos palos, uno más largo que otro, unidos por medio de una cuerda, con el cual se desgrana el centeno, alubias, etc. Bergara aldean *idaurra* esaten ei zaio. || *Txipittie, indarrak-eta joteko da ori txipittie, bata laburre da bestie lusie, ugelas separaute. Da olanik botaten da, da joteko indarrak eta olanik, indarrak-eta garantzeko.* || *Len emen, geuriñ egon san, da egon san, ixeten da egureskue,*

pagoskue ixeten da, makillasku obeto esateko, da palo bat eukitten deu olanik eusteko, da palo naiku lusi ta egoten da, beste palo bat eukitten deu ugelas jositte puntan, da orruxeri esate dxakon txipitti. Da jote san, indarra jote san, blasta-blasta, arek narrue eukitten ba les erdidxen e, makilla biren erdidxen, arek narruk buelti artzen deu les, indarrak jote siriñ aras, da txipitti esate dxako. Oiñ estau txipittarik. || Txipitti? Indarra jotekue. Onakoxe egur bi, metro bayo geitxuaukuk, eta amen eitte tzen narruas, ugelas eiñ alkarri lotu, da ein gero onan buelta eitekue. Da axe da txipitti. Indarra joteku.

txipli-txapla. (TXIPLI-TXAPLA) Chapoteando.

txiplist-txaplast. (TXIPLIST-TXAPLAST) **1.** Onomatopeya de la bofetada. Ik. *blis-blas*. || *Txiplist-txaplast emon tzet*. **2.** Onomatopeya de la piedra que va votando sobre la superficie del agua. || *Txiplist-txaplast jun dok*.

txipristada, txipristadie. (TXIPRISTADA) Salpicón. || *Oridxo txipristadak*. || *Txipristadak etorri dxates*. || *Txipristadak etorten dire, kotxie-edo pasetan danin*. || *Txipristadak ba esango neke nik e, txipristadak..., txipristiñek ugeridxaug dirilla, txikidxaug edo ugeridxaug, txipristadak bayo*.

txipristin, txipristiñe. (TXIPRIZTIN, zipriztin-bat., ziliporta) Salpicadura. || *Txipristiñak bota-stes*. || *Ure trope jeusten dan lekun, albutara, ba txipristiñe*. || *Arri bat botaten danin, urteten dabe txipristiñak*. || *Txipristiñak dire nai ankias posu bet jote badosu, nai suek atarate ittunak. Txipristiñak bidzek dire bat, urena be bai, de suena be bai. Se iguel mantxete tzesu, e oridxae or saltoka sartenien, da "Dios, txipristiñak jodidu ste arkondarie!". || Oridxo txipristiñak: bai, oridxae e botate ittuniñ erreta dauniñ e txipristiñak botate ittunin, oridxo txipristiñak*.

txiribitta. Chiribita, margarita. Gutxi erabiltzen da, zahar batek edo bestek. || *Txiribitta lorak*. || *Txiribittie lori da, motan asten da, suritxae. Guk e lora suritxae esate tzeu, baya guk esteu esan txiribitterik*. || *Txiribita bedarra: orreri or asten diriñ e bedartxu suridzek*.

txiribitue. (TXILIBITU) **1.** Último juego en el juego de las tabas. || *Txiribitue? Eitten da ba..., taba gustidzek alde batera ipiñi, alkarren ganién-edo, arixerri esate gentzon txiribitue, alkarren ganién ipiñi te gero batera artu. Da batera artzen es pada, galdu eitte san*. || *Txiribitue? Olan e tabakiñ eiñ eitten dana? Antxiñe-ta geu pe eitte gendun. Da askanekuri alkarren ganin montotxu ipiñitte txiribitu esate gentzon*. **2.** Silbo. || *Txiribitue: putz einde joten dana, sirri-sirri. Aintxiñe geu pe euki gendun, olan geusa txikitxu bat, sulotxuas, da barrun olako arri satittute deu, satittute, lantziñ i-i-i! eitten dabena*.

txirimiri, txirimiridxe. (TXIRIMIRI) Llovizna, calabobos. Ik. *euri grumie, sirimiridxe*. || *Eur txirimiridxe*. || *Grumi ixeten da, da lanbrue orre ba dira txirimiri-txirimiri eitten dana*.

txiripiri, txiripiridxe, txiripidxe. (TXIRIPIRI, txiribiri-bat., tximeleta) **1.** Mariposa. *Mariposie ere entzuten da*. || *"Marigorri txiripiri, esaidxosu Jangoikuri bidzar denpora ederra eitteko, edo ba euridxe eitteko"*. || *Txiripiridxe? Ba, ser dala esangot txiripiridxe? Egan ibiltten dan e koko bat. Ixeten di gorridxe, ixaten di loradunek, da egan ibiltten dire*. || *Guk txiripiridxe esate tzeu suk esan dosunari. Ba, mitxeletie-edo esate tzeu batzuk txiripiridxeri. Geuk txiripiridxe esate tzeu. Da mariposie be bai, baya ba txiripiridxe. Beres euskeras ixena, txiripiridxe*. **2.** Insecto que se le forma al grano del maíz. Esate baterako, artoari egiten zaionean, *"Arturi koku ein dxako"* nahiz *"Arturi txiripiridxe ein dxako"* esaten da. || *Da arturi txiripidxe eitte dxako. Bertokuri be bai, lusero euki eskero, segun nois joten dan, da ilberan da ilberrin de*. || *Txiripidxe: suri-suritxae, arturi eitte dxako berari, garaun barrun, da gero kanpora urtete deu ak*. || *Txiripidxe: ori da eukitte su artu iguel garandute be bai, lusero, da txiripidxe*. || *Artun txiripidzek urtete tzon arto sarrari. Ori txiripidzek kamaran urtetten deu*. || *Txiripidxe geusa askori eitte dxako txiripidxe, artun garauneri be txiripidxe eitte dxako, garidxeri be bai, indixabiri be bai. A txiripiridxe berari, berakon granori urtete tzo barrutik, kokue*. || *Ba arturi txiripidxe eitte dxako, artagarauneri e! An eukitte su garandute artu sakun, da e esate baterako sei ilebetiñ-ero bokosu sakun, beres txiripidxe barrun eitte dxako. Gero eitte su mobu te dana txiripidxe, txiki-txiki-txiki-txikitxuk. Jo, sarri ori! Geurin be sarri olan..., len aintxiñe arto asko eitte sanin —oiñ es, arto gitxi eitten da les, ba gastau eitten da arin—, ba len iguel eukitte sendun sei illebetiñ ero urtebetin be artue, garandute igul sakun-ero, da areri eitte dxakon txiripidxe*. || *Oiñ estau artorik. Oiñ e garandute emon eitte dxakue. Ba ordun artapillo eundidzek oten sin. Arto asko. Da eitte san martidxen ilberan jo, da sakutan sartu edo kaixan gorde, konserbetako. Ostantzin txiripiridxe eitte dxako arturi. Txiripiridxe eskandalu ganera! Bai. Da martik-ilberan etxako ori eitten*.

txiri-txiri. (TXIRI-TXIRI) Sigilosamente. || *"Txiri-txiri sartu da etzien": ori da suabe-suabe jutie. Bai, edo ibiltten dana an suabe-suabe: "A be txiri-txiri badxabi pa!"*. || *Txiri-txiri sartu da. Iñok estau ikusi*.

txirla, txirlie. (TXIRLA) Chirla, molusco parecido a la almeja, pero de menor tamaño.

txirlue. (TXIRLO) Bolo (pieza del juego de los bolos). || *Bolak eta txirluk*.

txirlora, txirlorie. (TXIRLORA) Viruta, cepilladura. Ik. *serreutze*. || *Txirlorak: amen gure alun egon san tio Maurisi san arotza, da arek ba antxe sepilluas atarate sittunak da gero sue ixotzeko ipintte siriñ arek.* || *Txirlorie da serrik ataraten deuna.* || *Txirlori da egurreri atarate dxakona.*

txirrike, txirrikie. (TXIRRIKA) Polea, rueda acanalada. || *Txirrikie: ori da, txirrikie, sokiña be eukitten dabe, guk txirriki sokiñari esate tzeu. Txirriki da biribil bet, sokiri gibildxe eitti lakue: txirriki. Sertako? An korridu deidxen sokik erres. Se an sokik ostantziñ espouko, lotu eitten da asko, katittu, da esta libretan. An boukosu a txirrikie, burdiñesku ixeten da, ojaltasku, ero burdiñesku, ero siñesku, ero olan.* || *Ganera or orman be iguel eukitte su kati bat lotzeko be, "Txirrikie dxekok ortxe!" esate tzagu.* || *Txirrikie ixeten da polea batek eukiten deuna.*

txirrin, txirriñe. (TXIRRIN) Chirrido de carros. *Kirriñe ere esaten da.* □ **txirriñe jo.** Hacer chirriar el carro que lleva el arreo para celebrar la boda. || *Orrek aintxiñen uso kostunbrak e, bat eskontzen sanien, ba arriu ekarteko, beidxekin, de txirriñe joten, da musiki joten an rin-rin de rin-rin de rin-rin-de, gixonak ipintte ban, estutxu-edo ipiñi selak, sati ein deidxen. Txirriñak.*

txirrinbola, txirrinbolie, txirrimolie. (TXIRRINBOLA) Aro. || *Txirrinboli bai. Txirrinbolie olako biribille, orreri esate tzeu txirrinbolie. Guk e otzarie, eruten deu an goidxen egurre, arixeri esate gentzon ori txirrinboli. Ta a kendu are otzara sarrari kentze dxakona artun da koño bueltaka ibiltte gendun, txirrinbolaka. Txirrinbolaka guk esate gentzon.* || *Txirrinboli esate tzeu biribilleri, egurresko orreri.* || *Txirrimoli da biribil bet geusie. Txirrimolie.* || *Guk e txirrimoli bai alan be bai. Baya gantxu eitte gendun orrek e, galdariñ astias.* || *Txirrinburdidxe? Umik lelengo oñes ikesi dabeniñ ipintte dxakena, txirrinburdixue. Lau alderdi eukitte ben, da ainketan sera, txirrimolatzuk eukitte ittu, korriteko umiek, da umi antxe sartu antxe sulotxutik, da antxe barrun itxitte.* || *Txirrimolie: arue. Aruek egote sin. Neu pe euki naben. Txirrimoli da arue, errementaridxe eitte ban, esta? Da areri eitte dxako beste burdiña bat olan, an olako angulutxuas da areas menejete san.*

txirrinbolaka, txirrimolaka. (TXIRRINBOLAKA) Rodando, girando. || *Bai, txirrinbolaka, seiñek geidxau ariñau juen urten barik, txirrinbolie.* || *Txirrimolaka eitte gendun guk or selaidxen.*

txirrinburdi, txirrinburdidxe. (TXIRRINBURDI) Tacataca, andador con ruedecillas en las patas para que los niños aprender a andar sin caerse. || *Txirrinburdidxe? Umik lelengo oñes ikesi dabeniñ ipintte dxakena, txirrinburdixue. Lau alderdi eukitte ben, da ainketan sera, txirrimolatzuk eukitte ittu,*

korriteko umiek, da umi antxe sartu antxe sulotxutik, da antxe barrun itxitte. Umik e oñes ikesteko antxiñe ibiltte gendusen, baya oñ e nik txirrinburdirik estaitt iñok ibiltte badeu. || *Txirrinburdidxe eukitte ittu txirrimola parik, erreillatzuk eukitte ittu, erreilla txikitxuk eukitte ittu, da umik korriduteko ixeten da.*

txirrintxol, txirrintxola. Zoquetillo que cierra puertas y ventanas. Ik. *txaramela.* || *Txirrintxolen sulue.* || *Txirrintxola katittu.* || *Itxi txirrintxola!* || *Txirrintxola trabeskue da.* || *Txirrintxola egurreskue eitte san, orrek gure etzien egurreskuk das. Da txirrintxolako sulue, trintxias eitte san a sulue.*

txirrist, txirriste. (TXIRRIST) Resbalón. Ik. *labankadie.* || *Labankadiri, bai, esate tze txirrist.* □ **txirrist ein.** Resbalar. Ik. *laban ein, prist ein.* || *Txirrist ein deu.* || *Txirrist ein, de jeusi ein nas.* || *'Laprast' da lenguk esate bena. 'Txirrist' oinguxiek esaten dabe 'laprast' bayo ariñau. Baya ostantzien len 'txirristik' entzun be esan eitten, 'laprast' bayo.*

txirri-txarra. (TXIRRI-TXARRA) (Andando) costosamente, lentamente. || *"Badxoik txirri-txarra": ibilkera ori, geldi-geldi.* || *"Badoi txirri-txarra" esaten dabenin ba, persona sarrari edo umiri edo batabateri, "Ibiltten badoille" esan gureko deu.*

txirritxirri, txirritxirridxe. (TXIRRITXIRRI, kilker) Grillo (*Gryllus campestris* etab.) || *Txirritxirridxen kaidxolie.* || *Txirritxirri sulu.* || *Kanteten deu txirritxirridxe.* || *Txirritxirridxen sulue topa dot.* □ **txirritxirri bedarra.** Hierba que se da de comer a los grillos. || *Txirritxirri bedarra: a loratzu ori eukitten deuna, txirritxirridxe jaten dabena, asidxe eukitten deu arek, olako garidxen antzera.* || *Txirritxirri bedarra da olan e asitzue. Asitzu ixeten da. Olan ser bat ixeten da txirritxirridxeri emote dxakona. Txirritxirri bakixu ser dan. Ba txirritxirri bedarra. Olan lora antzekue da. Kipurre, kipurre. Kipurtxu ixeten da bedarra.* || *Bai, bai, kanpun egoten da txirritxirri bedarra, landatan.* □ **txirritxirriten.** Atrapando grillos. || *Bai, ori da len esan tzutena. Olako me-metxu eukitten deu, da goidxen e asidxe urtete tzo. Lorie, asidxe dana. Da ori da txirritxirridxe ataraten da... Onako luseri eukitten deu. Bai, txirritxirri atarateko maña bi de de Jesus! Len txikitten txirritxirriten!*

txirritxorro, txirritxorrue. (TXIRRITXORRO) 1. Calandria, alondra. || *Se onek txirritxorro txoridxe, bakixu selakuk diren orrek, txirri-txorro-txirri-txorro-txirri-txorro ibilli diñak, ba orruxeri esate tzeu ori.* || *Txirritxorru kanpoko txoridxe da, ona etorten dire neguen, arek txiiri-txoooroooo!, da txirritxorro. Onek, gorrioi-eta onek, torretxoridxe esate tzeu, baya orrek bayo eundixau, apur bet, aundidxe es.* || *Orrek txirritxorruk paseku di. Orrek negun etorten dire, da amen ibiltten dire igul egunetan, da gero alten dabe ostabe. Txirritxorru. Bandak juten di orrek igul asko.*

Txikidxe di, biragarru lakoxi igul-igulak, baya txikidxau. Biragarru bakixu selako dan. Amen miragarru esate tzeu guk eta bestik biragarru esate tze. Guk miragarru beti, ta biragarru be askok esate tze. || Txirritxorruk txoridzek ixeten di ba. Arek beti txir-txir-txir, txor-txor-txor, txir-txir, txor-txor egoten di, da emen askok ori esaten deu, txirritxorru. || Txirritxorru txori txikidxe da. 2. Charlatán, -ana, hablador, -a. Ik. berbaldune. || Txirritxorru: ba, arek eitten dabe les, txoridzek txirri-txorro, txirri-txorro, txirri-txorro ixildu barik, olakue esate tzeu. || Ori dok txirritxorru! || Beti kontuk esaten daunari esate tzeu txirritxorru. || Txirritxorro garbidxe dok ori berbetan, beti berbetan dxabik. || Txirritxorro garbidx-ok ori be! || Txirritxorru les ekitte tzonari.

txirte, txirtie. (TXIRTA) Terrera; especie de alondra. Emiliano Arriagak *chirta* hitza batu zuen Bilbon eta definizio hau eman zuen: "Terrera; especie de alondra; Pájaro de color de tierra". || *Txirtak emen asko ibiltten dire. || Txigue da txoririk txikidxena. Txirti da tamañotxue, txirtí. Txirtak ibiltten dire bandak.*

txisparri, txisparridxe. (TXISPA-HARRI) Piedra de mechero. || *Txisparridxe: orrek eukitten dabena, metxeruk-eta. Bai, ixotzen deuna. A arridxe, arritxu ba, txisparridxe axe da. Da ba orre pe eitten dabe arridzek eurek ein be ori eitte tze, bai txispi atarate tze batzuk orri, baya txisparridxe arixe esate tze.*

txispe, txispie. (TXISPA) 1. Chispa. || *Txispak atarate ittu. || Olan arri bet ixengo da, erremintak sorroste ittuna, da txispak botate ittu. Serri, ta kodañe-ta olanik dekesenin, sorrostarridzek sorrosteko bayo aundidxau dekenien. Bai, gasteri esate dxako, ixates. || Txingerra: ori suteko ori, brasan deuna, txingerra. A sue, ero brasie gorri-gorri eoten da, ba arek satidzek esate tze txingerrak. Arkondaran igul txispas tak! inkeute, "Kaguen, txingerrak erre-ste!". 2. Chispa, borrachera. || Txispetxukiñ etorte giñen, baya alan be posik. □*

txispie artu. Achisparse, emborracharse. || *Txispie artu deu arek!*

txistada, txistadie. (TXISTADA) Llamada inarticulada. || *Txistadi da deklarau barik geuse bat eitti les, esaten eon bierrien eitte dxako Txiss!", olan eitteko. Edo bayetz esateko bardin, olan buruas-edo, baya berbagas es. || Txistadie ein tzet etorteko. || Txistadie? Txixsh! eitti les. || Txistadie? Esate baterako, Txiiiiissss! einde, txistadi orixe da, nai físss! txistutxue. "Txistadi ein tze" eta. Besti, kiñu da ba begidxas ero orras, edo igul eskuas be. Baya kiñu da begidxas ein bi dana. Kiñu, propidxu, begidxas ein bi da. Ori oin be useten da. Musin-de, edosetan or, "Kiñu ein tze". Bestik esaten dabe "Seiñi ein tze?" eta. □ **txistada bategas etorri.** Venir en un voleo. || *Txistada bategas etorri da.**

txistadaka. (TXISTADA) Llamando mediante sonidos inarticulados. || *"A be txistadaka dxabik", olanik seinde desafidxuk emoten les.*

txiste, txistie. (TXISTE) Chiste.

txistelari, txistelaridxe. (TXISTELARI) Chistoso, -a, persona que cuenta chistes. || *Txistelaridxe da e... orrek txistek-eta botate ittuna.*

txistu, txistue. (TXISTU) 1. Silbido. Nominatibo singularrean azentua lehenengo silaban dauka. 2. Saliba, esputo, gargajo. Nominatibo singularrean azentua bigarren silaban dauka. 3. Txistu, instrumento musical vasco. || *Tanboliñe ta txistue. || Txistu soñue. || Txistu joten dau. 4. Pene. || Idixille da sera, iskuen txistue, siketute ipiñitte. □ txistue bota.* Escupir. || *Txistú botati be gorru botati da. □ txistue jo. 1. Silbar. || Txistue jo deu. || Badxoik a be txistu joten. 2. Tocar el txistu. || Txistu dau joten. 3. Hacer chirriar el carro que lleva el arreo para celebrar la boda. || Burdidxen kajie, axe kajie, ta gero arexe darois orrasidzek. Orrasidzek darois de gero estutu. Txistu, txistu bakixu selan joten daun burdidzek? Estosu entzun? Bai, txirriñek, arriuas aintxiñe, beidzek txiliñakin-de. Da arek, a orrasidxe edo a burtartzin senbat estu ipinttosun, ba txirriñe geidxau deu arek.*

txistuke. (TXISTUKA) Silbando. || *Txistuke? Bai, "Txistuke dxabik", or e fiu te fiu te txakurreri tte "Kaguen, txakurreri txistuke deutze". Da bestela joten dana fi-fi-fi-fi-na "Txistu joten detze". Dana da ori... bata da txistu joten ibilttie, ta besti da deitzen ibilttie txistuke.*

txistulari, txistularidxe. (TXISTULARI) Txistulari. || *Tanboliñe joten len ibiltte siñak. Bata esku batas txistu da beste tanboliñe. Da bestik e esku bidxekin tanboliñe. Da etorte sin beti errire be bai, danatan ibiltte sin. Txistularidzek esate tzen areri, tanbolinteruk ero txistularidzek.*

txitxarrue. (TXITXARRO) Jurel, chicharro (*Trachurus trachurus*).

txitxe, txitxie. (TXITXA, txita-bat.) Pollito. || *Txitxak asi. || Txitxak atara. || Txitxie bayo geidxau estau jaten. || Saidxarri da txori aundi bat, txitxak-eta erute ittu. || Txitxie olluna da, a txikitxue, jaidxo ba arrautzatik urtendaku. || Beste batzuk kunak, orrek txitxak atara ta etorte dxakusen, baten bayo sarridxauten etorte dxakusen. || Ollue arrautzen ganin dau, txitxak ataraten. || Ori arturunas eitteu emen. Arturunas da olan txitxe txikitxu dekosenari ba emote tzeu. || Txitxie txikidxe daniñ e, ollun erreskadan ibili eitten da, ollu e mudi dabillen e, antxe ibiltten da. || Da one bestiok, katamixarra, basakatue, da one pa es sin jatekuk. Bronkuek. Orrek siren atrapau tranpan, da afesiñau ixate sanak eitte ittuen etzerik etze ibili, eskien. Orrek kalte eundidzek eitte bese les, ardidxen da olluen da orrek, txitxan-da. Orrek txitxe erute ben.*

Da ordun ibiltte siren eskien. Bakixu arek etzerik etze.

□ **txitxe lapurre.** Nombre con el que se llama al milano. Ik. *mirue*. □ **txitxara egon.** Empollar, incubar. || *Da gero ollue..., beiñ e txitxara dauniñ estau eskapetan, arrautza ganin denpora gustin.*

txitxi. (TXITXI) Perro (en lenguaje infantil). || *Txitxi, etorri ona, txitxi!*

txitxié. (TXITXI) Carne (en lenguaje infantil).

txitxiburduntzi, **txitxiburduntzidxe.** (TXITXIBURDUNTZI) Comida que se prepara en el monte; brocheta. || *Karnabaletan eitten da txitxiburduntzidxe. Ori da ba urdeidxe, txorixue, edo dana dalakue, ipiñi beko suten, da erreten dana. Da ogidxen artu gero.* || *Txitxiburduntzi: txorixuk-eta errete diriña, mendidxen-da, aintxiñeko modun, basun-de.*

txitxilinborlas. Insensato, -a. || *Txitxilinborlas? Bai olakuk esaten di. Ori da menespresidxu emoti bateri, "I as txitxilinborlas!" edo olaku.*

txitxirri mokorro, txitxirri motxorro, txitxirri txotxorro. 1. Torpe en el andar. || *"Txitxirri mokorro dxak bera be": ondo estabillela, albalboka.* 2. (Hablando) mal, torpemente. || *Da personi be berbetan-da ondo eitten deuna, es e an txitxirri mokorro-ta dabillena barik, moduskue. Askok esaten dau, gastetan, onek gastetxuk igul e saspisortzi urtekuk. "Orrek dxekok modue!", "Modutzu dok ori gero", berbetan be.*

txixe. (TXIZA, pixa) Orina. Ik. *garnue*. || *Txixe tokidxe.* □ **txixe posue.** Charco de orina. || *Umik txixe posue ein deu. || Bueno, txixe posue, esate baterako, beyen ganiñ umik txixe eitten badeu, da ba posutxue ixan deu, ta ba arixe esate dxako "Txixe posu ein deu!" || Txixe posue: iguel e txixe posue eitti, olan asko-ero eitten deunak "Or ariñ ein dxok txixe posue". || Da baitte solun be iguel len beidxek-eta busterridxek ibiltte sirin, da geldi be egon biste ben, da posu. Gero lurrien olaku eitte ben, "Kaguen, nok ein dxok txixe posu emen?".* □ **txixe ein.** Orinar, mear. || *Txixe ein bi-ot. || Txilibitue? Ba ser dala esangot? Txix eitten dana. Gixoneskuk txix eitten dabenari batzuk txilibitu esate tze. Da beste batzu pa esate tze, umik-eta pitu esate tze. || Konejuk txixe eitten deu asko. Kaka be bai, baya txixe asko, ta busti eitten dau les, "Ño orre dxekek basatzie!"*

txixelarri. (TXIZALARRI, pixagale) Ganas de orinar. || *Txixelarri da.* □ **txixelarriri eutzi.** Aguantar las ganas de orinar. || *Eutzidxok txixelarridxeri!*

txixeti, txixetidxe. (TXIZATI) Meón, -ona. || *Txixetidxe, beti txixe eitte dxak eta! || Txixetidxe da asko eitten deuna. || Txixetidxe: ba txixe daridxola dabillena edo olan ba. Sarri txixe eitten deuna.*

txixillo, txixillue. (TXIZILU, zizeilu-bat.) Pequeño banco largo con respaldo. || *Txixillue: olanik, butaka moduen, butakie barik, jarleku lusie, txixillue deitzen gentzon areri. || Txixillu esate dxakona, txixillue, olan mankal txikitxuri bayo esate dxakon..., da estaitt oin gurin badau txixillorik, len ainbeste denporan egon san, atzi dekona, egurresku ixaten da beres, da atziñ espaldi dekona, da arixerri esate gentzon guk txixillu. || Txixillue etartiñ eoten dan mankala da. Txixillu be geu payo geidxau geure amuma sanak eta aitte sanak esate tzen, da guk e mankala esate tzeu, kanpoko mankala.*

txixontzi, txixontzidxe. (TXIZONTZI, pixontzi) Orinal.

txo. (TXO) Exclamación para llamar a los muchachos. || *Txo, etorradi! || Txo, ori taketa loka dak. || Txo, ego adi, arantzie sartu dxatek. || Txo, kontun orreas, peligrasue dok eta.*

txoko, txokue. (TXOKO) 1. Rincón. Ik. *bastarra*. 2. Hogar, fuego bajo. Ik. *besue*. || *Txokue emen besueri esate tze. Beyen eitten dan sueri txokue esate tze emen.* 3. Txoko, sociedad (gastronómica). 4. Rincón, ángulo del frontón que resulta del encuentro del frontis y la pared de la izquierda. || *Txokora dxoik. || Txokora jote dxok.*

txokolatada, txokolatadie. (TXOKOLATADA) Chocolatada, convite a base de chocolate. || *Da ixete sirien, ser esangot neuk?, olan biribillak, astiñ-astiñek, da ibiltte sirien, nornor etorten danién-edo, arixerri ur goxu emoteko, edo txokolatadi eitten daniñ esateko noberak uretan ipiñi, basun-de, urtu eitte san-da. Arixi esate dxako asukarillue.*

txokolate, txokolatie. (TXOKOLATE) Chocolate. || *Basun su ein, esek su artzek esta lekuen, su ein, da txokolati eiñ antxe, da txokolatie artu, te atostie, basatostie. || "Esgauserik atrapetan badeu, ba estau isten, jan eitten deu". Da umik eitte ittu olako biarrak. "Esgausie ba, atrapetan badeu ba jaten deu", ixle lei esgausi ori sagarra be, ixle lei naranji be, da ixle lei ba ogi tte txokolati be, esgausie ba sasoi estaniñ atrapetan badeu, ba jan. || Txikerie ixete san txokolatie artzeko, txikitxue.*

txolin, txoliñe. (TXOLIN) 1. Borrachera. || *Bai, batzuk esate tze bai "Txoliñe atrapau dxok", baya guk e moskorra, guk e beti moskorra. || Moskorra da txoliñe. || Txoliñe: apur bet edandakun dauna.* 2. Cazo pequeño para beber. || *Txoliñe: a ontzixue, antxiñe egote sana, txoliñe, txiki-txikitxue.*

txolindu. (TXOLINDU) Poner(se) alegrillo, -a, achisparse (con la bebida). || *Txolindu: moskortu-edo eitten danién-edo: "Txolindute dabil". || Apurtxu bet biskortute daunari esate tze "Txolindute dabil". || Apur bet txolindute dxak. || Txoliñe? Bai, txolindute dxak" igul edanda daunin. Ba ori, ba gitxi useten da, emen*

moskorra esate dxako. Baya asko pai. "Txolindute dau". Berton be bai esaten da ori e!

txolot, txolota, txoleta. (TXOLET) **1.** Baso labrado de madera sin asas. Ik. *edamena*. María Angeles Alberdik "Etnografía de Gorocica" artikuluan (Anuario de Eusko-Folklore, 27. zk., 43. orr.) honela dio: "Bastante antes de la última guerra todos comían de un plato común y bebían del mismo bote 'txolet'". || *Txoleta? Edatekue. Basue, egurreskue, egurres eiñekue. Geurin be egon san lenau baya dana abadiri ta medikuri tte erute dxakosan aintxiñe da abadiri erun dxakon. Egon san basue, baso-basue, da me-me-metxue. Nik estaitt selan labraute egon san a. Memetxu ixan san. Egur utze.* **2.** Vaso hecho con un cuerno que se utilizaba antiguamente. Julian Bollar zenak eman zidan honen berri. Antzina Merikan ikusi zuen horrelako bat. || *Txolota, adarras eiñeku basue.* || *Ia, txolot bat ardau ekarri!* **3.** Cualquier recipiente para beber. Ik. *tangie*. Hurrengo adibideetan aipatzen denez, berba ahaztuxea dago, eta, antza denez, kontzeptua ere bai, edozein ontzi motari esaten zaio eta. || *Ure edateko ontzi, tanga txikitxuri-edo ba txolota esate dxakon, esate tzen lenguek, geuk estou usau esaten txolota baya. Ure-ta barik, edamena-ta barik, edamena be bai esate dxakon, da txolota be bai.* || *Txolota ontzi bateri esate dxako, ure edateko ontzidxeri.* || *Txolota: txokolatie-te eitteko, olan txikitxikidxue, astias-da.* || *Txolota esate dxako auneri ure edateko ontzidxeri. Antxiñekuek, lenguek, nire guresuek-eta txolota asko esate ben, da guk oiñ estu usetan esaterik e.* || *Txolota: ure edateko orrek e, ojalatas einde oten siñak.*

txomin. (TXOMIN) □ **txomin bedarra.** Acederilla (*Oxalis latifolia*). Nabarnizen *bermio bedarra* eta *lekitto-bedarra* ere esaten zaio. || *Txomin bedarra, bai, bakitt selako bedarrari esate dxakon. Geurin suertes estau baya. Ori esta ona. Negun estau urten. Orrek uden urteten deu. Da kalte eitte tzo ixen bi dabenari, ixen bi daben geuseri, nai indarrari, nai arturi, nai edoseri.*

txonbo, txonbue. (TXONBO) Corto, -a, pequeño, -a. || *"Txonbo garbidx-ok!" laburre ixen eskeru. Txonbue. Txonbue, txala txikidxe, laburre bada, nai beidxe edo ori, ba txonbue.* || *Txonbu garbidx-ok, lusi estok!*

txonbotu. (TXONBOTU) Mermar(se), quedar(se) pequeño. Ik. *bajatu, gitxittu, laburtu.* || *'Txonbotue' da asi es, "A txonbotute dator txikidxe". Igul, iguel ganadu be eukittosu, ganadu te laburre bada, "Txonbotu ein dok". A lusetu ein biarrien, "Txonbotu ein dok total a". Txikidxe. Esan guna, txikidxe bes, laburre.* || *Bai, landari be txonbotute. Igon es, bertan txonbotute geldi.* || *Ba ori be 'endekatute' be, ya siketute dauna ixeten da, indarri pari bixirik justo-justo. Ta 'txonbotu' da iguel ei tzesu lodittu bai, baya asi es. Alaku txatxar badau, txonbotute geratu bertan.* ||

Txonbotu: len laburtu eitti les, txonbotu. || *Txonbotute dxak.*

txondor, txondorra. (TXONDOR) Pira de leña para hacer carbón. Ik. *munteidxe.* || *Txondorra ixaten da ori, iketza eittekue.* || *Munteidxe txondorrari esate dxako, txondorragas eitten dan e... su emoteko ta ipintten dana munteidxe san.* || *Bai, gabas saindu ein bier ixeten da txondorra.* || *Jenerala senbat e txondorrak? Mille... Mille killokue txondorra politte. Da iru mille killo txondor desentie. Segun selako lekue ta.* || *Betegarridxe emote tzen seinde txondorrari lantxik.* || *Emen txondorra eitten etxak gatx. Emen berton dxak dana ta.* || *Ño, txondorrik eitten fasille etxak emen, se emen e deskomenentzidxan dxak geusi eta.* || *Iketza eitte san lelengo..., ori txondor larriñe. Bakixu, lekue. Da gero egurras bueltan-bueltan, da beteten senduenien edo egurres iduri, ekarte san mendittik bedarra. Bedarra edo otie. Otebedarrak. Da gero eitte san a otabedarra... Iduridxe... Iduridxe san erreneko lurre, bal-bal-baltza, es arririk e esebe bakue. Da gero aixe ganetik. Ondo tapau biste san, da erdidxe iste gentzon sulue, egurre sartute. Da gero eitte gendun sue kanpuen, da arexe bota palias, A egurren kendu, te brasie. Da gero egur metxukin su ein. Da gero a erre ala, erre ala jute san barrure da andik artze ban sue.* □ **txondor larriñe.** Era sobre la que se hace el carbón. Ik. *ikestoki larriñe, txondor lekue.* □ **txondor lekue.** Plataforma sobre la que se hace el carbón. Nabarrizen zabalak korritu duen hitza, berriz, *ikestoki larriñe* da. □ **txondor txabolie.** Chabola del carbonero. || *Txondor txaboli da txondorra saintzeko txaboli. Txondor txaboli. Eitte san egurresku ipiñi olan da soidxas tapau.* □ **txondorra egosi/egostu.** Cocer la leña en la pira de leña para hacer carbón. || *Txondorra egostu eitten da.* □ **txondorra kargau.** Montar o cargar la pira para hacer carbón. || *Baya bier asko aintxiñekuk. Txondorra, txondorra kargeti be bromi es san e! Trongo aundidxek lelengotan, jeneralien. Orrek sididxekin jota.*

txondorgin, txondorgiñe. (TXONDORGIN) Carbonero, -a (persona que hace carbón vegetal). || *Morokille da araso aundikue, da txondorgiñek e erresena: urdeidxe, txorixue, da jeneral orrexek.*

txongo, txongue, txonbue. (TXONGO) Cierta enfermedad de los nabos. *Txongue nabuek nahiz arbidxek izaten du.* || *Naburi txongu eitte dxakon. Txongu da, nabuna, arridxe moduku tukurre, da an tukurrien, onako tukurrek nabuk eukitte ittusen, da an kokue barrun. Sarri ikusi dot nik. Karik kentze ban a. Karik kentze ban a. Kari bota solora, se txongugaittik, se aintxiñe nabu artu bixate san. Nabu te dana. Bota karie, da erreten aste sin nabuk.* || *Txongotu, ero nabuk eukitten dabe txongue, beyen urtete tzon puntie, a*

tokotu, da esta asten nabu, gogortu eitten da. Txongu esate tzeu areri. || Txongu geixu da, ori kentze tzo karik. Soluri kari asko botaten badxako, txongorik estau. || Karias ori txongu kentzen da, erre lurre, da estau urteten. Oiñ e, leku askotan urten deu orrek txonguk. Oiñ erein be esta eitten naborik, gitxi bayo. Ba leku askotakuri urte tze txonguk. || Txongue: bai, granu-granuk urtete tze, txonbue esate tzeu eman, naburi be txonge esate tze. Granuk urtete tze, da jatekotta esta. || Beyen urte tzon..., puntan urtete tze, an puntan, da gorau, granu-granuk eukitte ittu txonguk. Axe da txongu. || Da kari emote esik, kendu esta eitten txonbue. Da kari emote eskerun estau urteten orrek. Gure solutan sekule estau urten, beti karieute egon dilako. Da beste eusutan igul askok txonbue, "Nabuk txonbu dxekok". || Txongu esate gentzon orri geixuri. Geixu san ori. Dana begidxe. Da barrun kokue. Da a kentzeko ixen san ona karie. Kare bixidxe. || Nabu balienti etxekuk, txongu dxok dana ta. || Ori txongu da nabuk eukitte ban geixo ba pe bai. Nabuk atrapete dxuan geixue soluen. Da arek eitte dxakesan bururi... Saldarra bakixu ser dan. Ontan granuk-eta urteten dauna. Arexen antzekue urtete tzen naburi, da etzen isten asten. Da areri esate gentzon txongue. "Ño, o, or solun be txongu dxak. Or solun kari biok". Se karik kentze ban a. Kari bota soluri... Aintxiñe kari eitte dxuan ba Loittidxan. Loittidxa bakixu nun dauen? Antxe on san karabidxie. Beidxeikiñ ekarte gendun.

txongotu, txonbotu. (TXONGOTU) Contraer los nabos la enfermedad conocida como txongo. || Naburi bai txongu eitte dxake, da ixeten da ba ustel antzeko geusa bat ixeten da, gogortasune, da ba txongotute ganadu pe estittu jan gure ixeten. || Txonbotu nabu eitten da. Naburi ainbeste bola eitte dxako beyen, da "Txonbotute dxak eta txarra dxak". A gogortu eitten deu arek, a txonbuk.

txonta, txontie. (TXONTA) **1.** Pinzón. (*Fringilla coelebs*) || Orrek etorten dire txontak —guk esaten tzeun klasik, buru gorritxu apur bet—, da edurre erun bi daunin, denporali ein bi dauniñ etorten dire orrek, negun, txontie. Guk areri esate tzeu, beste batzuk txontak pentzot ostantzeko txoridxeri, beste bateri esate tzela. || Txontak neguen etorten dire. Dotori txoridxek! || Txontie: burun eukitten daben luma, lixu barik apurtxu altutxu aukitten danin. **2.** Dinero. || Txontie ipiñi. || Txontatxue deko. □ **txonta burue.** Insensato, -a. Ik. buru bakue, gatzi bakue. || Txonta burue: bururik estekona.

txontxor, txontxorra. (TXONTXOR) Giba, joroba, chepa. Ik. konkorra, lepotie, jibue. || Txontxorra deko.

txopue. Chopo. || Txopue arbolu da. || Bai, egongo esta ba! Txopue asko, or errekonduan-da. Ariñ asten dana ori txopu. Bastue egurre.

txordue. (TXORDO) Cornigacho, -a. || Gu geuk txordu esate tzeu, olan bei batek olan e, adarrak olan euki biarrien, olan adarrak dekosenari, txordu da, bei txordue, adar txordukin. Eurrerans barik, olan apur bet barrurentz. Da olan adar txikitxue, apur bet barrurentz. || Beidxeri seri esate dxako? Beidxeri, adarrak e bi dan modun e olan estekosanari. Ganera urten..., olako bei asko be esta egoten, se olakuk estire asi be eitten. Da adarrak susen olanik beren estilun barik, olanik idxe alkar joten les eukitte ittue oker-okar, da aixeri esate dxako txordue, adar txordue.

txori, txoridxe. (TXORI) **1.** Pajaro. || Paseko txoridxe. || Txori banda. || Txori kantue. || Txori kantak. || Txori kunak. || Txoridxe txioka dau. || Txoridxe kantetan dau. || Kokue jaten estaben txoririk estau. || Txoritten jun da. || Txoridxek atrapate sin len lakidxuas. Oiñ estire eitten. || Txoridxek abidxie itxi ein deu. **2.** Moño, coleta. **3.** Espigón de bronce clavado en la base del eje del molino. Ik. aspiko txoridxe. || Txoridxe? One dekos piesa bat, onek ejik e puntas, beste bat trabes. Txoridxe esate gentzon orreri. Piesa bidxeri. || Txoridxe ixete san... fundidu eitte ben. Eitte ben estañue ta kobrie ta... iru klase. □ **txori abidxie.** Nido de pájaro. || Udebarridxen eskolarik egoten esanien mendire jueten giñen txori abidxak topetara. || Txori abidxe bat topo ot. □ **txori abistan.** Buscando nidos de pájaros. || Len txori abistan beti mutikuek. Gastetan ba txori abistan. || Txori abidxetan jun dire. || Sasi txori buru eundidxauku esate gentzon aundidxauri. Bestiri sasi txoridxe. Orrek sasidxen abidxie beti. Beti sasidxen. Len txori abistan mutikue e, bueno guk topeten abistan. □ **txori garidxe.** Trigo candeal. J. R. de Iturrizak honako hau dio gari mota honi buruz: "Los alimentos presentes se reducen a buen pan, por cuanto se coge trigo especial llamado valenciano, y vulgarmente galberia, o chorigarija, que molido en buenas ruedas y cernido en cedazos tupidos que los traen a vender los asturianos sale muy blanco, floreado y sabroso." (Historia General de Vizcaya, 135. atala). || Txori garidxe be egote san, xetxu ixate san txori garidxe, berau xetxu, baya onetan estimau ibiltte dan txori garidxe, estabela ludorik eukitten-da, ondo emoten dabela-ta. || Gari klasik bat payo geidxau daus. Txori garidxe ixete san garaun txikitxuauek, da esate ben, nik gurasuri entzunde, ixeten dala txikitxuauek bai, baya beste garidxek... Gari gorridxe esate dxakona egote san beste bat, gari garaun eundidxaue, da illuntxuau ixengo san, edo estaipa baya. Urune fiñena onetan txori garidxek emote ban. □ **txori galtzue.** Trigo de espiga pequeña. || Txori galtzue da garidxe buru txikitxue edo metxuaue eukitten dabena bestie bayo, baya oiñ ori be estaitt iñun eraitten bada, lenguk eraitte gendun baya. || Txori galtzue da burun txikitxuaue ta asten deu, baya ixeten da e..., se esangot

nik? Txori galtzue ixeten da..., oiñ erain be esta eitten galtzorik ta ya gari ogi suridxau ataraten dabena: txori galtzue. ☐ **txori jabolie**. Espantapájaros. || Txori jabolie da txoridxegandik jaboten dana da. Txoridek pikeu eitten dabe, esta? Da a ipintten da espantetako. || Nabasidxe urterako ereitteko etziñ artu bixten da, da txoridxek jaten dabe asidxe eldutakuen, bueno! Da orduen ipiñi ein bi dxako txori jabolie, guk esate tzeu, da beste batzuk txori mosolue. ☐ **txori kardue**. Hierba cana, cardo enano (*Senecio vulgaris*). || Txori kardue: orrek kardo txikidxek dire. Lora oridxe eukitten dabe, da gero surittu eitten da, iltten diriñin. Txori kardue aixe esate dxako. || Txori karduen asidxe jaten dabe txoridxek. ☐ **txori keixie**. Cereza silvestre (*Prunus avium sylvestris*). || Txori keixie ixeten da txikidxe. ☐ **txori kuna**. Cría de pajarito. ☐ **txori txiki**. Dinero (cuando es muy poco). || Lau txori txiki deketas da esin nei eser erosi, arekiñ esteket eser. ☐ **aspiko txoridxe**. Quicio de bronce sobre el que descansa el espigón clavado en la base del eje del molino. Ik. txoridxe. || *Aspiko txoridxe brontzie ixete san, fundidunekue*.

txoriburu, txoriburue. (TXORIBURU) Casquivano, -a, ligero, -a de cascós, cabeza de chorlito. || *Kaskallu: erdi txoriburu, estan tipoko bat, "Kaskalluori!"*. Se kaskallu bakixu one erreketan selakuk oten din. Axe esate tze askori. Esan gutena "Kaskallu garbidxok ori!". An erdi bururi pako, or detzonari esate dxako kaskallu.

Txorierrri. (TXORIERRI) 1. Nombre con el que entre los nabarniztarras también es conocido el barrio de Ikazurieta o Ikuista. || *Txorierrri kopradidxe*. || *Txorierrri esate tze bai, ta ori ixena estai nik nundik etorritteku dan*. || *Alan ipinttaku ixengo da ori. Txori asko. Se one arteitan da onetan txoridxe ibiltte san ba len. Oin be ibiltten da, baya len geidxau. Da nik estai andik etorritteku-ero, gure esagueran beti Txorierrri. 2.* Comarca del Txorierrri. || *Da amen Mungidxen-ero badau Txorierrri nonun*. ☐ **txorierrrikue**. Natural del barrio de Ikazurieta o Ikuista, también conocido como Txorierrri. || *Da Nabarrixen-ero olan esaten da "Txorierrriku ok ori"*.

txorierritar, txorierrittarra. (TXORIERRITAR) Natural del barrio de Ikazurieta o Ikuista, también conocido como Txorierrri. Ik. ikuistarra. || *Iguel Nabarrixera jun, de gu igul iru-lau-ero amenguk junde, "Onek txorierrittarra emen dxasa pa!"*. || *Da "I nongu as?" esan eskero, "Txorierrrikue"*. Da gero esan senidxo txorierrittarra. Ba ostantzin Txorierrrikue.

txorixero, txorixerue. (TXORIZERO) Pimiento choricero. ☐ **piper txorixerue**. Pimiento choricero.

txorixo, txorixue. (TXORIZO) Chorizo. || *Ogi bategas artik txorixo bat!* || *Ori gero orrek lorak*

bedinketu, te ba gorde, gorde edo kamarara-edo altzau eitten dire, enbasu eittekestan lekure ta. Orreri bedarrari eitte dxaken, olan trumoye geistue daunien-da, ekarri apur bi, bajatu goitttik, da ortun-edo su apur bet trumoi kalmetako eitte san. || *Beko sue ein, da egon e sortzi egunes-edo, ein sue beyen, da aixek botaten daben keyas siketzen dire txorixuk.* || *Txorixuk ein, de puxiki eitten da txaridxe iltten danin, ataraten danin putzittu, da aundidxau eitten da putzittute, da lusero euki gure diriñiñ e txorixuek, ba siketzen daniñ a puxikie, putzittuneko puxikie, ba sartzen dire ba txorixuk, baya iños eskendun sartu txorixo siketu bakorik. Siketu e txorixu pe, da sartzen siriñ antxe.* || *Txorixuk tantak botate ittue, tanta-tanta botate ittue ta gero siketu eitten dire.* || *Txorixuk ordun eguniñ estire eitten baya, dana dala, orixe da txarri gobernue.* || *Txorixo gosu di onek.* ☐ *Hona hemen lukeinkie eta txorixue berben arteko desberdintasuna: || Txorixuk eta lukainkak, ixetes, bat tire, baya txorixue ixeten da txaridxen okelias eitten dana, da lukainki ixeten da sesiñan okelias eitten dana.* ☐ **txorixo estie**. Intestino que se utiliza para hacer los chorizos. || *Txorixo estiek: txorixuk eitteko estiek.* || *Txorixo estie ba ixete san estuaue, ba txorixorako. se a txorixue sabala, aundidxe eiñ eskero, siketu est eitten.* ☐ **txorixu kordie**. Ristra de chorizo.

txorkue. (TXORKO) Corcho. || *Txorkue da botilleri sartze dxakona.*

txorokillo, txorokillue. (TXOROKILO, txorokilobat.) Locuelo, -a. || *Txorokillue esate dxako olan buru gitxikuri.* || *Txorokillue bada, beti buru barik ibiltten da.* || *Txorokillo garbidxe!*

txorro, txorrue, sorrue. (TXORRO) 1. Chorro. || *Ur txorrotxue. 2.* Grifo, llave. || *Tangadie da goti ixeti les. "Tangadaka dxak"*. *Igul ittoiñe egoten da ba de tangadak tak-tak, galdu. Txorro batek galtzen badeu be, tangadaka esaten da. 3.* Orificio por donde sale un líquido. || *Oiñ emen estau-te, geurin be len egote san potijue, txorrotxu bi eukitte ittu, bat txikidxe, ta besti eunditxuau.* || *Len mendire erute gendun potiju lureskue, lureskue ta alderdi batetik eukitte ban ba olan sorrotxue, olanik, da beste alderdittik eukitte ban sabaltxuau, da andixik e sera, sabaltxuau dekon lekutik itturridxen bete eitte gendun.* || *Potiñik eukitten deu..., alderdi batiñ eukitten deu txorrotxue, da beste alderdidxen estau eukitten txorrotxue, olako begitxu eukitten deu.* || *Da alderdi batetik eukitte ban txorrotxu, olan edateko. Da bestetik eukitte ban bera uras beteteko..., bueno eukitte ban olan sulo biribiltxue, da andixik bete eitte san itturridxen. A sulo biribile ixete san beteteko, ures beteteko. Da a txorrotxue eukitte bana beste alderdittik, ure edateko.* ☐ **txorrun**. (Tener) disentería. Ik. *beraskue euki, beraskuas ibili, pirrierie euki, pirripirridxe euki,*

siriñetan ibili, kaka siriñetan ibili, tripetatik egon. || Txorrun botate dxok. || Txorrun dxabik. || Igul e obrementu eitten sumin be, "Kaka siriñetan abil"-edo, bakixu. Edo "Pirripirridxe dekek"-edo. Bakixu pirripirridxe be igul, tripetatik sasenien, txorrun sasenien.

txorromorroka. (TXORROMORROKA) Jugando al juego del txorromorro. || Txorromorroka olgau. || Txorromorroka ibili. || Txorromorroka ein bidxu! || Jun bidxu txorromorroka eitten.

txorrostada, txorrostadie. (TXORROSTADA) Gorjeo de pájaro. || Txorrostadi: txorrugh! eitten deuna, txoridxe. Txoridxe igul txorrugh!, Txorrostadi ein dxok! Sosuk e kunak-eta txorrostadaka igul oten dire, kunak.

txorrostadaka. (TXORROSTADAKA) Gorjeando. || Txorrostadaka? Txoridxe eitte itunari txorrostadak. || Txorrostadaka txoridxe be bai, txorro-txorro eitten dabena.

txorrotxaille, txorrotxaille. (ZORROTZAILE) Afilador, -a. || Txorrotxailak bestik dire, arek "Cuchillos, navajas, tijeraaaaaa!"-ta jote ben a ori. Oiñ esta alako soñorik! || Bai, txorrotxallik danak eitte besan orrek, artasi sorrostu, nai geusa asko. || Ofalaterue. Txorrotxaili esate tze batzuk. Da bestik ofalaterueeee! Gualtias biar eitten deuna ofalateru da ixetes. Da orrek bidxetara eitten dabena egoten dire, ojalateru, da txorrotxaili. Baya diferenti da ojalateru. Ojalateruek ibiltte ban kajie lepun, da erremintak arregletaku, ta erremintta danak, onek sartenak eta. Ofalati ipiñi bi dxako. Ofalati ipinte tzen unizias. Da oiñ ofalateruk e dire ferreteidxako orrek e dire ofalateruk emen.

txorta, txortie. (TXORTA, sorta-bat.) 1. Manojó, fajo, rano, ramillete; sarta, ristra. || Larrosa txortie. || Kipula txortie. || Berakatz txortie enbrak eitten dabe. || Siri bedarra da olan txortak egoten dire, da olan siri bedarra esate dxako areri. || Txortie da asaue. 2. Trenza de pelo. Gaur egun trentzie ere entzuten hasi da.

txortatu. (TXORTATU, sortatu-bat.) Juntar en ristras, fajos, manojos... || Berakatzak txortatu dotas.

txosna, txosnie. (TXOSNA) Caseta de fiestas dónde se sirven bebidas y comidas. || Txosnie: olan txabolatxu bateri-edo.

txota, txote, txotie. (TXOTA) 1. Moño de plumas. || Txotatxue? Ser da, txoridxe eukitten dabena, gorritxu burun eukitten dabena? || Au kapelie egaberik eukitten deu, au txotatxue. || An burun eukitte daben txotie? Bai, txoti esate dxako areri. An buruen lumakiñ olan sera, txotie. || Txótie? Or eukitten dabena, baya onek emen ibiltten dirin txori txikidxe ainbeste estabe eukitten. 2. Gorro. Txotue ere esaten da. || Txotie? Bai, orreri egaberari be txotie, txotie esaten da onek burun

dabixen kapelari be bai. Onek amen, e onek mutil onek emen e beti ibiltten deu, oin be erungo ban. Da txotie. Kapelie esate tze batzuk. Txoti da txikitxu ba. Da kapeli ba aundixau ixeten da.

txotedun, txotedune. (TXOTADUN) Dotado de un moño de plumas (avefrías, etc.) || Da orreri txoridxeri be txotedune. Orrek e egaberak batzuk ikuste itue da "Koño, txotedunek!".

txoto, txotue. (TXOTO) Capucha. Txotie ere esaten da. || Txotue euki deu buruen. || Umin txototxue. || Guk emen saku usete gendun len biarrerako. Txoto ein da... Onek naparrak da onek usete ben ardi narrue. Ardi narruas einde... Da es siren busten. Alantxik eitte ben biar arek.

txotorra. (TXOTOR) Orzuelo. || Begi txotorra. || Txotorra: urteten dabeniñ e begidxen, emen edo anedo, urteten dabeniñ-e alako ser esangot nik?... txotorra esate gentzon e, ixena be astute deket oin..., olako... urteten deu txotorra esaten gentzonin, olanik gonatxu bat-edo, da ba arixeri gonatxuri txotorra esate gentzon. ☐ Hona hemen txotorraren aurkako erremedioa: || Ur irakiñe, epeldunekuas garbittu, besterik es. ☐ Begian txotorra irteten denean, honela esaten da: || Txotorra da lagunek-eta olan esate tze "Eperdidxe ikusi tze ik orreri!". Estosu sekule entzun ori? Begidxen urteten deuna, txotorra esate tze.

txotorrue. (TXOTORRO) 1. Moño de plumas. Ik. txotie. || Txotorrue arek gora eukitten dabena, egaberak. 2. Gorro pequeño. Ik. txotie. || Ba, ori suk esan dosuna, txotorrue, kapela txikidxe edo olaku, txotorrue.

txotxo. (TXOTXO) Voz para llamar a los muchachos. ☐ txotxotan. De crío. Sin. umetan.

txotxoaldi, txotxoaldidxe. (TXOTXOALDI) Periodo en que las personas de edad adoptan comportamientos más propios de los niños. Ik. umealdidxe. || Bai, konbersetako, igul edadeko bat da... Edo boda batera jutas gaste artin. Neugaitti pe bai, sorakeidxak, edandakun bakixu, sorakeidxak, "Orrek e, umealdidxe dxekok geur!", edo txotxoaldidxe-edo bakixu. "Erdi soratu dxak ori geur"-te, alakoxe berbak, bakixu.

txotxola, txotxolie. (TXOTXOLA) Lela, simple, necia, boba.

txotxolo, txotxolue. (TXOTXOLO) Lelo, simple, necio, bobo. || Su sara txotxolue!

txotxolokeri, txotxolokeridxe. (TXOTXOLOKERIA) Ligereza, frivolidad. || Txotxolokeridxe esate ittu.

txotxolotu. (TXOTXOLOTU) Entontecerse, atontarse, embobarse. || Txotxolotu ein da.

txotxotu. (TXOTXOTU) Entontecerse, atontarse, embobarse. || Txotxotu: umekeridxe eitten dabillinari-edo.

txuku-txuku. (TXUKU-TXUKU) Onomatopeya de la acción de mamar el niño el pecho de la madre. || *Txuku-txuku: bularra edaten dabenin bai, biberoye artzen dabenin bai: "Txuku-txuku artzen deu"*.

txukun, txukune. (TXUKUN) Adecantar(se), arreglar(se), acondicionar || *Txukun: bai, geuse bat, ondo einde dauna, edo garbidxe-edo: "Txukun dau einde."*

txukul, txukule. (TXUKUL) Tostado, -a, dorado, -a, quemado, -a. || *Txukule deko.*

txukuldu. (TXUKULDU) Tostar, dorar, quemar. || *Txukul? Bai, esate baterako, alderdi bat e txorixuri errete dxakoniñ-edo: "Txukuldu dxako oneri alderdidxe"*.

txukundu. (TXUKUNDU) Adecantar(se), arreglar(se), acondicionar. || *Etzie txukundu deu.*

txulokeridxe. (TXULOKERIA) Chulería. Sin. *elegantekeridxe.* || *Txulokeridxetan dxabik.*

txunga. (TXUNGA) Chanza, broma, chunga. □ **txungan.** Bromeando. Sin. *broman.* || *Desteñi da seinde erreso bat esati, eitti lakue, seinde txungan besti adar joten eitte dxako ba, da alan esaten da: "Desteñaka, destañaka!"*

txuntxur, txuntxurre. (TXUNTXUR) Chichón, bulto, prominencia. || *Txuntxurre? Bai, tokorrari, olan igul urtete tzu, ori te "Txuntxurtxue urten tzek golpik"-edo.* || *Buruko orreri be, txuntxur, buruko txuntxur.* □ **eperdi txuntxurre.** Prominencia del trasero. || *Eperdi txuntxurre: Olan igul e ori be atzera luse-edo dekonari, eperdi txuntxurre.* || *Eperdi txuntxurre bayo geidxau emen e eperdiko asurre esate dxako. Eperdi txuntxurre eperdi urtena dekonari-edo olan txuntxurre esango dxako.*

txupadore, txupadorie. Gorrón, -ona. Ik. *sakerue.* || *Sakerue: bestiña txupeten dabilienari. Ba iguel e, orrek e juten da bat edo bi juten di, da beti batena eitten, gasta. A besti txupadori esate tze.*

txupeu, txupeten. (TXUPAU, txupatu-bat.) **1.** Chupar, absorber. || *A akena gorri-gorri ixeten da jeneral, gorri illuntxue. Da arek odola txupeten dabela esaten dabe baya, txupeu ingo deu.* || *Akenak burue aragidxen barrun sartzen dau, odola txupetako.* || *Artie, artie esta asetzen, nekes, a egur gogorra da les. Da onei biguneri ure eitte dxako, txupau eitten deu ure barrure, da gero ase.* || *Gero pixu emote tzo urek. Artu te txupeu eitten deu te.* || *Pataridxe danak estabe jaten igul. Es. Onek aseridxe odola txupeten deu emenditxik. Da ementxe agin suluk eitte ittu. Emen, gorgoille edo albotik. Ordun bakixu aseridxe ixen dana.* **2.** Adelgazar excesivamente. Ik. *argaldu.* || *Ondo txupeute geratu dok ori.* **3.** Gorronear. || *Sakerue da geusa bat e ba... Se esango tzu pa? Txupetan bestiña dabilena ero olako.*

txuringe, txuringie. (TXURINGA) Sieso, el ano con la porción inferior del intestino recto. Emiliano Arriagak *suringo* hitza batu zuen Bilbon; definizio hau eman zion *suringo* hitzari: "Otros le llaman *uscoy*. En castellano es *sieso*". || *Txuringie esate dxako eperdiko estiri-edo. Estie, a askanengue-edo, beren goran satidxeri-edo, estaipa nik, ganadun siri alan esate dxakon, txuringie.* || *Txuringie esate dxako eperdiko suluri-edo, txuringie.* || *Es, amen uskidxe olanik, uskidxe, bai, aittu eitten da uskidxe ser dan, baya olan esates uskidxe bayo ba, txurinkie geidxau esango da.* || *Txuringie, ori txuringie, txarridxen txuringie, askanengo estie, korotza eitten daben lekuko axe da.* □ || *Bueno, animalidxeri be, beidxeri edo olanek, ba, se beidxe, batzuk, olan txal asko einde dasenak-eta, urrengo txala eitteko daunin, ya edadi eurreradoiten-da, agertu eitte dxake, se esangot neuk?, txuringi ori agertu eitte dxake, gorri-gorri ixaten da, da agertu eitte dxake, ta ba ya estabe balidxoten ba busterridxen ibilteko..*

txurku-txurku. (TXURKU-TXURKU) (Beber) pausadamente pero abundantemente. || *Txurku-txurku edati: geldi-geldi-geldi-geldi edan, asko edatie. Geldiro ta edan, edan. Ba "Txurku-txurku edan ein dxok orrek!".* || *"Txurku-txurku-txurku garbittu eitte dxok". Geldi-geldi, baya edan sano.*

txurruin, txurruipiñe, txurrunpiñe. Traguillo, trago de vino o licor (familiarmente). Normalean emakumei buruz esaten da. || *Orreri be txurruin gustaten dxako.* || *Txurruin da ya edaten dana da txurruin. "Txurruipiñ eitte dxok ak politto!", larrei edaten deunari-tte esate tze jeneralin. Ostantzin ba "Trago bat ingo dxu, edo beste bat", baya olako edanda dabilienari-tte esate dxakon len, da oin be bai || Txurrunpiñ edo tringaute itxi dxok.* □ **txurruipiñ ein.** Beber (alcohol). || *Orrek txurruipiñ ein dxok eta! || Txurruipiñ eindde dxak.*

txurru-txurru. (TXURRU-TXURRU) (Beber) pausadamente pero abundantemente. || *"Txurru-txurru edan eitte dxok": ori da ba beti geldi-geldi edan, da txurru-txurru.* || *"Orrek txurru-txurru eitte dxok", moskorra-ta artzen dabenak, "Bai, txurru-txurru eitte dxok orrek"-eta.*

txut. (TXUT) Exclamación de calor. || *Txut: bero aundidxe daunin. Txut, erre-iste!*

txute. Canalizo estrecho que se utiliza para recoger la madera del monte, bajándola arrastras por el mismo. Alfonso Irigoien en arabera (*En Torno a la Toponimia Vasca y Circumpirenaica*, Deustuko Unibertsitatea, 57. orr.), Nabarniztik hurre, Murelagan, *aldai* esaten zaio. || *Txute len usete san, or piñuk nai arbolak botateko ibilte san, da goitti bera daun aldapa baten bera, txute. Oiñ esta usetan olakorik. Oiñ arrastadorie, edo tirekie.* || *Txutin: surek mendidxen ebate ittuena,*

olanik goitti bera botate ituenak. || Batzutan kamiorik sartzen estan lekun be olanik botateko leku daun lekun e: txutin. || Txuten? Jeurtitzie, sera baso espalda baten eitten da kanala, kanala ipintten dosu, de txute da antxe jeurtitzen dan e sera. An jutun dire. || Txutien: goittik bera arbolak botatie. || Txutin bera bota. || Txutera jun dire. || Txutin dabil. || Oiñ esta txuterik eitten, baya len bai. || Arbola bat botata ba, goitti bera bota biar bada be, askoras botata-edo, sakatu, te botaten dana, axe da txutin.

txutxumutxu, txutxumutxue. (TXUTXU-MUTXU) Cuchicheo, murmuración secreta. Ik. *sesana, kontue*. || *Txutxumutxu dabil*. || *Bautzo orrek tutxumutxu oin be!* || *Orrek boutzo txutxumutxu!* || *Antxe txutxumutxu, txutxumutxu!* || *Txutxumutxu deuzo*. || *Txutxumutxu eki tze*.

txutxumutxuke. (TXUTXU-MUTXUKA) Cuchicheando, murmurando, criticando en voz baja. || *Txutxumutxuke bautze*. || *Txutxumutxuke badabil*.

3. U letra

uarka, uarkie. (OHARKA) Cuja, armazón de la cama. || *Len egote siriñ arek uarkak*. *Geurin be egon sirin, oin kendu sirin baya*. *Arei...*, *ser esango nik?* *Alako goi biribille eukitte ben, baltz-baltzak eurek*.

udaletze, udaletzie. (UDALETXE) Ayuntamiento. Hitz erabiliena, ordea, *ayuntamentue* da. *Udaletzie* hitz berria da Nabarnizen.

udaldi, udaldixe. (UDALDI) Temporada de verano, periodo estival. || *Udaldi laburre: Bai, eurten be estaitt lusie eingo badeu*. *Oiñ arte estau eitten*.

ude, udie. (UDA) Verano. || *Udeku etiketie*. || *Udeko modara jantzi*. || *Udan-da esta bota biar materidxala gordetekue; a ein bi da orridxe jeusitte, negun-da, a estau sitzek jaten*. || *Udako lorak dire*. || *Garidxe loran egoten daniñ ude-udiñ ixete da les, ba udan esta egoten askordiñik*. ☐ **ude betie**. Pleno verano. ☐ **ude denporie**. Tiempo propio del verano. Se usa, por tanto, aunque se esté en otra estación.

udebarri, udebarrixe. (UDABARRI, udaberri-bat.) Primavera. || *Udebarri bueltan*. ☐ **udebarrire**. Hacia primavera, sobre la primavera. || *Allurbie bedarra da, ganaduri emote dxakona*. *Ori jeneralien ba ereitten da udebarrire, da olanik*.

udegona, udegune. (UDAGOIEN, udazken) Otoño. || *Udeguneko perretxikue*. || *Idie beres eltzen da...*, *udegoniñ esango neke nik, udegonin, edo negu partera, da ba "Idal eldute das", edo "Gorritute das", se idi gorritutu eitten da eltze danin be, da ba se esangot nik?, e, "Idi eldute dau"*. *Baya orrek san jun idak-eta, orrek estire gorritzen udegoneko idi modun, orrek suri*

gelditzen dire, suri, edo berde. || *Senoridxe? Ba untxe edo udegoniñ-edo, da ya ude gustiku emoten deu, nai udegoneku be bai*. *Da kastetan da bi danin, noberak*.

uetz, uetza, ugetza. (UGATZ) Mama, glándula mamaria. || *Uetza? Oiñ estaitt iñok badakin ser dan uesa baya*. *Uetza titidxe da beres, titidxe emoten daben esnie: uetza*. *Umiri emote dxako*. || *Amak umiri emote tzon esnie, len uetza esate ben; oin bularra esate dxako, titidxe esate dxako, da oiñ uetza ser dan badakidxen be nik estaitt oingo umik edo oingo gastik*. || *Uetza esate dxako beidxe txala einde segidxes les daunien, arixeri esate dxako ugetza*. "*Ondiño ugetza deko*". *Ser dala esangot ugetza? Ugetza seri esate gentzon? Eskentzon esaten e beidxe txala einde ordun segidxen eukitten daben esniri? Bai, arixeri esate gentzola pentzetot ugetza*. || *Bai, titidxeri esate dxako, personin titidxeri be, ugetza*.

ugel, ugela. (UGAL, uhal-bat.) **1.** Correa. || *Ediek busterridxe lotzeko ugelak dire*. || *Da palo bat eukitten deu olanik eusteko, da palo naiku lusi ta egoten da, beste palo bat eukitten deu ugelas jositte puntan, da orrixeri esate dxakon txipitti*. **2.** Cinturón. Sin. *sintturie*.

1 uger, ugerra. (UGER, herdoil; zolda) **1.** Herrumbre, roña. || *Ugerras jositte dau burdiñie*. || *Galdatxue an dau geurin be ugerres beterik, an, jun daneko urtes ibili be estin-de*. || *Sikotza danari esate dxako ta ba bier gitxi eitten dabenari be ba "Ugerra jaten egon gurau ixaten deu bier ein bayo"*. **2.** Mugre, costra, roña. Ik. *sikiñe*. || *Sabaloidxe ugerra les urteten deu*. || *Ugerras dxabik beti*. **3.** Pelma, pesado, -a. Umeei esaten zaie. || *Kendu seittes ortik, uger ori!* || *(Personiri?) Bai, olanik e, asarratute dauniñ-edo, umiri-edo, atan be esate dxakon "Uger ori alakue!"* ☐ **ugerra lakue**. Pelma, pesado, -a. || *Ugerra lakue geldi egon esiñe dalako*. || *Ugerra lakue, au ein dost!*

2 uger. (UGER, igeri-bat.) ☐ **uger ein**. Nadar. *Igeri ein gehiago esaten da*.

ugera, ugerie. (UGARA) Varal, palo que sujeta la carga del carro por encima de ésta. Nabarnizen *ugerie* esaten da, baina beste herri batzuetan esaten den *gañerie* berba ere ezaguna da. || *Ugerie, bai, narranari be esate dxako, da burdidxenari be bai*. *Ugerie da narrari guk ipintte gentzona, ganetik, atzera, egurre*. *Sulue einde dekona, da esarte dxako espatan, da ugerie*. || *Gañerie beste batzuk esate tze*. *Gañeri ba goittik jutun da*. *Ugerie beti lotzeko da, a ugeri ipintte dxako amendik ona, baya gero sokias emen lotu*. *Da ganetik jutun dan les, ba gañerie, da ugeri guk beti*. || *'Ugerie' da burdidxe goittik lotzen dxakona*. || *Burdidxen, edo narren gañeri da, baya guk gañeri esteutzegu esaten*. *Esaten tzeu... ugerie, emen esate dxako ugerie*. || *Espati da ori*. *Da bestiri ugeri*. *Ugeri an sartun da atzera eitten da*. *Espatan sartzen da, olako sulu deko da an sartzen da, da sididxe an eitte*

dxako sididxe sartun, da atzera, gora nai bera eitten deu. Or kargeti dxako kargie, da andik gero sokias an atzin lotun. || Antxe sartzen da ugerie, antxe espatan.

|| Da atzien ugerik eruten deu beste soster bat. Andik ara, an sokie alde bistara lotun atzien olanik bera. Espatie ta ugerie. Da gero onek albokuk taketak esate tzeu.

ugeri, ugeridxe. (UGARI) 1. Abundante. Ik. *largu.* || *Urridxe esate dxako gitxi danari, da ugeridxe ba, ugeridxe da asko eitten deuna. || Bedatza aundidxe da ugeri dau. || Sagarra ugeri dxak an. || Selako ugeri dau! || Artue, arto urune, da gari urune nastaute, ba ugeridxe urten deidxen-edo eitte ben ogidxe. || Okan suridxe esate gentzon, baya ugeridxe! 2. Parlanchín, -a. || Berbetan kontuk esaten asko eitten deuna, ixildu barik: “Ño, ori ugeridxe dok! 3. Mentiroso, -a. || Ugeridxe ori da ugeridxe! 4. Inquieto, -a, nervioso, -a. || Ume ugeridxe.*

ugerritesun, ugerittesune. (UGARITASUN) Abundancia, riqueza, copiosidad. || *Ugerittesun aundidxe dau! || Astue? Olako taket bana artun, de goitti bera plast eta plast eta plast-eta, garaunek bera, da koskorak artun, de... bera be koskorak igul batzuk pasetan dire iguel. Baya ugerritesune auri ixete san.*

ugerritu. (UGARITU) Aumentar mucho, multiplicar. Sin. *askotu.* || *Ugerittu ein dire bedar txarrak. || Frailleulidxe: orre pe..., bueno, udan, bero eitten dabenien, mendidxen-da ugerittu eitte dxakos ganaduri. Gero otzak asten diriñin beres eskutetan dire. || Pagotxa, ori batzuk..., guk emen prantzesa esate gentzona, orreri bedarrari. Oiñ erain be esta eitten. Len eraitte san, nabu eraitte san lekun-edo, ba gana jatekue ugeritzeko.*

ugertu. (UGERTU, herdoildu) Herrumbrarse, oxidarse los metales. || *Ugertu da bixagrie.*

ugertzu, ugertzue. (UGERTSU) Herrumbroso, -a, mugriento, -a, cochambroso, -a. Ik. *sikiñe.* || *Ugertzue? Ugerra dekon geusa bat, burdiña bat, uger asko dekona.*

uidxe, oidxe. (OI) Encía. || *Goiko oidxe. || Beko oidxe. || (Agiñe urtekeran:) Bueno, estidxe, euki estidxe, edo ekarri edo ba len jeneral etziñ eukitte gendun estidxe, erlik euki gendusenda, ba erlio pa banan-banan il siren-da. Da ba estidxe bota uretara, urtu da uidxek iguste gentzesan.*

1 uidxel, uidxela. (OIHAL) 1. Mantilla de ls mujeres. || *Len esate san uidxela, da oiñ estaitt nik esaten badan uidxeli pe. Uidxela jeneral esate dxakon, bai, gausa bateri bayo geidxauri. Esate baterako, len elixara juteko mantillak ipintten sirien, emakumiek, danak mantillak. Suk es sendun esetuko iguel, edo bai. Ba mantillak, uidxelak esate dxaken. Ariñeuko ixena, —mantillak, gero mantillak esate dxaken— baya ariñeuko ixena, gure amumak eta amak-eta uidxelak*

esate tze. Da umin trapuri be, ume sapidxek, umiñ uidxela pe bai. || Uidxela be asko-asko esta esaten, baya oingo gastik jakiñ estabe eingo ser dan uidxela be. Baya uidxela, emen uidxela esate dxakon len —oiñ e elixara be esta eruten baya— burun eruten dan mantilli, mesi entzuteko-edo elixara jutun danin, arixeri burun erute san mantilliri, arixeri esate dxakon, euskeras esateko, uidxela. 2. Pañal. Umin trapuek edo umiñ erropak ere entzuten dira sarri. || Bueno, emen berton e mantarrari uidxela ainbeste es. Axen mantilleri esate dxakona bakitt. □ uidxeletako umie. Niño de pañales. Ik. mantutako umie. || Uidxeletako umie txiki-txikitxuri esate dxako. □ Lehen mantarretako umie nahiz uidxeletako umie esaten zen, baina gaur egun nahikoa galduta daude hitz horiek, ondoren esaten den bezala: || Oin nik esango neke bata, ta besti estiri esaten, oingo umiek, oingo gastiek mantarretako umi ser dan estabe jakingo, ta uidxelak sertzuk diriñ estabe jakingo.

2 uidxel, uidxela. (UIEL, uholde-bat.) Crecida o desbordamiento de las aguas de los ríos. || *Uidxelak karkabie ein deu or.*

uidxeldu. (UIELDU) Mojarse completamente, empaparse. Ik. *busti, melau.* || *Total uidxeldu nas. || Uidxeldu dire eskiñak.*

uidxelta, uidxeltie. (UIELTE) Temporada de aguas torrenciales. || *Uidxeltie: axe, alako euri asko-ta, uidxeltie, egun askotan eitten badeu: “Uidxeltie ein deu.” || Uidxelta lusie egon da. || Uidxeltie euki du.*

uketu. (UKATU) 1. Negar. || *Geuse bat esan, da gero estabela esan esaten dabenin: “Uketu ein deu”. 2. Desistir del empeño, desertar, abandonar. Ik. atzera ein, kale ein, ok ein, toton ein. || Uketu: noberak ein gure dabela be esin lei, da ba uketu. || Uketu ein dxok orrek. || Kantzaute total geratu da, uketu ein deu. || Biar asko, ta kantzaute badau: “Uketu ein deu”. || Uketu: eittie pentzau, te sertzie. Selan esango tzut pa? Gero estoila, estoila eitten. “Neuk eingo dot ori”, de gero enoi eitten: uketu. || Uketu ei ban ak, agindu ei ban baya. || Jokue ipiñi, da atzera ein: uketu.*

ukondo, ukondue. (UKONDO) Codo. || *Eutzi ein tzo ukondun kontrara arpi.*

uldu, ultzen. (ULDU) Perder el pelo. Ik. *mistu.* || *Uldu: jeusi eitten bada ulie, orreri uldu esate dxako. || Uldu? Bai, laguneri be bai, ta uldu, edosein patariri be bai, uli jeusten badxako. || Apur bet jeusten dxakonin, ba “Ultzen dau”, da asko jeusten badxako, ba “Uldute dau”. || Uldu eingo da. || Ultzen asi da.*

ule, ulie. (ULE, ile-bat.) Pelo. || *Ule astiñe. || Ule lixue. || Ule ligorra. || Ule postixue. || Ule gorridxe. || Ule gogorreku da. || Gaste ule luse bat. || Ulie deko kiridxolatzak les. || Orrek teko ulie! || Ulik urte tzo. || Ikusi dxatek ule suririk? || Emen ingles, pointer da*

seter. Seterra da uletzue, ule askokue, da pointerra ule laburrekue. || *Ardidxen ulias eitte san aridxe, da aras aridxas eitte san telie.* ☐ **ule astiñe.** Pelo desgrefinado. Ik. *ule saputze.* ☐ **ule ebataillie.** Esquilador, -a. || *Eskilladorie uli ebataillie da.* ☐ **ule ederra.** De mucho pelo. ☐ **ule griñe.** Greña. Ik. *sapala.* || *Olan griñakiñ ibiltten diñ umiri be bai tte.* ☐ **ule kirimillaue.** Pelo rizado. || *Ule kirimillau deko.* || *"Txirikillus beteneku deko" be esaten da, baya ule kirimillaugas ibiltten da.* ☐ **ule kispau.** Pelo rizado. *Ule kirimillaue baino gehiago entzuten da.* ☐ **ule lorriñe.** Pelo revuelto. ☐ **ule makala.** Pelo débil, de poca consistencia. || *Ule makala: bai, ule..., urteyeran-da umi pa batzuk e makal-makala eukitten dabe ta nekestxuau urten be eitte tze ta alaku bai, ule makala bai, "Ule makala deko", "Ule makaleku da", "Ule mengelekue".* ☐ **ule mengela.** De poco pelo. ☐ **ule metxada.** Pelo débil, de poca consistencia. || *Ule metxada: ba geusestana-edo, mengela.* || *Ganorabako ulie: ule metxada dekonari, "Ganorabako uli lakue".* ☐ **ule metxala.** Pelo débil, de poca consistencia. || *Ule metxala: ule indar baku-edo.* ☐ **ule mitza.** Pelo ralo; cabellera que ha perdido pelo. Ik. *ganorabako ulie.* || *Ule mitza? Ba buru sarratu estauna, apur bet mitzau dauna.* ☐ **ule saskillek.** Pelos desaliñados. || *Neu pe ule saskillek deketas.* ☐ **ule saparie.** Greñas. || *Ule saparie? Bai, orrastu bari dekona.* || *Orrastute daunari etxako esaten saparie, saskille dekonari bayo.* || *Selako ule sapari deko.* || *Orrek daroi ule saparie!* ☐ **ule sapie.** Greñas. || *Orrek deko ule sapie!* ☐ **ule saputze.** Pelo desgrefinado. Ik. *ule astiñe.* ☐ **ule sarra.** Pelo viejo. || *Prantzes bedarra, ederra. Orri ederrak. Udebarridxen ganaduri emote dxakona, ule sarra botateko.* || *Ule sarra botateko, ona. Apur bet siriñe eitten deutzo. Prantzes bedarra geusa ederra.* ☐ **ule soltie.** Pelo suelto. || *Bueno, trentzi be trentzi ixeten da ta baya, kopeti jeneral guk e soltiri esate tzeu, ule soltiri.* ☐ **ule suridxe.** Cana. ☐ **ganorabako ulie.** Pelo débil, de poca consistencia. || *Ganorabako ulie: ule metxada dekonari, "Ganorabako uli lakue".* ☐ **ulie artu.** Tomar el pelo. *Adarra jo ere esaten da.* || *Ulie artzen abil i!* || *Ulie artu-ste.* || *Ulie artzen dxabik a be.* ☐ **ulie ebei.** Cortar el pelo. || *Ori uliori ebei ein bi dosu.* || *Ulie rape ebei dot.* || *Arrasto ebei ulie? Ba soldautzan.* || *Emen umiri-tte esate dxake, uli xi-xi-xi-tte ebeitte eukitten badabe, sorrIDXek dekoselako, edo seosegaittik: "Buru gorridxen itxi dabe".* || *Uli sero ebei! Rape jun giñenin. Asi eurrin de atzera. Da akatza ta abarra-ta. Ala eurrera! Bai, soldadutzi gogorra ixen san ordun be, bai, soldadutzi be.* ☐ **ulie jantzi.** Crecer el pelo, cubrirse el pelo. Ik. *uletu.* ||

Ulie jantzi dxako. ☐ Erdarazko "encanecer, poner cano, saler canas" esateko, modu biok erabiltzen dira: *Ulik surittu dxakos nahiz Ulik urdindu dxakos.* Dena den, *surittu sarrago entzuten da.* ☐ **ulie mistu, jeusi.** Caer el pelo. || *Selan mistu dxako ulie!* ☐ **ulie juen.** Caer el pelo. || *Legana ori, seinde, geixu da ori, inketen dana or, edonun legana eukitten deu. Ganadu pe, ulie jute dxakuen leganas.*

ulekera, ulekerie. (ULEKERA, ilekera-bat.) Peinado, manera de llevar el pelo. || *Orrek dxok ulekerie!* || *Ule txarto orrastute-edo, da "Orrek dxekok ulekerie!".* || *"Ulekera eskasa dxok orrek", igul ule bastue ganaduk, da ulekerie esate tzeu. "Ule fiñe dxekok" edo "Ulekerie eskasa".*

uletu. (ULETU, iletu-bat.) Cubrirse de pelo, crecer el pelo. Hau baino erabiliagoa da: *Ulie jantzi dxako.*

uletzu, uletzue. (ULETSU, iletsu-bat.) Peludo, -a, lanoso, -a. Ik. *lanatzue.* || *Uletzu dxak.* || *Uletzu da.* || *Bernak uletzu dekos.*

umau, umaue. (UMO) (aplicado a la fruta) Maduro. || *Sagar umaue: ori da ya eldute dauna, da eldute bakarrrik es, sagar umaue da ya goigurun, edo kamaran dauena ba eldu-eldu einde, a useiñe botaten daunin, sagarrak umautute daus.* || *Sagar umaue oritutakue da, ondo eindakue.*

umautu, umotu, umautzen. (UMOTU) Sazonar(se) (aplicado a la fruta). || *Len madaridxek umou eitte siren, eldu larrei, umotute.* || *Umotute dxak.* || *Sagarra umautu ein da.* || *Sagarrak umautzen das.*

ume, umie. (UME) Niño, -a. || *Ume bandie.* || *Ume txikidxe.* || *Ume guridxe.* || *Mantutako umie.* || *Umiek asi.* || *Umie, etorri ona!* || *Ume umille da.* || *Geur umie enterrau dabe Nabarnixen.* || *Ume pingue, gusurre esauste ba!* || *"Ume kondue!": umik ernegau eraitten dabenien esate dxako ori be.* || *Or dau ume pillue.* ☐ **umiñ erropie.** Pañal. Ik. *uidxela.* ☐ **ume mantarra.** Pañal que se les pone a los niños. || *Mantarrak: umi txikitxu ixaten danin kentze dxakosen trapuri. Trapuk-eta, umin kanbidxuek-eta, etxakon esaten oingo modun, ume mantarra.* ☐ **ume jabolie.** Chica joven (más joven que la criada) que cuida de los niños. Ik. *umesaiñe.* || *Kridxedie etzeko geusak eitte ittuna da. Kridxedie jeneral da a ume sain dabillena bayo aundidxau, edo nausidxaue, da kridxedie.* *Baya ya bestiri be ba kridxedie esate dxako, edo ume jaboli esate dxako, kridxedatzu esate dxako.* ☐ **umin trapue.** Pañal. Ik. *uidxela.* ☐ **umetan.** En la niñez, de niño. Sin. *txotxotan.* ☐ **umie ekarri, euki, ixen.** Parir, tener un hijo. || *Umie ixen deu.* || *Umie euki deu.* || *Umi eitteko dau.* || *Umie ekarteko dau.* || *Umie etorteko deko.* || *Umie dakar.* || *Bidin doila umi ekar deu.* ☐ **umio.** Niño. Hona hemen Alfonso Irigoienek (*Haur ola zirola*, Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak, 382.

orr.) zer dioen honi buruz: “Ya en Leiç. Se registra el artículo de grado próximo *-or*, que puede servir tanto para el primero como para el segundo grado, pero a veces alterna con *-ori*, como en Harizmendi. En Muréлага dicho artículo de grado próximo se conserva como *-o*, sin *-r* final, lo que es normal, como ocurre en el artículo sin marca de grado *-a*, en una expresión fosilizada. En efecto, cuando una persona se dirige a un niño o a una niña, sobre todo si es de corta edad, le habla utilizando como vocativo *umio*, lo que observé después de mi boda, al llegar a Muréлага, en 1970, y comenzó a ser insistente en mi mente, pues lo oía por todas partes, cuando tuve a mi hijo Eneko en 1973, y así lo manifesté en una reunión de la Academia de la Lengua Vasca, donde era absolutamente desconocido este hecho. Con artículo sin marca de grado se dice *umi(e)*, procedente de *umia*, normal ya en los escritores del siglo pasado que seguían la norma de la escuela marquésa en Vizcaya”. || *Umio, etorri neuas!* || *Umio, etorri seix!* || *Umio, artu ixu ogidxe!* || *Umiotxu!* □ **ume ein barri.** Erditu berri den emakumeari edo ganaduari buruz honela esaten da: || *Ume ein barri dxak ori ondiño.* || *Ondiño selan artuko su bierrin ba, ondiño ume ein barriko ganadue?* □ **bularreko umie.** Niño de pecho, lactante. Ik. *titikumie.* □ **mantarretako umie.** Niño de pañales. Ik. *mantuku umie, uidxeletako umie.* || *Mantarretako umie esate san len, da alan esate dxakon, mantarretako umie. Da oin ba, mantuku-edo, ume txikidxe-edo.* □ Galdetu dudanean zelan esaten den sarrien, *mantarretako umie* ala *uidxeletako umie*, honela erantzun didate: || *Oin nik esango neke bata, ta besti estiri esaten, oingo umiek, oingo gastiek mantarretako umi ser dan estabe jakingo, ta uidxelak sertzuk diriñ estabe jakingo.* □ **mantutako umie.** Niño de pañales. Ik. *uidxeletako umie.* □ **uidxeletako umie.** Niño de pañales. Ik. *mantutako umie, mantarretako umie.* || *Uidxeletako umie txiki-txikitxuri esate dxako.*

umealdi, umealdidxe, umaldidxe. (UMEALDI) Periodo en que las personas de edad adoptan comportamientos más propios de los niños. Ik. *txotxoaldidxe.* || *Bai, konbersetako, igul edadeko bat da... Edo boda batera jutas gaste artin. Neugaitti pe bai, sorakeidxak, edandakun bakixu, sorakeidxak, "Orrek e, umealdidxe dxekok geur!", edo txotxoaldidxe-edo bakixu. "Erdi soratu dxak ori geur"-te, alakoxe berbak, bakixu.* || *Umealdidxe esaten dabe personik iru bider umealdidxe eukitteula. Bakixu seintxu din? Iru umaldi personik. Lelengotan, jaidxokerie, umie. Da gero soldautzan be ume ixen bisten deu, umekeidxak ein di te, umekeidxak danak e agintze tzenak eta sorakeidxak... Da eiñ ein biste sin. Da gero sartzaru. Sartzarun be personie, sarrak ya umetute oten die, "Umetute dxasak". Iru umaldi sarri entzute ue. Aintxiñe iru umaldi eukitte ittula personik,*

sartzen bada, sartuten danak. Lelengotan jaidxokeran, umie. Da gero soldautzan be umi ixen bier, se iñun dixen orrek ei tzes, da gixonak pentzetan axe ein bittula. Ta gu soldau, kristonak eitte eskusen ba, kaguen dies, paso lijero eta kriston martxak, ya ganora bako geusak. Da a umaldidxe. Arek berak esate ban, kapitanak. Joer! Afrikan egon nintzen ni tte etxat astu eitten!

umedade, umedadie. Humedad. || *Umedadie deko.* || *Umedadie artzeko moduku dau.* || *Artuek umedadie artzen badeu, ba artagaraune ba samurtu, edo bigundu eitten da.*

umedasiñoie. Humedad. || *Umedasiñoie dau.* || *Lurre likindu: umedasiñoie, ya bustitzen doiñien, 'lurre labandu' esaten dabe batzuk, likindu.* || *A kare bixidxe bota biosu soluen. Da ak eitten deu, lurrek dekon umedasiñoie —euri apurtxu bet ein lei esta?— ak eitten deu dana erreta itxi. Errementau eitte tzo lurreri.*

umedu, umedue. Humedo. || *Da ladrillu barik, troski bakixu ser dan, troski gogorra. Alakoxitan eitte ben jeneralin. Aintxiñeko karabidxa sarrak arexas einde egote sin bakarrik. Lurrin bakarrik... Lurras esi lei ein, se lurre umedu da, da errementa eingo leko.*

umedun, umedune. (UMEDUN) Embarazada; preñada. || *Umedun? Bai. Umedun, ba umi eitteko daun... Ganaduri be esate dxako "Umedun dxak".* || *Da gero txal txikidxas badau be 'umedun' esate dxako.* □ *Gaur egun, enbarasada ere entzuten da, baina lehen beti umedun esaten zen.* || *Bai, baya len 'enbarasada' nok esate ban ba? Emen "Umedun dxak"-eta, "Umi eitteko dxak"-eta.*

umekeridxe. (UMEKERIA) Chiquillada, niñada. || *Dekedan beste urteas umekeridxak eittie!* || *Umekerixtan dabix.* || *Umekeridxak eitten plantaute.*

umekondo, umekondue. (UMEKONDO) Jovenzuelo, -a, mocosu, -a, mocosuelo, -a. Ik. *kondue.* || *Ume kondue txikidxeri esate dxako, txikitxu danari, ume kondue.* || *"Ume kondue!": umik ernegau eraitten dabenien esate dxako ori be.*

umel, umela. (UMEL) 1. Humedo, -a. || *Umela da umedadie... Siketu ondo ein bakue. Bedarra nai geusi edoser. Ero erropa pe eskeitte, garbittute dekosenak ondo siketu barik egon, da "Ondiño umela daus".* || *Umela da siku esteuna, umela da bustidxe bes, baya a erdis erdidxen dauna.* || *Bustidxe...bustantza daunari, edo olan siku-siku estaunari umela esate dxako.* || *Singeri da ure eitten dan leku bat, singerie leku busti bat ta, bustidxe. Ba bertan, singeran, singeri da leku umel bat, leku busti bat ure oten dana.* || *Leku urtzu da ure gelditzen dana, leku umela beres dana.* || *Leku umela da euskidxe gitxi sartzen dana. Kontrasola esate tze askok. Kontrasola... Euskirik sartu es, da.* || *Lanparra da dana umel garuas ta busti-busti.* □

Esaterako, eskegita dagoen arropari buruz honela esaten da: *Ondiño umelik dau.* **2.** Persona floja, de poca actividad y remango. Ik. *epela, iko pasie.* || *Iko pasie? Bai. Ori be pelmi esati les. A umela esan gutena, suabi. Ta iko pasi suabi ixete dan les "Iko pasa garbidxok ori!" ba ori be bai.* □ **denpora umela.** Tiempo húmedo, lluvioso. Ik. *denpora maskala.* || *Denpora umela dau.* □ **egualdi umela.** Tiempo húmedo, lluvioso. || *Egualdi umela da, untxe gaur daune laku be umela da, garu eitten dau te. Da bustidxe, euridxe-ta eitten dabenin, ba euridxe, "Dios, bustidxe!". Baya umela da... Lañuk e, sarrasoi pe umedadi botaten deu. Umela.*

umeldu. (UMELDU) Humedecer(se). □ Eguraldiak aldaketa dakarrenean, honela esaten da: *Umeldu dxok.*

umeloi, umeloidxe. (UMELOHI) Secundinas, sociedad que arroja la vaca tras parir. *Umetokidxe* ere esaten zaio. Ik. *dinderridxe, loidxe, gantzardxe.* || *Dinderridxe: atzetik dingiliske urtete tzonin, umeloidxek urtete tzo, alako poltzias urtete tzo ba lelengo, da areri ba: "Umeloidxek urte tzo".* || *Bueno, umeloidxe beste bateri esate dxako. Umeloidxe esate dxako txala ein de gero..., umetokidxe esate tzeu guk. Gero batzuk arin botaten dabe, beste batzuk nekesau botaten dabe. Botaten dabe loidxe. Umeloidxe axe da, axe, txala ein de gero botaten daben loidxe, axe txala barrun egoten dana-edo ixeten da, alan esaten dabe, arixen barrun oten da.* □ *Hona hemen zelan bereizten diren umeloidxe eta gantzardxe:* || *Baya umeloidxe ta gantzardxe estire bat. Umeloidxe da umetokidxe. Umetokidxe txal einde botaten daben loidxe da, umetokidxe. Gantzardxe da..., selan esango tzut?, txal txikidxe barruen eukitten dabena, gantzardexas tapaute oten da. Da umeloidxe da txala ein de beidxek botaten daben loidxe, baya gantzardxe da..., ser dala esangot?, a be txala oten dan lekun oten da, baya a botaten dabenak e..., bai arin sartu eskeruen —se geuri be salbau dxakun-de— salbau eitten dire. Da geidxenak ill eitten dire.*

umeltasun, umeltasune. (UMELTASUN) Humedad.

umemoko, umemokue. (UMEMOKO) Mocosu, -a, mocosuelo, -a. || *Umemoku orrek setan detzek or? || Umemoku ori! Berak gure dabena ein deust! || Umi pa bakik, atrebidu dosa pa, edo persona neusigana juteko, "Aldeik umemokurrek! Aldeik emendik!". Umemoku da, ba gastu edo edukasiño bakue edo bakixu. "Aldeik, umemokurrek, kakanarrurrek!".*

umesain, umesaiñe. (UMEZAIN) Chica joven (más joven que la criada) que cuida de los niños. *Ume jabolie* baino gutxiago esaten da.

umeske. (UMESKE) En celo, el ganado vacuno. Ik. *agertu.* || *Beidxe umeske da.*

umesurtz, umesurtze. (UMEZURTZ) Huérfano, -a. || *Umesurtz garatu san.*

umetasun, umetasune. (UMETASUN) **1.** Niñez, infancia. **2.** Inocencia, candidez. Ume bat hazten ez denean, 4 urte bete eta 2 urtekoak legez ibiltzen denean esaten da. || *Umetasune deko orre pe! || Orrek deko umetasune!*

umetoki, umetokidxe. (UMETOKI) Matriz, bolsa del feto que arrojan las vacas juntamente con las crías. *Umetokidxe* ere esaten zaio. Lagunen kasuan *selaune* esaten da. || *Esate baterako, selaune esate dxako, parto baten, atzetik etorten dan..., selaune. Da ganaduri-tte esate dxake ganaduk botaten dabenari-tte, umetokidxe. Da persona, andriek botaten dabena esate dxako selaune.* || *Ur sorru? Bai, ganaduk eukitten dabena da ori. Ur sorru. A etorten da txala ein bayo ariñau. A ur sorru eukitten deu, batute, seinde umetokidxe esate tze. Diferenti da umetokidxe e! Ur sorru da ure, urtza ure. A botaten deu jeneralin beidxek ariñau. Ur sorru da. Umetokidxe da ya txala ein de gero eitten deuna.*

umetu. (UMETU) Aniñarse, chochar, volverse a la niñez. Hala esaten da zaharrak umeei dagozkien gauzak esaten edo egiten hasten direnean. || *Umetu dxako orreri! || Da gero sartzaru. Sartzarun be personie, sarrak ya umetute oten die, "Umetute dxasak".*

umil, umille. (UMIL) Humilde, modesto. || *Ume umille da.*

umildu. (UMILDU) Humillarse, volverse humilde. || *Umildu? Ba ser dala esangot 'umildu'? Norbera eitten dana bajatu, diskusiño bat edo seoser badabil, da bat bajatzen bada, bajatu eitten da, umildu.*

umiltasun, umiltasune. (UMILTASUN) Humildad.

1 umore, umorie. (UMORE) Humor. Ik. *tenplie.* || *Umore txarrien dekegu aitte sarra.* || *Batzuk umore txarra igul eukitten dabe lo ostin da ba "Lo oste txarra deko".* || *Lo gitxi ein deu te umore txarra deko.*

2 umore, umorie. (UMORE) Reuma. Ik. *asurrillek.* || *Umorias il de.* □ *Gaur egun, erreumie edo erromie gailentzen hasi zaio hitz honi, batik bat gazteen artean, ondorengo adibideetan aipatzen den bezala.* || *Ba erreumie, ba oin jentik erreumi dana. Ba len es. Len umori. Lengo sarrak umori esaten du beti. Oin be bai, baya jeneralin gastik esate tze erreumie.* || *Len bat garatzen basan, ankian erromie, len umorie esate dxakon "la reuma" erderas; oiñ euskeras erromi, baya len umorie; umorikin garatzen basan sera, anka bat edo beso bat: "Asurrillek garatu dxakos". Asurrek il, beres.*

unada, unadie. (UNADA) Periodo, temporada, ciclo. □ **on unadie.** Bonanza, buena racha, época de prosperidad. || *On unadie pasa dxako.*

1 une. Tuétano, médula. || *Únie: asurrek tekona, se esangot neuk?, sulodun asurrek eukitten daben, barrun eukitten daben a mamiñe.* || *Unetaraino sartute deket*

miñe. || Bai, asurre artzen da. Da asurre batzuk e kañedi gure ixeten dabe, ta beste batzuk e ba kañedi barik e ostantzekuau. Se esangot neuk? Kañedi ixeten da ba asur txikidxe bayo eundidxauri esate tzeu, kañedie. Da eukitten deu barruen, arek eukitten deu asurrek barruen une, da une bakixu ser dan? Ba eukitten deu une. Da ba asurre ba karnaseridxara juten danin be igul "Une dekona ekarrixu!" edo "Une dekona estot gure ta ostantzeku ekarrixu!".

2 une. (UNE) Momento, espacio pequeño de tiempo. || 'Trumoartie' da euskidxe, da lañue, da beru unak. Unetan bero, da ostabe euskidxe tapau ein deu lañuk, da ostabe bero. || Unetan otz, ta unetan berue. ☐ **lo unatxue.** Sueño ligero, siesta, cabezada de sueño. || Lo unatxue ein deu.

unekada, unekadie. (UNEKADA) Trecho (corto). || Adakie: eukitte ttus olako sulotxu lakuek serien, materidxala total lisu barik, olako unekadaxuek, adarra eukinekuek edo. || Irukotxa landatan urteten deu, unekadetan-da. || Unekadatu bet. || Unekadie da olako porsioñotxu bat. || Edurre unekadetan ariñau juten da. || Edurrek nabartu deu kanpue: edur gitxi, unekadetan, da beste unekada batzuk bistan, da gitxi, nabartu, gitxi. || 'Astiunie' da biarri pako unekadaxue. || Frute batzuk badas, olan, geuse, sati unekada gogorak eukitte ittuenak; da ba "Kirridxe eitte dxako"-edo. || Unekadan bero eitten deu, te unekadan otz.

untau, untetan. Untar. || Ogi bateri unteik au! || Ogidxe untetan deu koipetan. || Da estidxe emote eitzen, ogidxe ebei sati bi, da ogi bidxen erdidxen estidxe, unteu-unteu einde estidxe. Da posik, posik a be!

untu, untue. Unto. ☐ **untu ein.** Untar. || Untu eitteko-edo, untetako, ogidxe untetako-edo, saltzi-edo, ogidxe untetako saltzi-edo. || Ogidxe unteu einde jaten da.

untura, unturie. Untura, pomada. || Sorgiñen kontu pa, plantxiñ aspidxen eukitte bela unturaxue gordeta ta axe eskutan eitte bela plantxias, da gero tximinidxen gora igote bela sorgiñek-eta, bai esate ben.

untxe. (ORAINXE) Ahora mismo. || Katakoxiñie basoko katue da. Bidi ikesi eskeruen etzera..., geuri be, untxe ondiño, untxe-untxe, aintxiñie estanien, illabets onantzien atrapau ei ben gero, mutillek, ta ba tire ba ill eben, ollo bi garbittu eskusen. || Orain mantzeliñie kasteteu, batu eitten da, untxe, ya batzeko sasoyen ixengo da. || Esta eltzen untxe sasora artin (iraillin) da untxe sasoyen..., doniñie idie untxe sasoyen eltzen da.

untze, untzie. (UNTZE, iltze-bat.) **1.** Clavo. || Untzekin josi. || Gero olan untze batetik ipintte sittun de olan bigundu. **2.** En las pruebas de bueyes, longitud del recorrido. || Proban, sarri da geratu barik erutie. A da sárrie. Geratu barik, esate baterako, oinbete ero metro bat eitten badeu, ummmm!, "Sarri emon tze!".

Da igul beste batzuk artun de eruten deu beste untzera, "Jo, untzik sarran ein dxosak!". Ta bestela esaten da "Bai, eusike". Eusidxe da aulan (sigi-saga) ibilttie arridxe, a eusidxe da. Ta an artu te eruten badeu, sarri.

|| Susenien, da artu beyen, da gora juten basara, sarran, "Sarri baten eruidxok!" edo. "Untze laune ein dxok", edo "Untze erdi ein dxok" edo "Iru untze laun ein dxosak". ☐ **age untzie.** Clavo grande utilizado en la rueda del carro y distintos aperos de labranza. || Age untzie, selan esan biko tzut? Da untze bat, baya orrek untze korrintiñ aldiñ untze eundidxe da, eundidxe. Da agi be untze txikidxek joste dxakes, eundidxe pe bai, baya age untzi jeneral ganadun erreminttie joste dxake. Ganadun erreminttik eukitten deu, age untzie jeneral ipintte dxako, da ori ixeten da..., ser esangot neuk?, orre pe borren ixena deko, age untzi esteutzeu orreri esaten. Astu ein dxates orrek. Ori untzi naiku untze eundidxe ixeten da, da ori untzi ori —oin burdirikpe esta ibiltten, serak ibiltten dire, tratoriñ ibiltten dire ta — baya burdidxeri erruberatan joste dxakona. Da naiku untze eundidxe ixeten da. Puntti be eukitten deu biribile, da bera untze estutues-estutues juten da, sartzeko, da punta estue eukitten deu betik, josteko goitti bera. Oñ olako untxerik e... Da orrek untzak, ganera, erosi etziriñ eitten, orrek untzak errementaridxek eitte sittun. || Age untzie aintxiñeku da. Arek kuadrudun untza tire. Orrek age eundidxek-eta erute besanak. Oñ age untzak esango tze oin be age eundidxei, baya danak igulek, untzak, esan guna eikeri igulaku, da len es. Len age untzi ixete san errementaridxek eindako age untzak. Oin dana biribile eitten dabe.

untziñoie. (UNTZINO, untzio-bat.) Sacramento de la extremaunción. || Untziñoie: olanik e, geixorik txarto dasenari, gure jaune artzeko geuse estiriñari emote dxakena, bai, untziñoie esate dxako.

untzorri, untzorridxe. (HUNTZORRI, huntz) Hiedra (*Hedera helix*). || Untzorridxe esta arbolentzako ona ixeten. || Untzorridxe orman gora doye.

untzu. (ORAINTSU) Hace poco, recientemente. ☐ **ondiño untzontzu.** Hace bien poco, muy recientemente. || Piñuek nik estaipa noix asiko sirin, ondiño untzontzu bota dire piñadidxek eta.

upe, upie. Surtidero por donde sale el agua a presión desde la presa del molino a las turbinas. Bermeon eta Zeaurin txifloia esaten zaio.

1 ur, ure. (UR) **1.** Agua. Ik. mama. || Edateko ure. || Ur txorrotxue. || Ur aundidxek. || Ur bixidxek. || Ur epela. || Ur sikiñie. || Ur berotan euki. || Uretan ipiñi. || Ure jun da gero, presie ein! || Ure gurot, ama! || Ur bille jun da. || Ur irikiñetara botaten da urune. || Erremolatxa ori, asala, pulpe esaten dxakona, botate dosu uretara, ur berotara nei otzetara da ase eitten da, doblau eitten da, iru bider doblau. || Baya

kirikidxolatza bakitt selan biribiltzen dan, ikusitte dekot. Uretan sabaltzen da, uretara botata. || Ur gitxi dau posuen. || Errekik ur gitxi daroi. || Ure franko deko itturridxek. || Lurre asetute dau uras. || Nabarrisko urik onena Sasitturridxa. Sasitturridxa da labaderu eusena. Argiarro, da Argiarrotik ona basatos. || Bestiñ aldiñ ure makala da ori. **2.** Zumo; jugo. || Orain mantzeliñe kasteteu, batu eitten da, untxe, ya batzeko sasoyen ixengo da. Batu eitten dire loratxuek, siketute gorde eitten dire. Da ementxe egon eingo dire eurten batunekuk tirenak. Da gogo txarra dauniñ-edo ba an ure edateu. || Neu baten Bilbon naturiste bategana jun netzen, da aseri bedarrak egosi tte axe bedarran ure artzeko esausten. □ **uretatik.** Por mar o río (en oposición a tierra). Ik. ligorres. || Uretatik jun dire. □ **ur arratoye.** Rata de agua. || Ur arratoye ta etzeko arratoye, klase bi daus da arratoye esate tzeu bidxeri. Ur arratoye: aundidxaue, papar suridxaue ta tripa aspidxe suridxaue. □ **ur asala.** Superficie del agua. Ik. uren ganie. □ **ur askie.** Abrevadero. || Askie esate tzagu jaten emote tzegunari be. Uretakue pe ur askie. □ **ur batue.** Charca, balsa; remanso, agua estancada. Ik. ur ondatue. || Ur batue geldi-geldi gelditzen dan ureri esate dxako: "Ur batu ein da", seinde emen eskapau ein deu, euri saparradi einde jun ein da, korridu ein deu, baya "Ur batu ein da" ure gelditzen dan tokidxeri, ta ure jeusi, tte bertan gelditzen danari: "Ur batue einda dau". || Ur batue: bai, atzo gabin be eingo ban ur batue, soluk egalak arrastaute dekod, da sartuko san bidetik ure, or goiko partetik soluri, se errekatxu einde dau te. Ur batu da geldi dauin be, ur batue, edo ur batu eitten da euridxe danien, baya or eskapau ein deu, ur batu ein bari paya egaletako lurrek arrastau ittu. || Arek eta lurre eurrien artu artien, da indar aundis datorrenien, da lurre eurriñ artzen dabenin, ya jun eitten da, baya olan sakonin-de, olan posuk eitte ittinin be, "Ur batuk einde das". □ **ur bedeinkatue.** Agua bendita. || Potenteidxe arri eundidxe ixeten da, dana biribille ta ur bedeinkatu eukitten dabena. || Potenteidxe? Elixan oten dan e..., entradan-edo oten dana. Da elixara jute garañin, antxe ur bedeinkatue artu te aittiaren ei tte, da barrure. □ **ur biko tellatue.** Tejado a dos aguas. || Onek e etze korrintiok ur biko tellatuek, alderdi batera bata ta beste alderdire besti. □ **ur emotzaillie.** Persona que se dedica a repartir agua a las personas que están trabajando. || Ur emotzaillie da ure emoten dabena. Ure partiten deu: ur emotzaillie. □ **uren ganie.** Superficie del agua. Ik. ur asala. □ **uren ure.** El exceso de agua. Sin. ur larridxe. || Lurre be bai, lurre ba astindute uren urek aseta dau. □ **ur errotie.** Molino de agua. || Ur errotie: areri ureri errotie andando ipintte dxakenien, olako arte bategas-edo oten da ure pasaten dana

sarratute; da errotie andando ipintteko, axe gora altzate san, altzeta ben errotaridxek, olan, ser esangot neuk? Age bat-edo ote sana an eingeruen, eukitte sittun olantxik suluk, sulu-sulu-suluk eukitte sittuen, da ure gitxiau paseti gure basan, bajutxuau ipintte ben, ure asko pasati gure ixate basan, altuau ipintte san, da ure pasate san, ba, errekarra. || Ur errotie Gixaburuan be badau. Gixaburuan, bi edo iru edo bost. Or Oman be bai. □ **uretan.** A por agua. || Lenau uretan juten siriñ urrunau-te, juten sirin, esate baterako, balde bias edo edarra bias. Olan artu or sorbaldan atzetik bat eta eurretik beste bat. Baya guren denporan ori ya akabaute egon san emen uretan ibilttie. || Iños entzu ot, geixu etziñ ama, da ure eskatu, ta goxaldien urten, etzien, artu ontzidxe da araxe iturrirre, uretan. Amari eruten. Antxe dago iturririk onena, urik onena Nabarriskue. □ **ur geldidxe.** Agua detenida. || Erue ur geldidxen egoten da, seinde ba, egongo da poso bat ur deldidxe dauna, da antxe posun egoten dana. || Emen ur geldidxe esate dxako olan e geldi... posu baten-edo geldi dauniñ ori. □ **Ur batue eta ur geldidxe bat ei dira:** || Bai, bat tire, ur geldidxe, da ur batue bat tire kontixu. □ **ur korrintie.** Agua corriente. || Da pernille pe kurau ein bi dau, bierbada euki biosu aixetan edo beintzet, batzuk e ur korrintin be ipintte ben gatza kentzeko ta kuretako, kuretako. Olan itxitten da bai. □ **ur madaridxe.** Cierta variedad de pera. □ **ur molidue.** Agua turbia. □ **ur ollarra.** Gallo de agua. || Ur ollarra da dotorie! || Ur ollarra? Ori txoridxe ixeten da. Ba ixeten da ollar txikitxu..., bai txikitxu bayo aunditxuau-edo, olan aundidxe-ta esta ixeten. Basun edo kanpun ibiltten da, baya emen e pasau eitten da edo, estai nik emen bixi be estot pentzetan eitten danik. || Ur ollarra bai, eoten dire bai. Ur ollarrak e dire e... selan esango tzu pa? Emen ikusi be esta eitten ur ollarrik. Orrek errekan-da ibiltten dire, seinde ollarra lako kangurtxuas, ur ollarra. □ **ur ollue.** Pollo de agua. || Emen berton estau ur ollurik. || Ori ollue, paitte modun. || Ur olluek eukitten deu paitti les e anak e se, se, se ori, esan gutena, erpa barik, sedie ori, telie. || Ur ollu be bai. Ba emen estabil. Ur ollu aundidxe ixeten da. Ba emen ikusi be esta eitten onetan eingerutan bes. □ **ur ondatue.** Charca, balsa; remanso, agua estancada. Ik. ur batue. || Ur ondatue da, esate baterako, euri asko..., atzo gabas be ei ban saparradan bat, nik estot sentidu, baya euri asko eingo ban, se solun egalak arrastaute das-da. Da ur ondatu esate dxako, esate baterako, eitten deu euri saparrada bat, da biitatik, eta goidxetatik-eta, be pillau, de errekatxu eitten da, da i gero sakonunarik atrapeten badeu, antxe gelditzen da ur ondatue. || Ur ondatue: urek beres eitten deu sulu ba, urek emen solutan-da iguel. Emen solutan-da iguel. Gitxitten baya leku askotan igul e juten da, sulu

eitten dau, ure, bera, urek e. Ikusko sendun olakue. Axe da ur ondatue. Dana lurre eruten deu, bera urek eruten deu, da onako suluk e bera. || Ur ondatue? Amen berton dau, amen etze barridxe badau or ba, ortxe parin goikaldin dau solue, or sarri eitten deu urek ondatu. Arri bittartie kontixu topeten deu, da ure korrienten datorrenak, aspittik datorrenak gero kabeten tzo bera da goidxe bera, sulue bera. || Ur batu, da ondatue, kontixu bat tire are pe. ☐ **ur parrastadie.** Chorro de agua. || Ur parrastadie jeusi dxako. ☐ **ur posue.** Charco. Ik. *potxidxe.* || Basatzak daus galantak ur posukin. || Ur posuk daus bidien. || Bide txarra dau, ur posuk daus-de. ☐ **ur posotzie.** Charcal. || Ur posotzie? Ba bidien norberak jun bi daben lekun edo olan ur posotzie, ur posotzie, lantzin leku baten, arantzau-orruntzau, ur posotzie. || Kristelak ei dire ur posotzatan. ☐ **ur potxidxe.** Charco. Ik. *posue.* Ur txarkue ere esaten da. || Ur potxidxe dau emen. || Potxidxe posu bayo txikidxaue da. ☐ **ur saltue.** Cascada de agua. ☐ **ur txorrue.** Chorro de agua. ☐ **ur sorrue.** Placenta, secundinas. || Ur sorrue esate dxake, beidxek txala eitteko deusenin, ures beteriko boltza batek urtete tze. Da arexeri esate dxako. || Beidxek, txala eikeran, ur sorrue eitten deu lelengo, txala bayo ariñau; a ures beterik etorten da, sorrue esaten dxako, mintzas barrun ure; ak bun erreberteten deu, txala eiñ orduko, enjeneralien. || Ur sorru? Bai, ganaduk eukitten dabena da ori. Ur sorru. A etorten da txala ein bayo ariñau. A ur sorru eukitten deu, batute, seinde umetokidxe esate tze. Diferenti da umetokidxe e! Ur sorru da ure, urtza ure. A botaten deu jeneralin beidxek ariñau. Ur sorru da. Umetokidxe da ya txala ein de gero eitten deuna. || "Txala eitteko dxak" eta igul jentiri abiste tzesu por si acaso, da "Ser, ur sorru botata dxak ero ser?", da "Etxok ondiño bota baya or...", da iguel buuuuuu! Erremente tzo da txalan anak agertzen di. || Ur sorru? Sera, txal jaidxo orduko datorren ur sorrue, poltzie. ☐ **ittesurako ure, ittusurako ure.** Agua que se recoge bajo el alero del tejado. || Onak tellatuk dana deke egaletara. Atzin bes. Egal bidxek da besterik esteko etzik. Ur gustidxe doye egal bidxetara. Da len askok eitte ban, ure aprobetxetako depositurik eta olan manentialik-eta estekona, eitte besen depositu eundidxek eiñ or, da araxe ipiñi, ittusurako ure esate dxakon areri. Ittusurako uras eitti dxok e ori, etzeko ure useu, useu etzeko ure. ☐ **metal ure.** Agua ferruginosa. || Neuk mendidxen an troso baten..., —gero oiñ es ei deu urteten-da, oin beste bide bat artuko ban kontixu— ur metalak urtete ban. Metal-metalak urtete ban, da gustu be apurtxut deferentetxu eukitten deu te. Emengo nire gixonan aitte sanak axe ure gure ixate ban. Da jute giñiin mendire, ekarri eitte gendun. Da bera jute sanin be, bera pe

artu eitte ban. Da ba metal ure. Besterik estauniñ edaten da, baya neuri etxat asko gustaten. || Esate dxako ure gorridxe metala emoten daben ureri, ure batzuk, onek uriek esteko metalik, baya badau guri'e..., oiñ estakitt trukau edo se ein daben, metal ure eukitten dabena, arek apur bet ure gorriskie botaten dau, da egunkeran ontzidxeri gorridxe inkete tzo metal urek. || Metal ureri be etxake eitten dobelarik. Bueno areri metalas, a metalas sarratzen da, metala eitte dxako ta. || Antxe euen metal ure, metal ure, da jute giñen bille, ona dala ta. Selako grasi eukitte ban ganien ikusgarridxe ak urek. Metal ure, metal ure esate dxako, urrie, urrie... ko kapi baleko les. Metal ure. || Esto pentzetan. Metal ure esaun dekosu. Kobri lakoxie, kobrie, urre, kapie dana, bera pasetan dana, dana inkete tzos. Arridxeri be danak emote tzos, dana. Inkete tzo magrie. Neusidxe emote tzo! Da bera ona. Kendu ein bitzesu ba, kapi eukitten deu te, kopie lantxik. ☐ **urek bixi ibilli.** Correr el agua o estar la mar revuelta. || "Urek bixi dabis": ori esaten da, seinde, ser esangot neuk?, itxosun olatu aundidxek dasenin.

2 ur. (HUR) Cerca. ☐ **urrik emon es.** Ni de cerca, nada! || *Urrik emon bes!* ☐ **urripes.** Ni de cerca, nada!

urbide, urbidie. (URBIDE, ubide-bat.) **1.** Zanja o canal por donde se conducen las aguas. Ik. *erretena.* **2.** Canal por el que circula el agua a la antepara del molino. || *Urbide bat, baya konpuerta bi.*

urdei, urdeidxe. (URDAI) Tocino. || *Urdei brijidue.* || *Sarteneko urdeidxe.* || *Burduntzidxe? Txarridxe il, de txarridxen urdeidxe suten e koipi bota eraitte dxakona, ta gero ogidxen barrun sartu ta jaten dana. Da axe burduntzidxe, burdiña bat ixeten da.* ☐ **urdei asala.** Corteza de tocino. || *Urdei asala: botari-tte emoteko, narruri.* ☐ **urdei gidxerratzue.** Tocino que tiene veta. || *Urdei gidxerratzue? Ori da urdeidxe barik a okeli moduku gorridxe euki deidxela gidxarratzu.*

urdeil, urdeille. (URDAIL) **1.** Estómago. Berri-emaile baten arabera, orain gutxitxo erabiltzen bada ere, lehenago gehiago erabiltzen zen berba hau. Beste berri-emaile batek, ostera, *urdeille* ez dela esaten dio; beronen arabera, Nabarnizen *tripie* esaten zaio eta barrukoari *estomague.* Ik. *estomague, tripie.* || *Urdeilleko penie deket.* **2.** Barrigón. || *Orrek deko urdeille!*

urdeitzu, urdeitzue. (URDAITSU) Que tiene mucho tocino. || *Txarridxe urdeitzu dxak!*

urdin, urdiñe. (URDIN) **1.** Azul. Sin. *asule.* || *Beres euskerasko ixena, guk estou alan ikesi, baya urdiñe deuk asulek. Baya urdiñe be esate san, nik amumagandik e urdiñe be esautu dot.* || *Serue urdiñe dau, argi-argi egoten danin.* || *Asule ta urdiñe ba tire. Esa leidxo urdiñe be da esa leidxo asule be.* || *Bueno, itxosoko ure be asule edo bardi ixeten da.* **2.** Moho, con

moho. || *Sagarra urdin-urdiñe dau.* || *Garrantzidxue ixeten da, bai, urdiñe bai, baya urdiñe bari pe eitten da okelie garrastu apur bet.* **3.** (Acerca de la tez) tersa, sin arrugas, con buen color. || *Selako asal urdiñe deko.* || *Urdiñe da ondo janekue.* ☐ **urdin perretxikue** edo **urdiñe.** Especie de seta del país, (*Russula virescens*). Beste leku batzuetan *gibelurdiñe* izenaz ezagutzen dira. || *Gero asten dire, berotzen asittakun, garagarrillien urdin perretxikuek.* || *Urritxa da urdin perretxikue begittute, kolorien alkarren antza bauke.* *Urdin perretxikue, goixien jaidxota badau, gaberako ya arrak einde.* *Pagadikue da fuertetxueue, baya piñadikue bastante bastue, arin pasetan da.* || *Perretxikue: urdin perretxikue, urritxa perretxiku, da robilloi be perretxiku da orreri perretxiku aundixauri esate tzeu perretxiku.* *Onguri be 'seti' estetzeu esaten.* *Perretxiku.* ☐ **urdin sagarra.** Manzana dura, poco apetitosa, tardía, cruzada de rayas rojas en su pellejo. || *Urdin sagarra da leneko aintxiñeko sagar klasie, urdiñe.* *Kolorie da gorriskara ta suriskara eitten deuna.* *Sagardau onak eitten dire.* *Oin gitxi dau aretakorik.* || *Urdin sagarrak ointxe dabix akabetan.* || *Da sagarra be badau, urdin sagarra esate dxakona, naiku sagar gorridxe dana.* || *Bai, onek e erreteko ekarri ttut neuk, da oiñ onek e erreteko moduku tas.* *Urdin sagarra deke ixena.* ☐ **asal urdiñe.** Piel tersa, suave, sin arrugas, con buen color. || *Asal urdiñe rubidxeri jeneral esango dxako, ba argidxe danari-edo.* *Pentzetot nik, guk estekogu usadidxorik asal urdiñe esateko.* || *Asal urdiñe: alan matrallak gorridxek dausen umiri, asal urdiñe.* *Jeneral umiri esate dxako.* || *Asal urdiñek esan gure deu ba garbidxe, betie, asal betie.* *Betie ta argidxe, ondo janeku-edo: "Orrek asal urdiñe deko".* || *Asal urdiñe esaten da asal fiñe-ero,* *"Dios, orrek asal urdiñe dxekok!".* *Ori da fiñe eukittik e ori.* || *Asal urdiñe? Alan kolore gorritxukin de poliituau da.*

urdindu, urdintzen. (URDINDU) **1.** Encanecer, ponerse cano. Ik. *surittu.* || *Ulik urdindu dxakos.* || *'Urdindu' ixeten da ya erdis erdidxen daunin, da gero ya surittu.* *Igul, urdindu, mandu pe egoten dire, kaballeridxa pe, urdiñek, balzak-eta artin dekosanak.* *Suri utze barik artin balzak-eta dekosanak.* || *Urdintzen asi dxako ulie orreri be.* **2.** Enmohecer. || *Sagarra urdindute dau.* || *Urdindutekue da ya eltzera, usteltzera doina be bai, ya pasetan doina.* || *Sagarra samurtute badau be: "Urdindute dxak ori".* || *Alperrik galdute dau, urdindute.* || *Pernille olan garrastu eitten danin, "Garrantziotu einde dau" esate dxako.* *Urdindu barik eitten da garrastu-edo.*

urduri, urduridxe. (URDURI) Nervioso, -a, inquieto, -a. || *Ori da persona urduridxe!* || *Urduridxe? Dabillena asko da urduridxe.* *Bai, asko dabillena, da olanik igul e ariñ ernegetan dabenari be esaten dxako.*

urdurittasun, urdurittasune. (URDURITASUN) Nervioso, -a, inquieto, -a. || *Ori da persona urduridxe!* || *Urduridxe? Dabillena asko da urduridxe.* *Bai, asko dabillena, da olanik igul e ariñ ernegetan dabenari be esaten dxako.*

urebarriar, urebarriarra. (URIBARRIAR) Natural del barrio de Uribarri.

uregasidxo, uregasidxue. (UGARAIXO, igel) Rana. || *Uregasidxu leलगotan sapaburu lakoxi ixeten da, da beres sapaburue, onetan posutan ibiltten dana.* || *Bai, uregasidxue berdie ixeten da, uregasidxue txikidxe ixeten danin, txikidxe ta asidxes-asidxes e gero be berde seiduten deu, baya ain berde esta egoten.*

uretu, uretue. (URETU) Avenida de agua que se producía cuando un molino situado más arriba comenzaba a funcionar.

uri, uridxe. (URI, hiri-bat.) Villa, ciudad. || *Uridxe serari esate dxako, erri sertxu bateri uridxe.* *Tamañoku, esate baterako, Gernike lako bateri esate dxako.* || *Uriko jentie.* || *Aintxiñe, gure gastetan, Aullisti ba aunditxue ixen san, Nabarris bayo aunditxuau, esta?, ta areri uridxe esate tzen, Aullisti uridxe, ta Nabarris erridxe.* || *Allustin kalie egote da les, areri uridxe.*

uriko, urikue. (URIKO, hiriko-bat.) Hijo adoptivo, -a. Ik. *kajakue.* || *Urikue? Ume bat, ume txiki bat ekarten danien —oiñ esta entzun be eitten ekarten dani pe—, ekarten danien kajatik, ba noberana il de ekarten danien, arixe esate dxako urikue.* *Noberana estana, ekarten dabena asteko, urikue.*

urka. Uarka, barrio de Arratzu.

urkemendi, urkemendixe. (URKAMENDI) **1.** Lugar de la horca, patíbulo, horca. || *Urkemendixe da Jesukristo sertu san lekue, urketu bena.* || *Urketen dan leku be, a be urkemendixe ixengo da.* **2.** También se aplica a un lugar de poca estima. || *Erri edo mendi eskas bateri urkemendixe esan leyo.* || *Sos, ori da urkemendixe!* || *Urkemendixe: gitxi produsiten dabenari-edo, otatzu danari-edo: urkemendi.* **3.** Nombre que se da a algunos montes. || *Urkemendixe: guriñ estau, onek etzionek esteko, da beste etze batzuk estabe eukiko, baya urkemendi ixena deken mendidxek tas.*

urketu, urketzen. (URKATU) Ahorcar. || *Urketu samatik.* || *Urkemendixe da Jesukristo urketu ben lekue.* || *A urketu san an, basuen.* || *An urketu san, sabaittik-edo lotun de eskei, berak bere burue eskei.* || *Bueno, ori "urketu" esateko ain kostunbre aundirik estau, e. Bat, nonor e ba urketzen badabe, ordun ba esaten da "Urketu ein dabe", baya oin ba urketu be jeneral esta eitten-da ba.* ☐ **burue urketu.** Ahorcarse, aunque a menudo se usa en un sentido más amplio,

como suicidarse. || *Urketu dxok beren burue.* ☐ Nabarnizen bietara esaten da: *Urketu ein da nahiz Beren buru urketu ein deu.*

urki, urkidxe. (URKI) Abedul. (*Betula sp.*) || *Bueno, urkidxek olan mataridxelako estau bali ixeten, egur floju ixeten da ta. Da onaxe satosela, amen gure kamiñu egalín badas urkidxek, jeneral, au beko trongue eukitten dabe suridxe, da goidxe ba berdi bestik les, da orritxuas.*

urko, urkue. (HURKO) Próximo, cercano. ☐ **lagun urkue.** Amigo íntimo. || *Lagun urku da ba e lagunik eundidxe ixetie, noberan lagun eundidxe ixeti. || Lagun urkue da lagunik eundidxena. Seuk dekosun lagunik eundidxena. Urku. Esan gure dau orrek... Urraku be esaten da igul baya urku esta urraku, espabere asko tzesuna, "Lagun urku dxok ori". Urraku esta igul. Urraku da ba kontran deuna. Baya urkue da lagun e ba... Parienti be urkue esate tzue. Parientik igul e, edo enterrure estala jun, edo beste geusa batera esta jun de "Joder, a urku ixen dxok, ta estok jun". Ba beren urkue dalako, beren odolekue. Da asko gure tzona be bardin-bardiñ esaten da. Asko gure tzona be "Urku ixen dxok ori, beren urku dok ori".*

urkula, urkulie. (URKULA, urkila-bat.) 1. Horca, palo que remata en dos puntas. Emiliano Arriagak *urcullus* hitza batu zuen Bilbon eta definizio hau eman zuen: "(Del e. *urkullu*) Los palos que terminan en una U de hierro y llevan los conductores de los *bultos*, para descansar en las paradas, colocando los travesaños que cargan en hombros, sobre la bifurcación del *urcullu* apoyado en el suelo". || *Urkulie esate tzeu guk olan daun ser bateri, adar bat altzetako. "Urkula adarra altzaixu!" esaten dou. || Urkulie da palu bat, olan deuena, olako forman (Y) dauena. Da amen bittartin sartzen da adarra, sosteniteko goidxen. || Urkulie adarras eitten da. Jeneraliñ arte adarrak. || Guk atxurkulie esate tzeu, ortz bikue. Urkulie da les, olan biribille, ortz bias. || Kakutue? Makilla bat, urkula bi dekosena jeneral ixeten da, olan eskeitteko kakututan.* 2. Rama que parte del tronco a la vez que otra rama y toman la forma de una horca. Ik. *ankarkulu.* || *Bat ebateko moduku bakosu, bat ebei baya iguel noberak atrapetako oiñ altu eitten da urkuli. Ta gero etorten bada edurre edo aixi, jeneraliñ apurtzen dire orrek.* 3. Horquilla de madera que se usaba en los caleros. || *Ara sartzeko serak, onan e serak egurresko... Onan, urkulak. An sartu de barrure sartu bi ixate san, asta lusekin. Berotasun eundidxe eukitte ban ba.* 4. Diente triscado. || *Trontza serri de arpana diferenti dire. Aundidxau ori arpana. Da trontza serra pe, askaniñ urte ben, gu basutan ibili giñenin, Ameriketara jun orduko, agin bikotxak. Onek e urkulak. Aintxiñe dxuan e agin txikidxe. Da a agin txikidxek etxuan eitten bi dan moduen, da orre beste urkula onek paguen... Bakixu, au dana san ba len pague. Pagu da atxa. Da arek urte*

dxuen gero urkula bikuek. Ortik Gipuskuatik etorri dxuasen arek. ☐ **urkula adarra.** Rama que se usa como horquilla y se asemeja a la letra Y. || *Edoseiñ egurrek eukitte deu urkulie, da a da urkula adarra. || Urkula adarra altzaixu! || Urkula adarra ipiñi da altzau.*

urkuladun, urkuladune. (URKULADUN, urkiladun-bat.) Horquilla, horqueta (sosten de una rama). || *Urkulie ba, urkulie esate tzesu e... arboli pe adar bi dekosenak "Urkuladune dok". Piñuek amen oin, piñue esaten dabe, urkuladune, bat ebateko, se ostantzin gero aixik apurtu eitten deu, bata bai tte besti be bai tte gero bapes! || Da esaten dabe ori beti —ni neu enas orrako... Perinuetan da orretan asko ibillitaku—, baya ori beti entzu ot, es isteko urkuladun piñurik, al bada beintzet kendu, naitte lodidxe da ederra egon, a urkuli boko, andik eitten da apurtu... Jeneraliñ e! Batzuk es, baya eunetatik larogetamar apurtzeko.*

urkuldu. (URKULDU, urkilatu-bat.) Resquebrajar, abrir, cortar. || *Urkuldu satittu da. Arraskadie. Askorias egur bet jote bosu olanik, urkuldu, a ebaidxe. || "Urkuldu" da alderdi bidxetara, geuse bi eittie les. || Astindu, da gero gardak esate dxakosan untzetzuk, da arekin lanie urkuldu, apurtu-apurtu dana.*

urrao, urrakue, urrekue. (HURRAKO) Próximo, -a, cercano, -a, situado junto a uno. || *Lagun urkue da lagunik eundidxena. Seuk dekosun lagunik eundidxena. Urku. Esan gure dau orrek... Urraku be esaten da igul baya urku esta urraku, espabere asko tzesuna, "Lagun urku dxok ori". Urraku esta igul. Urraku da ba kontran deuna. Baya urkue da lagun e ba... Parienti be urkue esate tzue.*

urran, urrien. (HURRAN) Cerca. || *Alkarren urran. || Nabarrixetik urran. || Ori urran dau. || Etzetik urran eukiten dabe. || Urretik ikusi dot. || Orrek partik-edo, gibela ta biridxe-ta, orrek alkarren urrien eukitte ittu. || Guk basue Galarregin bertan ur-urran deku. Or kaji daun lekutik ensegida. || Ba urrun badau, estau komentzidxan. Komentzidxan ixen bi deu urran. Da ori esate dxako egurre nai geusie... Guk esate baterako, or e urran dekun solotik e ekarri bier bidu geusie, esango deu batek "Jo, komentzidxe itzela dxok andik!", "Urran dxekek eta". Urran deke, ta komentzidxe. Komentzidxe da geusie erres ekarteko modun daua, urran daua. Urrun badau, "Bai, arek e andik ekarteko urruidxak, deskomin dxauk". Urrun. ☐ **urrau.** Más cerca. || *Bide-sadorra da lagune pasaten dana, esate baterako, bidie doye amendik, da lagune pasetako, urrau artzeko, sadorra.**

urre, urrie. (URRE) 1. Oro. || *Bateko urrie. || Ontza urrie. || Ontza urrekue. || Ori urrie da. || Ori urreskue da.* 2. Oro (carta y palo de la baraja española). || *Biko espatie. ☐ urre gorridxe. Oro. || Urre gorrisiko*

ontzie. || Idi narru bete urre gorri dao or mendidxen baya iñok esteu topeten. || Urre gorriskue da anillue. □ **urre suridxe.** Plata. Siderra ere esaten da. || Urre surisko dirue. || Urre surisko kollarie. || Siderra danari urre suridxe esate dxako. || Urre surisku da.

urre. (HURRE) Cerca. || Orrek (erubiek) leku freskun oten dire, ur urrin daun lekun-edo, leku freskun oten dire ta estakipa, eurok iltten be eskara ibiltten benenu eukitten dabelako. || Urretik ikusi dot.

urren, urrena. (URREN) **1.** Lo más cercano. || Urren daun gausie. || Enparaukuek dire geure urren dausenak, geure etzetik urren dausenak. || Kalbaridxo esate dxaken iru kurutzi ipintte siriñ etzetik urrenengo soluen. || Ondaro etzi dau or, Gabike bakixu sein dan, au Gabike, elixiñ urren daun etzi arantz, axe da Ondaro. **2.** Siguiete. || Da gero ba an bi xanien, besteran atara eitte san, gasuneskati pa sati bet-edo, urren egunerako bi dana, ba botate tzen ur freskotara gatza kentzeko, da gero egunin-egunin ba, edo gixau, edo egosi-edo eitteko.

urrego, urregue. (HURRENGO) **1.** Siguiete. Urrego arte nahiz urregora arte. || Orduen, iltten danien mesarik esta eitten, urrego egunin. || Beidxek, batzuk, olan txal asko einde dasenak-eta, urrego txala eitteko daunin, ya edadi eurreradxoiten-da, agertu eitte dxake, se esangot neuk?, txuringi ori agertu eitte dxake. || Etzigaramun da bidxarku barik urrego egune. || Eote sirin garidxek danak eta gero etzerik etze jun eitte san . Beidxek bustertu te makiñi artu te urrengetzera. || Tersiadora da txikidxaue. Ori da e... Tersiadora da mallugandik urregue, txikidxaue. A arri txikitxue apurte dxakon. Da gero da andik urrego matxuki. Txiki-txikitxue. Matxuki. **2.** A continuación, seguidamente. || Urrego, au ein bi da. || Da gero urrego doiñien ostabe, markatxu eitten deu, da artue botaten da araxe markatxure. Da urrego datorrenak osta be tapau eitten deu. || Ererreka: jeneral intxaurrekiñ ibiltte gendun, da botate ban batek lelungue, eta urrego botaten dabena ba axe jo bier eban, da orruxeri esate gentzon erreka.

urregoko, urregokue. (HURRENGOKO) Siguiete. || Atzesku esate dxako... Esku da bat, kartak bota ittun urregoku esku da. Da atzesku da aren urregu.

urreratu. (HURRERATU, hurbildu) Acercar(se), aproximar(se). Ik. inguratu.

1 urri, urridxe. (URRI) **1.** Escaso, exiguo, falto, parco. || Geuse urridxe da. || Bueno, ardidxen esnias eitten da gastaye, beidxenas be bai, euntzenas be bai, baya urteten deu orrek e beidxen esnias eitten danak urteten deu urridxaue, gitxiau. Gitxiau urteten deu ardidxenak eta euntzena payo. **2.** Poco, escaso. Ik. gitxi. || Urridxe esate dxako gitxi danari, da ugeridxe

ba, ugeridxe da asko eitten deuna. || Urridxe da geuse bat txikidxe, nei serien, "Urridxe da ori". Allegetan espada edo eskas badau: "Urri dau". || Geuse gitxi edo eskasa badau be, "Urridxe dxak", gitxi dekonari. || Urri dator. || Ollo korotza onena! Edosetako, jeneru e... artzeko, baya urridxe. Ollo korotza modukorik estau esebe jeneru bisteko. **3.** Pequeño, -a, delgadocho, -a. || Mutil urridxe da. || Urri-urritxu da (morrosku estanari). □ Jende zikoitzari buruz honela esaten da: Esku sarratu deko nahiz Esku urridxe deko orrek.

2 urri, urridxe. (URRI) Octubre. || Urridxen idie, idie ta artu ta danak orduntxe. Orduntxe illerik e..., biarrik geidxen eitten sana laku. || Len idak ebate siriñ urridxen. □ **urridxen askanengo astelena.** El último lunes de Gernika. Urriko askanengo astelena ere deitzen da, baina urridxen askanengo astelena sarriago esaten da. || Guk "Urridxen Askana". Gu pai. Guk "Urridxen Askanengo Astelena" ero "Urridxen Askana". || Urridxen askanin jungo ittuk Gernikera. || Aintxiñe beti itxaroten urridxen askana etorteko, se eskiñen emendik... Iñor es san juten oingo modun astelenetan. Ta axe Urridxen lelungue ta Urridxen askana. Urridxen lelungue, lengo astelena. Oin be bardiñ eitten da Gerniken.

urrikaixe, urrikaixie. (URRIKO HAIZE) Viento sur. Sin. enbra aixie, erreka aixie. || Urrikaxie ba axe bat da otza be estana, apartin beru bes, da ba urrikaxi.

urrin. Cerca. Ik. urran. || Persona bateri itxeitten daunin ba, agiri estaniñ-edo ba, "Urriñ etorriko da", "Oneskeru urriñ etorriko da"-edo esate dxako.

urritu. (URRITU) Escasear, disminuir. Ik. eskastu. || Urritu ein dire oin.

1 urritxa, urritxie. (URRITX) Carbonera, seta del género de las "russulas" (*Russula cyanoxantha*). || Urritxa setak. || Urritxak dire asala apurtu, da barrun mamiñe eukitten dabe, urritxa. Da arixei esate tzeu guk urritxak. || Urretxak dire perretxiko urdiñek, aundidxek. || Urritxa gogortxueue da. || Urretxak onak dire, ta ongu pe bai. || Perretxikue: urdin perretxikue, urritxa perretxiku, da robilloi be perretxiku da orreri perretxiku aundidxaure esate tzeu perretxiku. Onguri be 'seti' estetzeu esaten. Perretxiku.

2 urritxa, urritxie. (HURRITZ) **1.** Avellano. Urritxa jatorriz hemengoa denari deitzen zaio; kanpokoari, berriz, abellanue. || Are dire urritxak. An ikustusos are sepak? Urritxak. Arek urritxa die ba bañantzako, da akuluk eta makillak-eta eitteko. || Urritxi ba arboli ixeten da, emoten dabena garaune, urritxi garaune emoten dabena. || Abellanie emoten dabena abellano esaten dxako; baya urrak emote ittunari, urretxie. || Urritxa ona da. || Urritxak aberatzak daus (garaun asko dekela). **2.** Avellana. || Abellanie esate dxako

erosiñekuri. Kakagesari abellanie esate dxako. Baya emen urritxiri beti urritxi esate dxako. Emen lurrek emoten dabena urritxie da. **3.** Avellano (material). || *Sestue ixeten da... —oiñ esta ibiltten, oiñ estu ibiltten — ixeten da, urritxias eitten da, urritxe arrakin, da sestue ibilte san lorrien, arri batzuk ipiñitte, sapaltzeko lurre, da lurre gosatzeko.* ☐ **urritxa palue.** Palo, vara de avellano. || *Ekarten dire urritxa paluek, jeneral, mendittik, eitten dire bigurtu-bigurtu-bigurtu, da eitten dabe sestue.*

urrixa, urrixie, urritxie. (URRIXA) Hembra de animal. || *Urrixie: animalidxe danari, emi diriñak, danak e, ipintte dxake urrixi ixena, edo "Urrixi da", edo urrixak. Da jeneral ori urrixi ori euntzeri ipintte dxako, euntzeri esate dxako, "Eumi ein deu", "Urrixi ein deu", edo "Akerra ein deu", "Akertxu ein deu", edo ba "Urrixatxu ein deu". Da berari euntzeri be, urrixie euntzegas ibiltten da, euntze ixenas.* || *Urrixie emiri esate dxako.*

urrukada, urrukadie. (URRUKADA, urrukada-bat.) Arañazo, rasguño, desgarrón. Ik. *arraspadie, urrutue.* || *Arrastadie esate tzeu kodaiñinari. Da kotxinari be bai, urrukada bat bouko be, "Arrastada ederra ein tze!"* || *Urrukadie: eitten dana... nun esangot? Emen-edo, emen-edo, eskun-edo eitten dana.*

urruime, urrumie. (URRUMA) Bramido (del ganado vacuno). || *Urrumie da ganaduk eitten dabena, um-m-m, esati les, jaten biot, edo uren falta dot, seoser eskatzen dabeniñ eitten dabe ganaduk urrumie. Edo txala gure dabela errapara, edo seoser gure dabeniñ eitten deu.* ☐ **urruime ein.** Bramir. || *Urrume ein deu.*

urrumeka. (URRUMAKA) Bramando (el ganado vacuno). || *"Beidxe urrumeka dau": miñ-edo, peni-edo dekonin-edo urruma txikitxuk eitte ittu.*

urrun. (URRUN, asago, urruti) Lejos. Ik. *lekuten.* || *Arridxe urrunera bota.* || *Urrun jun da.* || *Denpora askotan daus gugandik urrunin.* || *Ori ixil-ixilke urrunure dxoik.* || *Ori emen bayo urrunauko euserkie da.* ☐ **urrunekue.** Lejano. || *A (lapurre) be urruneku es san ixengo! Es. Emen edoser!*

urrundu. (URRUNDU, asagotu) || *Aspaldidxon urrundute dabil.*

1 urrutu, urrutzen. (URRUTU, urratu-bat.) Rasgar, arañar, desgarrar, quedarse en piel viva. || *Erropie urrutu.* || *Urrutute? Asala kendu te ba aragidxe agertu, an pustilli daun lekuen aragidxe.* || *Urrutu esaten da, olan, urrukadak sartu eskero, ebei nei odola atara.* || *Katuk dana eskue urrutu ste.* || *Erpeka urrutu dxok dana.* || *Erpeka eistek baya estek urrutu.* || *Arraspue eittie les, urrutu.* || *Patxadie urrutu ein dxaku.* || *Arek esan deu: "Sasi gustiñ aspittik ta edoi gustiñ aspittik", da sasiarte-sasiarte jun sen, dana urrutu.* || *Urrutute deko.* || *Urrutu ein deu.*

2 urrutu, urrutue. (URRUTU, urratu-bat.) Rasguño, arañazo, rasgón, rozadura.

urrutune, urrutunie. (URRUTUUNE, urratuune-bat.) Parte arañada, en piel viva. || *Urrutunie: urrutzen dan e..., aragidxen satitxu bat urrutzen dana seoser.*

Urruxola. Caserío de Gizaburuaga en el macizo de Illunzar. || *Urruxola, lelengotan or onantzau deun etzie, jeusitte dau ba. Etze aundidxe ixan a.*

urtaro. (URTARO) Anualmente, cada año, todos los años. *Urtero* ere esaten da, baina gehienbat *urtaro* esaten da. || *Guk e urte bireko kari eitte gendun. Ein biarriñ urtaro, urte biri paten ein.* || *Au ganera urtaro eitte san. Bidegiñi ixete san, da arrikuk e urtiñ e arratzalde bat oixe arregletan. Asi Nabarrixen, Elixaldin, da San Kristobalera.*

urtarril, urtarrille. (URTARRIL) Enero.

urte, urtie. (URTE) **1.** Año. || *Eurtengo urtin.* || *Pasa dan urtin.* || *Urrengo urtin.* || *Ogetamar urteri paten.* || *Urtin baten.* || *Urte gustidxek.* || *Urte danetan.* || *Urte ona da.* || *Urteko billotza.* || *Urte ona paseu!* || *Urte askotan urtik!* || *Urtiekín pagetan da.* || *Juliane pe iru urtiñ ibilli dxok beren txandal sarra.* || *Pasa dan astiñ il san a andra sarra, bost urtiñ oyen egon sana.* || *Urtitan esta etorri.* || *Ori ixen sala ixengo dire berrogetamar urte bai.* || *A il sala ya ixengo dire bost-sei urte.* || *Ontzu ondio ganera! Arek ondio karabidxan daua berrogetamar urte esta ixengo.* || *Orre pe urte asko dxok, sarra dok.* || *Enas jun pasa dan urtin.* || *Oiñ e jun dan urtes estu ein, baya ba len txala bi iltte san etzien, da aren eitte sanari odolosti esate gentzon, buskentza barik.* || *Galdatxue an dau geurin be ugerres beterik, an, jun daneko urtes ibili be estin-de.* || *Larogetasak urtetako kontu di orrek.* || *Ointxe datos urtiek. Urridxen atzanengo astelena ixan ei san da. Osea larogeta bi urte erre sala.* **2.** Cumpleaños. || *Neure urtiek dire geur.* ☐ **urte biri baten.** Una vez cada dos años. || *Galipot makiñie: galipota sabaltzen dabena, makiñie, oiñ esta ikusi be eitten alako makiñarik. Len ibilte siriñ urte biri baten-edo, iru urteri baten-edo-ta, arri sulutan botate san suluk tapaute eitteko-ta.* ☐ **urte egune.** Cumpleaños. ☐ **urteko mesie.** Misa de difuntos que se celebra al año del fallecimiento. || *Urteko mesie: illeri eitte dxakona, andik urtebete garrenien.* ☐ **urtie ein.** Pasar un año. ☐ **urtiek jun, urtiek etorri.** Año tras año, con el paso de los años. Aldaera: *urtie jun de urtie etorri.* || *Troskie, urtiek jun urtiek etorri, beti gastau eitten da.* ☐ **urtiñ-urtin.** Todos los años.

urtebarri, urtebarridxe. (URTEBARRI, urteberri-bat.) Año nuevo. || *Onek Santageda ta one bestio pai baya urtebarri tte orrek kanteta sirin.* || *Urtebarri karri, txarri belarri, dekonak estekonari, emotie sarri,*

nik estet te, suk emon niri, kolko bete madari. □
urtebarri egune. Día de año nuevo. || *Ori urtebarri eguniñ esaten da.*

urtebeta, urtebetie. (URTEBETA) Variedad de manzana que en castellano se conoce como pera de año. || *Urtebetie naiku suridxe da, suri-suridxe be esta, baya alderdi bat eukitten deu, onen plan moduko oridxe be estau eukitten, baya apurtxut suri-suridxe berdi bayo oriskatxuaue, alderdi bateku ixen da.* || *Urtebeta sagarra.* || *Aintxiñeko urtebetak.*

urtebete, urtebetie. (URTEBETE) Un año (completo). || *Lutue urtebetera arte eitte san.* || *Beres emen lutue, urtebetin lutu erute san, da gero beñ urtebete pasau eskerun, ba alibidxau eitte san apur bet medi lutu ipintte.* || *Len iguel eukitte sendun sei illebetiñ ero urtebetin be artue, garandute igul sakunero, da areri eitte dxakon txiripidxe.* || *Txiderra landan badau. Len. Salbajie. Baya solutan ereiñ eitten da. Da orrek urtebeterako agunteten deu bakarrik.*

urteera, urteerie. (URTEERA, irteera-bat.) Salida. □
urteerako mesie. Misa de salida.

urtekera, urtekerie. (URTEKERA) Salida (acción).

urten, urteten. (URTEN, irten-bat.) 1. Salir. || *Ain lekuten urek urten deu.* || *Itxuski garratza: artik eta atxekidxe deusen lekun urteten deu orrek. Bestela esteu urteten itxuski garratzak.* || *Da bat egon san goixaldien Lekeittora juteko. Bat oiñes, da urte tzo katuk. "Katu, aldeixu ortik!" esan tzo, da jau!, makillias emon tzo saplasue, ta alborau.* || *Etzesalie? Ba etzesali ser dala esangot? Emen ba estau etzesali ixeterik eta barrun oteri baya etzesalie, ba, asko oten da etzien da gitxi urteten deu.* || *Goi lañuk tapaute dxak, geur etxok argittu eingo, euskidxe etxok urtengo.* 2. Sobresalir. || *Silbota? Tripi olan urtenda dekona.* || *Ormatik kanpora urteten daben tellatueri bolaupie deitzen tzeu.* 3. Resultar, quedar(se). || *Orduen urtete deu gosuen, askos be.* || *Geusik ondo urten deu.* || *Bueno, ardidxen esnias eitten da gastaye, beidxenas be bai, euntzenas be bai, baya urteten deu orrek e beidxen esnias eitten danak urteten deu urridxaue, gitxiau. Gitxiau urteten deu ardidxenak eta euntzena payo.* 4. Brotar. || *Malluki salbajiek beres urteten dabe.* || *Orridxe urteten das.* || *Baya aistidxen bai, aistidxen bastante urtete ban. Da perretxikue ederra san, ederra perretxikue!* || *Landariri urtete tzeniñ e loratxuek, frutu ixeteko ixeten da. Landariñ e lorie ba axe ixeten da, loratxue frutu emoteko.* || *Urten tzo alako geusa suritxu batek.* || *Dana troski dxak eta otik urtete dxok.* || *Beste ba tau, san jose lorie. Da axe ariñen loratzen da. Da txiki-txikitxue, da lora oritxue. Onako orri... Onen tamañoko orridxe eukitten dau, da orri sabala. Eta erdidxen ori-oritxu urte tzo. Da a da san jose lorie.*

Axek urteten dau ariñen. 5. Tocar. || *Loteridxe urt tzo.* □ **urtekeran.** Al salir.

urten, urtena. (URTEN, irten-bat.) 1. Saliente. || *Eperdi txuntxurre eperdi urtena dekonari-edo olan txuntxurre esango dxako.* 2. Destacado, resuelto. Ik. *lagungiñe.* || *Mutil urtena: jentartien ibiltzen da, edonogas ibillitte, lagungiñe edo urtena.* 3. Mujer resuelta; joven que empieza tempranamente a salir con chicos. || *Andra urtena.* || *Ori da urtena!* || *"Neska urtena": urtena dala, asko ibiltten dala, ta ba apur bet solti dala.*

urtero. (URTERO) Anualmente, cada año, todos los años. Honela ere esaten bada ere, *urtaro* da formarik erabiliena.

urteurren, urteurrena. (URTEURREN, urteburu) Aniversario.

urteyera, urteyerie. (URTEERA, irteera-bat.) Salida. || *Ak euki deu urteyerie!* || *Ule makala: bai, ule..., urteyeran-da umi pa batzuk e makal-makala eukitten dabe ta nekestxuau urten be eitte tze ta alaku bai, ule makala bai, "Ule makala deko".*

urtu, urtzen. (URTU) Derretir, fundir. || *Eurre urtu.* || *Burdiñe urtu.* || *Argixaridxe urtu.* || *Pastillie urtu da.* || *Koipie urtute eitten dana da.* || *Asukarillue uretara bota, da urtu ein da.* || *Da koipie ixaten da, dana koipie. Da dana txikittute ba urtu, da ontzi baten altzeu.* || *Urtu-edo eitten dan geusa bat: "Ein da des".* || *Eur ure da ya, urtzen dana, bota ala urtzen danin, "Ori eurreuridx-ok", eur ure, bigune, dana urtu, jeusi orduko.* || *Koipe gasi ixeten da: koipie eitten da, txarrixen koipi eitten da, geu pe eitteu te, satitxu-satitxuk ein, de urtu, ba gordeta eukitteko urtu, te gero botaten da lapiko batera edo lurreko ontzi batera.* || *Koipe opille? Ba, len..., oin be bai, iltten da sesiñe, da len be bai. Barrun eukitte itue estartien koipik, eukitte ittu. Arek koipiek eitten dire urtu. Suten ipiñi de urtu.*

urtxakur, urtxakurre. (URTXAKUR, igaraba) Nutria (*Lutra lutra*). || *Urtxakurre ur ondun egoten da, berentzako presie eitten deu.* || *Urtxakurre bai entzu ot, baya orrek e gu geuk urtxakurrik emen estou.* || *Urtxakurre da seinde sube moduko orrek, urtxakurre.*

urtzu, urtzue. (URTSU) 1. Acuoso, -a, abundante en agua. || *Urtzu? Bai, leku... e, ur asko doin leku: "Urtzu dok ori leku, urtzu dok!". Esate baterako, sakon batera ure batzen di lekure, da ori leku, "Dios, urtzu dok leku, da itto ittok or landarie!"* || *Leku urtzu da ure gelditzen dana, leku umela beres dana.* || *Singerie: urtzu dan parajie. Lur bigune, da urtzu dana, da ainki-ta apur bet berantz eitten dabena, da singerie.* || *Sideridxe urtzu da.* 2. Jugoso, -a, sabroso, -a. || *Madari urtzue da ori; batzuk egoten di sikuk, eta bestik urtzu.* || *Dios, au dok frutie urtzue!*

urun, urune. (URUN, irin-bat.) Harina. Ik. *arturune*. || *Urun esie*. || *Urun eralgidxe*. || *Kilo bat urun*. || *Morokil siriñe da urun gitxias einde, bigune*. || *Berton erreten san ogidxe, jun errotara da bertoko garidxas urune ein*. || *Urun eitten dabe an Okan*. || *Urun eitten dabe artuas da garidxas, baitte sebadi be*. || *Bueno, garandu eitte sirin, da gero errotara erute siriñ urun eitteko*. *Gixaburuara makiña bat bider jun nitzen neu be*. || *Ama urune eralgitten dau*. ☐ **urun suridxe**. Harina de trigo. Sin. *ogi urune, gari urune*. || *Urun suridxe da gari urune*. *Besti da arturune*. *Taluk eta orrek arturunes eittosus*. *Da gari urunas e ba len eitte san aidxe*. || *Natilli bau, natilli esate dxako emen*. *Urun suridxas, arrautzak eta asukri-da*. *Natillie guk esaten deutzeu*. ☐ **urun askie**. Arca de madera que recibe la harina de la molienda. || *Urun askie beko kajie da*. ☐ **urunetan**. A por harina. || *Emen ba estan les errotarik, emen Gixaburuara jute giñiñ e urunetan-da*. ☐ **gari urune**. Harina de trigo. Sin. *ogi urune, urun suridxe*. ☐ **ogi urune**. Harina de trigo. Sin. *gari urune, gari suridxe*. || *Ogi urune gari urune da*.

urundu. (URUNDU, irindu-bat.) Moler, convertir en harina. || *Urundute dau*.

uruntzu, uruntzue. (URUNTSU, irintsu-bat.) Harinoso, -a. || *Da gari gorridxe da garaun eundidxaue, da ba uruntzuau izen biarrin baya ori garidxe, ori txikidxori txikitxu basala, baya urune obiaue eukitte bala esate ben, suridxau ixete san*.

usaba. (UGAZABA) Amo, patrono. || *Etzien usaba*. || *A da usaba*. || *Len ixete san usabari errentie erun, gabonetan-da jeneralien*. || *Txakurre an doye usabagas*. || *Usaba or dxak*. || *Usaba da agintzen deuna*. || *Usi da leku bat, ba jauberik estekona, edo beres e esteko, usiek estau eukitten usaba bat, espabese usi dan terrenu da, geidxenbaten da erridxena, edo gobernuna: usie*. || *Da eitte dxakon kurtze bat, da a kurtzik esan gure deu usaba dekola*.

usakera, usakerie. (USAKERA) Costumbre. Ik. *usedidxue, oitturie*. || *Orrek usakeri orixe deko*.

usau, useu, useten, usetan. (USAU, usatu-bat.) 1. Usar, utilizar, acostumar. || *Olan useten da*. || *Emen esan usetan*. || *Ure edateko ontzi, tanga txikitxuri-edo ba txolota esate dxakon, esate tzen lenguek, geuk estou usau esaten txolota baya*. || *Estou sekule usau esaten olakorik*. || *Erregenetan emen olanik esta usetan olan erregalu eitterik*. || *Bueno, satza eruteko emen eskendun (angailarik) usau iñois be satza eruteko*. || *Bidegiñi a ixete san*. *Gero erridxek e ori emote ban, ardaue*. *Errasiñoye esate dxakon*. *Da asko moskortute*. *Bai, aprobetxetan, da gero moskortu*. *Bueno, len bidegiñetan-da moskorrakin jentie*. *Usau bes ardaue edaterik! Baserridxetan-da pentzau bes ardaue edaterik! Baten batek ardaue edate baban! Baya*

pentzau bes! Ure. 2. *Acostumbrar(se), habitar(se)*. || *Ekanidute dxak ori, len useute dxak ori*. || *Jente modue! Txarra leku askotan dau e! Jente txarra*. *Guk estu pentzetan, emen berton useute*. *Baya motillak! Bai, alakorik e!*

use, usie. (USA) Ejido, monte comunal de los pueblos. || *Jauberik estaben basue, erridxe arduretzen dan basue usie da*. || *Usi da leku bat, ba jauberik estekona, edo beres e esteko, usiek estau eukitten usaba bat, espabese usi dan terrenu da, geidxenbaten da erridxena, edo gobernuna: usie*. || *Usie errematin be botaten da, diru falta daniñ erridxen errematin botate ittue*. || *Usie ixete san erridxena*. *Jauberi baku laku ixete san*. *Baya are pe etziren eoten..., are pe edo ango etzeku espada, beste etzekue edo bestekue, are pe ebei eitte sittuen*. *Ebate sittunak erridxek ipiñiñeko petxu pagau bi xan*. *Edo be aspiarridxe, edo bedar siketu eiñ edo egurre ekarri, edo ba dana eitte dxakon seoser*. ☐ **useko arbolie**. Árbol del monte comunal. || *Usak? Bai, usie*. *Arbolik e, espadaue emen etziek bakotxe beren e terrenun jaube eindde das lengo etzik e, baya badau nonun arbola bat da jaube baku lakue, useko arbolie da*. || *Usako arbolie, usaku, usan, usan dauna*. *Esate batera, erridxen terrenuk; orre tie usak*.

usedidxo, usedidxue. (USADIO) Costumbre. Ik. *usakerie, oitturie*. || *Pentzetot nik, guk estekogu usedidxorik asal urdiñe esateko*. || *Antxiñeko usedidxuek*. || *Usedidxeko kostunbriek*. ☐ **aintxiñeko usedidxukue**. Persona que se rige por las costumbres o maneras de hacer antiguas. || *Amantalak e kosiñarako*. *Oiñ etxok iñok useuko baya onek aintxiñeko usedidxuku pai*.

usein, useiñe. (USAIN) Olor. Ik. *atza, boladie, sundie*. || *Erre useiñe*. || *Usker useiñe*. || *Kortan useiñe deko*. || *Useiñe dao emen*. || *Usein gosue dau*. || *Useiñ ona dau*. || *Usein pestie*. || *Usein txarra dau*. || *Usein satarra*. || *Okela errien useiñe*. || *Erre useiñe deko*. || *Erre useiñe dau*. || *Useiñ ederra deko setorridxek*. || *Mimosik usein gosue eukitten deu*. || *Ereñotzak emoten deu ba alako usein goso bat, erreten danien, da axe artu*. || *Usein fuertie (siloko bedarrana), atza be esta, usein fuertie botaten deu*. || *Iñurrondokuk usein santarra eukitten dabe*. || *Oreganue bedar bateri esate dxako, a usein larritxu eukitten dabenari, tte batzuk e murtzillari eitte tzo*. || *Larrosa useiñe dau*. || *Asma bedarrak usein, ba, gosue estau eukitten, baya aguntau esin laku be esta*. || *Txepetxa txoritxu da, txiki-txikitxue, ollogorren tipokue, da ollogorran useiñe eukitten deu, bai, txakurrek arte tze*. ☐ *Lelo useiñe deko orrek*. ☐ **useiñe artu**. Oler. || *Ño, niri sartu dxatek gosie, au useiñe artu tenin!* || *Nok esango ban e beidxek eskillatan gora? Ba ati sabalik, da arek useiñe artuko ban*. *Da eskillatan gora beidxek, da ilde topau ben*. ☐ **useiñe atara**. Oler, desprender olor. || *Osasun*

bedarrak useiñ itzela botaten deu. Lori esta. Bronku da. Arek estot pentzan lorarik ataten dabenik. Baya usein bet! Usein bet atate dxok! Da osasun bedarra esate tzeu. ☐ **useiñe bota.** Oler, desprender olor. || Asadorak lora batzuk dire, useintxu bet botaten dabenak. || Ori ba, olan esan dotena, useintxu botaten deu apurtxut (trumo bedarrak) eta useiñe be goskotxu-edo botaten deu. || Sagarrak batute daus, da useiñe botaten das. ☐ **useiñ ein.** Oler. ☐ **useiñe emon.** Dar olor. ☐ **useiñe euki.** Tener olor. || Malbabisku bedarra esate tzeu, te apurtxut ba, useintxu eukitten deu. ☐ **useiñ onekue. 1.** De buen olor. Esaterako, jatekoekin esaten da: Useiñ onekue da edo Useiñ ona deko orrek. **2.** De buen olfato. || Txakur bet erbitten badoye de erbidxek topeta baittu: “Useiñ onekue da ori!” esaten da. || Txakurre etartien dau lotute igul. Ba etorten bada bat eta sentiduten badau urrun datorrela, useiñ onekue da a be.

useinke. (USAINKA) Oliendo, olfateando. || Txakurre useinke dabil.

useintzu, useintzue. (USAINTSU) Perfumado, -a, oloroso, -a.

usen, usena. (USAN, izain-bat.) Sanguijuela. || Usena ipiñi. || Usena inketen danien, txupau-txupauten egoten ei da garatu barik, sekule es ei da beteten. || Usena koko bat ta, koko baltz txarra, benenosu. Erreketan edo lekupreskun egoten dana da.

usker, uskerra. (UZKER, puzker) Pedo. || Usker useiñe. || Indarrak jan eskero, aixie, aixie eitten dxako da uskerra bota biar. || Purrustadaka? Bai, uskerra bota eskerun.

uskeri, uskeridxe. (HUSKERIA) Cosa sin importancia, nadería, bagatela. || Uskeri bat da eser estan geuse bat.

uskerka. (UZKERKA) Ventoseando, echando pedos.

uskerti, uskertidxe. (UZKERTI) Pedorro, -a.

uso, usue. (USO) Paloma. Sarritan palomie ere esaten da. Nabarnizen, eskuarki, uso mota bi ezagutzen dira: uso mandue eta uso tortolie. Gaur egun, uso mandue gutxiago esaten da lehengo aldean, besterik gabe, usue esaten zaio eta. || Usue da euskerazko berbie, da palomi ba, erderas be paloma esate dxako, da erderasku ixen biko deu. Oin palomie esaten da bai, baya usú be palomigeittik. || Usuk euki dxok pasie. ☐ **uso mandue.** Torcaza. || Uso mandu guk esate tzeu e... askok esate tze usue, da guk len beti uso mandue. Da oiñ emen berton be dana... uso manduri gitxi esaten deu, usue. || Paseko txoridxek: martxan doixen orrek. Berton geratzen diña barik, martxan orrek juden di ba uso manduk. Palomi esate tze askok. Uso mandu guk. ☐ **uso tortolie.** Tórtola común. || Usuk daus klasik. Usuk daus uso tortola, da uso mandue. Guk len arexe klase bidxek esautze gendusen beti. Da oiñ esaten dabe

uso tortolak eta usuek, “Usu pasi dxak” edo ori. Orrek askok esate tze uso txikidxe bestiri, tortolari. Orre tortolak bakixu nun dausen urte gustidxen? An anbulatoridxun, an e kra-kra-kra eitten dabe arek. Da an arbolatan..., da arexek uso tortolak. Da len emen etorte siren abustuen, nabo sasoin, nabu atarate eben orrek. Da oiñ esta etorri be eitten eser. Oin pasi, pasi eukitten dabe orrek. Amen e Gerniken da onetan pilluk illte itue. ☐ **uso txikidxe.** Tórtola común. || Uso txikitxuek emen be olan negun-de agertzen dire, leku epelaure etorteko-edo, txikitxuauek. ☐ **usun paradie.** Parada de paloma. || An usun paradie ote san itzela!

uso kostunbrak. Costumbres, usos. || Orrek aintxiñen uso kostunbrak e, bat eskontzen sanien, ba arriu ekarteko, beidxekin, de txirriñe joten, da musiki joten an rin-rin de rin-rin de rin-rin-de, gixonak ipintte ban, estutxu-edo ipiñi selak, sati ein deidxen. Txirriñak.

usokune, usokunie. (USOKUME, usakume-bat.) Pichón.

uste, ustie. (USTE) **1.** Fe, esperanza, confianza. || Usterik gitxiñeñ etorri dxaku. || -Etorri dxatzu baten bat. -Bai, uste barik etorri da. || Badekot etorteko ustie. || Ara juteko ustie euki dot. || Ori eitteko usteigas egon nas. || Erabilli dot ustie, baya esiñ ixen dot. || Ustes egon nas juteko. **2.** Creencia, opinión, idea, juicio, parecer. || Neure ustes ondo doye. || Nik pentzetot babalastue personiri esate dxakonien eundidxe ixengo dala. Eundidxe ta nire ustes e biergiñe be esta ixengo, se “Babalastu lakue asitte dau”-te esate dxako mutikuri be igul. ☐ **uste barik.** Inesperadamente, de manera imprevista. || Uste barik etor san. || Uste barik jun nitzen. || Bueno, olanik uste barik axe bolada bat datorrenien, ba axe buruxidxu esate tzegu. ☐ **uste bakue.** Inesperado, imprevisto, impensado. || Nonor etorten da eta: “Bai, ustebakue ixen da”. ☐ **txar uste barik.** (Decir) sin mala intención. || “Txar uste barik esan deu”: berba bat esan igul, ondo..., bestiri, entzun dabenari ondo jeusi es, da ba “Txar uste barik esan deu”.

uste. (USTE IZAN) Creer, pensar, opinar. Uste dot baino gehiago Pentzeto pa esaten da. || Bai, nik uste dot bayetz.

usteï, usteidxe. (UZTAI, uztao) Cierta mala hierba. || Ustai bedarra txarra da. Solun eoten dire orrek, landan be bai. || Usteidxe bedar bat ta, solun eoten dana, da asitzu-asitzu be da. || Usteidxe da bedar txar bat. Asitten eukitten deu! Bueno, akabue!” || Usteidxe? Lurren barrun asten dana? Sustreidxa ixeten da usteidxe. Da asten da..., ariñ atara eskerun eitte ittu da aundidxe be asten da itxi eskeruen. || Usteidxe? Usteidxe da lurpiñ emoten dabena, landara batek, usteidxe esate dxako. Da landara batek e emoten deu ba lurpin, emoten deu ba usteidxe. Landara batek

emoten daben ba sustreidxe edo landara batek emoten dabena, bier estabena.

ustel, ustela. (USTEL) 1. Podrido, -a. || Arrautze ustela. || Lur ustela. || Ustel useiñe. || Sagar sindue da ustelik estekona. || Ikola esta usteldute dauna, ustela dekonari ustela esate dxako, baya ikolduneku da geusa bat, selan esangot?, argaltzen dana-edo, gitxi asi dana-edo. 2. Vago. Ik. alperra. ☐ **ustel asidxe.** La que ha empezado a podrirse. Esaterako, sagarrakin erabiltzen da: *Orrek ustel asidxok kendu pillotik!* ☐ **ustela ein.** Podrirse. Ik. *usteldu.* || *Arreidxu puntetik-ero jute dxako geixu-ero. Arridxu esate gentzon len beintzet. Usteldu eitten da gero. Andik ustela eitte dxako.*

usteldu, usteltzen, ustelduten. (USTELDU) Podrirse. Ik. *ustela ein.* || *Arraiñe usteldu ein da.* || *Frutie usteldu ein da.* || *Sagarrak usteldute daus.* || *Usteltzera doye.* || *Baya usteldu nekes eitte san, nekes usteltze san egurre.* || *Mispillie frute bat ta. Badas geurin be mispillak, eta eurten batu be estire ein. Usteldute jateko ixeten dire.* || *Bedarrak araketu te bedarrak solteta dxakos. Gero goldaketu eskerun aspire juten da, soidxe ataraten deu goldik ganera, da aspidxen egoten da bedarra usteltzeko.* || *Irue ixeten da barrukue usteldute dxakonin.* || *Orrek eitte ben kodañas ebai, da apur bet usteldu eitte saniñ e, ordun ekarte ben ota-bedarra.*

ustelkeri, ustelkeridxe. (USTELKERIA) Corrupción, tongo, engaño. Esaterako, apostuetan honela esaten da: *Ustelkeridxe in deu!*

ustelkor, ustelkorra. (USTELKOR) Corruptible. || *Ustelkorra bai, ariñ usteltzen dana, ustelkorra. Esate baterako, sagarra pe oten dire ariñ usteltzen diñak, "Ustelkorra dosak orrek, ariñ usteltze sak"-eta.* || *Ustelkorra? Bai, ustelkorra usteltzen danin sagarra nai madaridxe nai ba... ustelkorra.* || *Ustelkorra dire.* || *Ustelkorra das.*

ustelune, ustelunie. (USTELUNE) Parte podrida. || *Sagarrak ustelunie deko.*

ustu, ustuten. (HUSTU) Vaciar, agotar. || *Oin be tratorien bedar berdie badau kargaute, berdie, ta ustute esposu egun erdidxen, a gero berotute dau, esta ona.*

usual, usuala. Usanza, tradición. || *Usuala da ba lengo lege sarre modun eitten dan geusi. Usuala.* ☐ **usualekue.** Tradicional. || *Usualeko kostunbrak.*

utz, utze. (HUTS) 1. Fallo || *A ixen dok utze!* || *Orrek bota dxok utze!* 2. Vacío, nada. || *Artaburu utze.* || *"Etze utze, gerra utze": eser estekona edo geusa gitxi dekona-edo, olakugaittik esaten da.* || *Tekara da ba baiña, nai indderra, nai iderrak, ba teka, teka utzek batu, tekara batu.* || *Gastañarrue? Bai, gastañarrue esaten da, gastañiri, barru utze dekonari. Ganie, asala ta ganie, da barru utzik.* 3. Neto, total, rematado. || *Soro utze dok ori.* || *Koipie da txintxerra, koipe*

utze. || *Suri utze barik artin baltzak-eta dekosanak.* || *Lapur utze da!* || *Berba utze da.* || *Txaliñ utze da!* || *Miskiñ utze da!* *Da beleikidxe da, egur utzesku ixeten da, esaten da se eukitten deu kirtena da alderdi bidxetatik eukitten deu olanik alde batera ta bestera, da erdidxen eukitten deu sulu einde, da palue olan sartute, makillie.* || *Bueno, tremesa saidxas eitten danari esate tzen-da. Guk emen estou iños usau sai utzas eitten danik, jaterik, espabese sai utze barik, urune eralgiñeku bota, nastau, da illuntxuau urtete ben, da alaku bai eitte gendun, lelengo jateko.* 4. Mero, -a, sólo, -a, neto, -a, puro, -a, sin mezcla. || *Kirikidxolatza biribildu eitten da, eser estrapesurik, da eser topau eskerun, da eser ikusi eskerun, a biribildute gelditzen da, arantza utzin.*

☐ **utz ein.** 1. Fallar, errar. Esaterako, baten bat harrapatzera joanez gero, kolpe egiten ez bazaio: *Utz ein dok!* || *Pelotien asartaten esposu: "Utz ein dxok!"* || *Tiru be, esate baterako, txoridxe dau te utz eitten badau, "Utz ein dxok"-edo, ta joten badau, "Aparau ein dxok".* 2. Faltar a una cita. || *Utzik ein barik etorri!*

☐ **utz eittie.** Error, yerro, falta, descuido. || *Danak dekegus geure utz eittiek.* || *Utz eittie da ba edoselan be "Dios, nik utz ein dot!". Ba soser jeurti tte asartetan-edo juen, da "Utz ein dot!". Ranan esate baterako, jeurtitte su ranie ta estosu asertetan, da "Utz egin dot!".* ☐ **utz emon.** Malograrse, salir mal. || *Da botaten dabe eurek landari, ta origaittik utz emon eskero landariek, edo gitxi etorri eskero, noberak bi dabena bayo-edo... || Utz emon: eraitten dan artue es ernetie: "Utz emon deu". Baya jeneral utz emoti ba erain dan geusa bat, utz emotie.* ☐ **alkar utz ein.** No coincidir, no encontrarse. || *Bata bide batetik jun bada, ta bestie bestetik jun bada, alkar topetako: "Alkar utz ein dabe arek".* || *Bueno, alkar utz eittie esta geusa gatxa. Bata bide sidorretik jun bada, ta besti bide normaletik jun bada, arek utz ein dabe alkar.*

utzarrin, utzარი. (HUTSARRAIN) Enfermedad de las ubres del ganado. || *Utzარი da (beidxen) erropie gogortutie. Otzak-edo eitten dabena da, erropan esnie gogortu. Utzარი axe da. Erropi gogortu. Uras, uras... Urek osatzen deu. Uras jo erropie. Gogor jo, gogor jo, da berotu. Ur otzas. Da ak eitte tzo, jo ta jo ta jo, golpeka, erropie gorrittu eitte dxako, da onantxi. Gero jatzi bi ixaten da, murgildute eukitten deu esnie ta. Utzარი esate dxako.*

utzik. (HUTSIK) Vacío. || *Utzik dau.* || *Utzik dator.* || *Esku utzik dator* || *Airo etze bat da, mendidxen dauna, baya iñor esta bixi oin. Len famelidxe bixi ixan san, da oin ba ama-ta Gerniken bixi dire, ta utzik dau.* || *"Gastañi txikoldute dau": a utzik-ero dauna.* || *Lurre bera etorten da, da goidxe utzik. Da betik ara gora erun ostabe. Jesus! Len orretan eitte gendun! Bueno!*

utzittu, utzitzen, utzittuten. (HUTSITU, hustu-bat.) Vaciar, agotar. || *Utzittik!* || *Utzittuneko posue beteten san arte, beste bat utzittu.* || *Utzittu ori balde ori!* || *Utzittute dau etzie.* || *Emen tangarru esate tzeu, seinde tomate lata bat, nai piper lata bat utzittute jeurten dan bat, tangarri arixe esate tzeu.* || *"Botie ikoldu dok": utzittuten danin, bidxurtute.*

utzune, utzunie. (HUTSUNE) Clapa, claro, calvero (en sembrados). || *Utzunie da ein bako lekue. Oiñ erein, esate baterako, laborie, da gitxi etorri da: "Utzunak das aundidxek".*

uxatu. (UXATU) Expantar, ahuyentar. Sin. *uxokau.* || *'Uxatu' da, esate baterako, botetie, uxatu, botau, espantau, ta bota.* || *Ikeratute danari: "Uxatute dau".*

uxikau, uxikaue. Despistado, -a. || *Uxikaue da despistau esati lakue. "Uxikau garbidx-ok ori!". Beidxeri be esate tzeu guk ori. Beidxeri, an badabil ganora barik eta, "Uxikau demoniñue!", "Uxikaue, beti uxikaue!".* || *Uxikau? Soru dalako. Esan guna, geldi on es, da eskoletzen-da eitte estanari.*

uxoka, uxokie. (UXOKA) 1. Espantadizo, -a, esquivo, -a. || *'Uxoka' da eskapetan-edo dabilela "Uxoka dxak". Ganadu be bai. Bera geldik esteuna: "Ño, uxoka dxauk au!" geldi esteula.* || *Uxoki dau.* || *Esta erres atrapetan, uxoki da ta.* || *Uxoki da ta, beres da uxoki ta.* || *Ori da uxokie!* || *Uxokie da: edosein patari esate dxako, nai personi be bardin, dana lotzorra-edo, jentiti eskapan-edo uxoka ibiltten dana-edo, olaku.* || *Uxoki esate dxako, oluuri be bai, txitxari be bai, Uxokak, "Uxoka das".* 2. Esquivo, -a, escapándose. || *Ollu pe uxoka ibiltten dire, onek iñok segidu eskerun olanik-eta.*

uxokau. (UXOKAU, uxokatu-bat.) Espantar, ahuyentar. Sin. *botau.* Ik. *bilddurtu.* || *Olluk uxokau.* || *Uxokaute dabil.*

4. X letra

xapi. (XAPI) Zape (voz que se utiliza para alejar al gato). || *Xápi! esate dxako katuri.*

xera. (XERA) Caricia; arrumaco; carentoña. ☐ **xerak ein.** Acariciar. || *Xerak eitte ittu, enbsteidxak eitte ittu.* || *Txakurrek xerak eitte ittu, da nobera pe xerak eitte tzos.* || *Lastandutie? Ba ume bateri mosuk emoti-edo, lastandutie. Xerak eitti be bai.*

xeratsu, xeratsue. (XERATSU) Cariñoso, -a.

xiri-xara. (XIRI-XARA) Andar pausadamente, torpemente. || *Xiri-xara ibilli: alilidadie galtzen danin, ya personiek beren ajilidadie galdute dekonin, de pausue erdi dandarres.*

xirin-xaran. (XIRIN-XARAN) Andar pausadamente, torpemente. || *Xirin-xaran esan gure deu ba "Balantzan dabil". "Xirin-xaran dabil".*

xoxie. Sosa. Ik. 1 *sosie.* || *Arenau, arias eitte san, lejas be bai, xoxias be bai, norberak ser dekon erresen, ba aixas.*